

HASTERA DOA, BERRIRO

Derbi batekin berrabiaraziko dute euskal futbol talde nagusiek Liga Txapelketa;
kazetari, futbolari eta entrenatzaile debagoiendarrekin izan da GOIENA / 40



Rosario Garitano eta Fernando Azkarate, Mizpirualden. MIZPIRUALDE



Oihane Sarasketa monitorea, saio baten, Ibarra. IBARRA KIROLDEGIA



Luis Mari Fernandez Pou, Oñatiko Aker tabernako zerbitzaria. E.A.

Eneko Azurmendi ARRASATE

Aste honetan berreskuratu dituzten zerbitzu eta jardueretan izandako esperientzia batzuk batu ditu GOIENAK erreportaje honetan.

ADINEKOEN EGOITZAK**"EGUNERO EGIN DUGU BERBA TELEFONUZ; BANEUKAN GOGOA BERAREKIN EGOTEKO"**

ROSARIO GARITANO, BERGARA

SENARRA BISITATU DU ASTE HONETAN

Ia hiru hilabeteren ostean, bisitak jasotzen hasi dira Debagoieneko adinekoen egoitzak; segurtasun neurri zorrotzekin, betiere. Hala, egoiliar bakoitzeko senide bakarrak egin ditzake bisitak, astean behin, ordu erdiz, musukoa jantzita eta segurtasun distantzia mantenduta, kontaktu fisiko barik. Ekainaren 22tik aurrera, halere, bi senidek bisitatu ahalko dute egoiliarra, baina bietako bat aurretik bisita egin duena izan beharko da.

Rosario Garitano bergararrak Fernando Azkarate senarra bisitatu du asteon, Mizpirualdeko egoiliarra. "Baneukan gogoa, hainbeste denboraren ostean, senarrarekin aurrez aurre egoteko. Ia hiru hilabete ziren elkar ikusten ez genuela. Gainera, oso ondo eta lasai aurkitu dut. Esan dit aspertu egin dela egun hauek. Uste dut desiratzen zegoela nire bisita jasotzeko, eta ni ere bai, noski. Berarekin egoteko desiratzen nengoen".

Onartu du ez dela hain arraroa izan distantziak mantendu behar izatea. "Elkarrengandik urrutitu geunden eta ez zidan ondo entzuten, baina komunikatu ahal izan gara. Egoitzan sartu naizenez, eskuekin musu batzuk

Normaltasun berrira bidean, aurrerapauso bat gehiago, gehienentzat

Konfinamendua arintzeko hirugarren fasearekin batera, etenda zeuden zerbitzu eta jarduera batzuk berreskuratzen hasi dira aste honetan apurka; adinekoen egoitzetako bisitak, esaterako. Bailarako haur eskolek, ordea, atek itxita jarraitzen dute oraindik

bidali dizkiogu elkarri, distantziara, eta eskua eman gura izan dit. Hala ere, esan diot ezin dugula elkar ukitu. Baina konforme geratu gara biok".

Senarra faltan igarri duela aitortu du. "Egunero egin dugu telefonoz berba, eguerdian. Horrez gain, astean behin, bideak egin ditugu eta elkar ikusteko aukera izan dugu. Apur bat gogorra izan da hau, baina mundu guztia endredatuta egon da, eta zer egingo diogu, ba?".

KIROLDEGIEN IREKIERA**"ERABILTZAILEAK OSO MOTIBATUTA ETORRI DIRA, GOGOTSU ZEUDEN ITZULTZEKO"**

OIHANE SARASKETA, ARETXABALETA

IBARRA KIROLDEGIKO MONITorea

Aste honetan atek ireki dituen Debagoieneko kiroldegi bakarra Aretxabaletakoa izan da; jarduera jakin batzuetarako bakarrik, hori bai. "Hasieran, urduritasun handiak zeuden, bai erabiltzaileen partetik, eta baita gure partetik ere. Hala ere, aste hau nola joan den ikusita,

balorazioa positiboa da. Erabiltzaileek gogoa zeukaten klaseetara bueltatzeko, eta oso motibatuta etorri dira, segurtasun neurrietara inongo arazo barik egokituz. Hasieran, galdetu egiten digute nola jokatu behar duten, baina gero, ondo errespetatzen dituzte neurriak. Gainera, poztu egin dira guztia txukun eta ondo prestatuta dautzagula ikusita", azaldu du Oihane Sarasketa monitorea.

Hilaren 15ean, beste jarduera batzuk berreskuratuko dituzte; igerilekuak, fitness aretoa edota rokodromoa, esaterako. Txanda bidez funtzionatuko dute eta pazientzia eskatu diete erabiltzaileei -*Goiena.eus*-en dago informazio gehiago-.

TABERNAKO BARRAK, ERABILGARRI**"DESIRATZEN ZEUDEN BARRAN JESARRI, LASAI ESKATU ETA BERTAN EDATEKO"**

LUIS MARI FERNANDEZ, OÑATI

AKER TABERNAKO ZERBITZARIA

Ireki zutenetik jende asko ibili dela dio Oñatiko Aker taberna-

ko zerbitzari Luis Mari Fernandez Pou-k. "Eguraldi ona izan genuen hasieran, eta terrazak lepo beteta eduki ditugu. Guretzako, lan bikoitza izan da, eta errelebo bakoitzean bi langile egon behar izan dugu, gutxienez. Baina bezero asko etortzeaz gain, kontsumitu ere asko egin dute, eta hori ona da guretzat, irekitzea merezi izan duelako".

Aste honetan, barra irekita, beste aurrerapauso bat izan dela dio. "Jendea desiratzen zegoen barran jesarri, tragoa lasai eskatu eta bertan kontsumitzeko. Guretzako ere aldea nabaria da. Orain arte kanpora begira egon behar izan dugu une oro, ea terrazako bezeroek zerbait gura zuten edo, sartu gura bazuten, ea posible zen. Jende askok kanpoan geratu behar izan du, eta hori ere ez zaigu gustatzen". Halaber, dio okerrena maskara erabili beharra dela.

Asteburu honetan, corpusak izanda, lan asko edukiko dutela aurreikusten du. "Ofizialki, ez da jairik egongo, baina jendea kalera irtengo da, eta, giro ona eginez gero, lan asko egin beharko dugu. Zaila izango da hori guztia kontrolatzea".

AUTOESKOLAK ERE, MARTXAN**"MUSUKOAREKIN GIDATU IZAN DUT HASIERATIK; ERRAZ EGOKITU NAIZ"**

BITTOR ZUBIAGIRRE, OÑATI

AUTOESKOLAKO IKASLEA

Bigarren fasea hasterekin batera hasi ziren apurka martxan Peñakoba autoeskolak. "Zikloa funtzionatzen dugu, eta azterketak hamabost egunetik behin ditugu. Orain, berriz hasi da zikloa hasieratik, jende berriarekin. Beraz, nahasmen apur bat da", azaldu du Iban Peñakobak, autoeskolako irakaslea.

Bittor Zubiagirre oñatiarra aurreko astean hasi zen klaseak jasotzen. "Autora sartu aurretik eskuak garbitzen ditut, eta gero, normaltasun osoz gidatzen dugu; biok musukoa jarrita, hori bai. Lehengo era ez nuen ezagutu, nik hasieratik gidatu izan dut musukoarekin. Beraz, erraz egokituko naiz, arazo barik".

Ikasle batetik bestera autoa desinfektatzen dute. "Bolantea, palanka eta beste hainbat gauza forratuta ditugu, beldur barik garbitzeko. Azterketak egiteko ere, gehienez hiru pertsonak egon behar dute autoan. Ikaslea, irakaslea eta aztertzailea", nabarmendu du Peñakobak.

SELEKTIBITATEA PRESTATZEN**"ONLINE USTE BAINO HOBETO MOLDATU ARREN, NAHIAGO DUT AURREZ AURRE"**


MALEN OSA, OÑATI

SELEKTIBITATEA PRESTATZEN ARI DA

Uztailaren 6an, 7an eta 8an egingo dute selektibitatea, nahiz eta



Bittor Zubiagirre ikaslea eta Iban Peñakoba irakaslea, autoan. E.A.



Malen Osa, selektibitatea prestatzen ari den ikasle oñatiarra. M.O.



Elena Guijarro, Musakola haur eskolan, materialarekin. E.A.

oraindik lekuak eta baldintzak zehaztu gabe dauden.

Malen Osa ikasle oñatiarra da selektibitatea egin behar dutenetako bat, eta proba hilabete atzeratu izana ez zaio askorik gustatu. "Gazteak gara, eta udako hilabete bat kendu digute, baina nota ona behar dutenezat aproposa izango da, agian, ikasteko denbora gehiago dutelako. Ikuspegi ezberdinak ditugu, baina niretzako ez da batere positiboa izan. Gainera, ikasturtea oso luze egiten da horrela, eta apur bat erreta gaude,

nekatuta eta bukatzeko gogoarekin", nabarmendu du.

Aste honetan hasi dira proba prestatzeko klase presentzial batzuk jasotzen, hainbat neurri hartuta. Klase batzuk, ordea, modu telematikoa ematen jarraituko dute. "Hezkuntzan, kontaktu fisikoa oso inportantea da. Online izanda, elkar ulertzea zaildu egiten da askotan. Hala ere, hasieran espero genuena baino hobeto moldatu gara", dio Osak. Aukeran, ordea, nahiago ditu klase presentzialak. "Etxean kontzentratzea zailagoa da. Kla-

sean, aurrez aurre, komunikazioa errazagoa da, dudak askoz errazago argitzen dira".

HAUR ESKOLAK

"ORAINDIK EZ DAKIGU ZEHAZKI ZE NEURRI HARTU BEHARKO DITUGUN IREKITZEAN"

ELENA GUIJARRO, ARRASATE
MUSAKOLA HAUR ESKOLA

Haur eskola pribatuek asteon ireki dituzte ateak, baina publi-

koek, Partzuergoaren baitan daudenek, hilaren 22an hasiko dute jarduna, eta uztailaren 20ra arte egongo dira zabalik. "Partzuergotik segurtasun materiala bidali digute, eta harrera plan bat planteatzen ari gara, nola antolatu beharko garen jakiteko, oraindik ez dakigulako zehazki ze neurri hartu beharko ditugun. Hala ere, 0 eta 2 urte arteko umeekin segurtasun distantzia mantentzea ezinezkoa da", adierazi du Arrasateko Musakola haur eskolako koordinatzaile Elena Guijarrok. Orain arte,

ordea, eskakizun handirik ez dutela jaso dio. "Gurasoei gal-detegi bat egin diegu, eta gehienek erantzun digute ez dutela beharrik, txipa aldatuta dutelako dagoeneko eta irailera arte ez direlako itzuliko. Gainera, haurrak hona ekartzeko baldintzetako bat da bi gurasoek lanean egon behar dutela".

Datorren urtera begira, matrikulazioa irekita daukatela jakinarazi du koordinatzaileak. "Oraingoz, bi izen-emate bakarrik ditugu". Informazio gehiagorako, 943 79 13 03 telefonora deitu.



LANBIDE HEZIKETA

HEZIKETA ZIKLOEN ESKAINTZA ZABALA

20²⁰
21
Ikasturtea

ERDI MAILAKOAK

Erizaintzako Zaintza Osagarriak
Ibilgailuen Elektromekanika
Karrozeria
Fabrikazio Mekanikoa
Menpekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arreta
Soldadura eta Galdaragintza

GOI MAILAKOAK

Automozioa
Eraikuntza Metalikoak

AURREMATRIKULA DATAK

EKAINAREN 1etik 19ra

MATRIKULA DATAK

UZTAILAREN 13tik 17ra

Aurrematrikula zaitetz Aretxabaleta Lanbide Eskolan, ikastetxe publiko eta doakoa

ERRESERBATU ZURE PLAZA!

www.ale-aretxabaleta.eus

DUAL SISTEMA
ERASMUS +
ERRONKA BIDEZKO METODOLOGIA
ENPRESEKIN HARREMAN ZUZENA

688 804 816

Gertuko turismoa, udako denboraldia aurrera atera ahal izateko gakoa

Uztaileko eta abuztuko hilabetei begira, orokorrean "itxaropentsu" agertu dira Debagoieneko ostatu etako jabeak. Atzerriko erreserba gehienak bertan behera geratu diren arren, Euskal Herriko eta Espainiako turistak animatzen hasi direla azaldu dute

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Debagoiengan turismoaren arloan lan egiten duten herritarren zatik denboraldi garrantzitsua izan ohi da udakoa. Aurtengoa, baina, "zalantzas beteta" datorela aitortu dute taberna, ostatu eta jatetxeetako jabeek. Alarma egoera eta faseka antolatutako konfinamendu-arintzea gertutik ari dira jarraitzen balarako turismo eragileak, hain zuzen, *normaltasun berria* deritzonak bereziki baldintzatu baitezake aurtengo denboraldia.

Oñatin aukera gehien

Mankomunitatetik zehaztutako datuen arabera, Debagoiengan, guztira, 720 ohe inguru daude turismora bideratuta. Herriko eta ostatu motaka erreparatuta, Oñati da ohe eskaintza zabalena duena, Debagoiengan duen ohe eskaintzaren ia erdiarekin; 350 pertsona ingururendako lekua dago. Arrasaten 150 ohe inguru daude, 51 Bergaran. Leintz Gatzaga da zerrendan hurrena 39 oherekin, 36 daude Elgetan, 39 Eskoriatzan, 29 Aretxabaletan 28 Aramaion eta 12 Antzuolan.

Ostatu horietan galdetuta, azaldu dute konfinamenduan pasatuko hilabeteetan bertan behera geratu diren erreserbez gain, udara begira oraindik dituzten erreserba asko galduko dituzten susmoa dutela. Hala ere, orokorrean, "itxaropentsu" agertu dira eta bat etorri dira esaten aurtengo udako denboraldia aurrera atera ahal izateko gakoa gertuko turistak izango direla; Euskal Herriko turistak, baita Espainiatik etorritakoak. Zenbaitek azaldu dute Europako herrialde ezberdinetatik zituztela erreserbak, baina mugek itxita jarraitu bitartean arriskuan jarraitzen dute erreserba horiek.

Hasieratik lanean

Bigarren fasearekin batera ireki zituen ateak berriz ere Arantzazuko Bordak. Bi apartamentutan banatuta, zortzi lagunendako lekua eskaintzen dute, eta zabaldu zutenetik astebururo izan dute jendea, Gipuzkoatik etorritakoak denak. Bordako arduradun Julen Arabaolazak aitortu duenez, zalantza asko argitu gabe dauden arren badi-rudi egoerak "hobera" egingo duela udan: "Osasun egoera hobetzen joan den heinean jendea animatzen hasi da, eta poliki-poliki badabilta erreserbak izaten".

Datorren hilabetei begira bertan behera geratu diren erreserbei dagokionez, gehienak Espainiatik kanpokoak izan direla adierazi du Arabaolazak: "Europako herrialdeetako jendearen erreserba asko izaten ditugu eta horiek bere gehien-goan ezeztatu egin dira; azken finean, ez dakite etorri ahalko diren. Frantsesen batzuk badi-tuzte erreserbak eginda udarako oraindik ere bere horretan jarraitzen dutenak, ea zer gertatzen den".

"OSASUN EGOERA HOBETZEN JOAN DEN HEINEAN JENDEA ETORTZEN HASI DA"

JULEN ARABAOLAZA,
ARANTZAZUKO BORDA

"ABUZTUA BETETA DUGU DAGOENKO, ASTEAN ZEHAR ETA ASTEBURUETAN"

MONICA LIZARZABURU,
URKULU LANDETXEA

Arabaolazak adierazi du ekaineko asteburu guztietarako erreserbak dituela dagoeneko: "Etxean hainbeste denbora egon ostean igartzen da herritarrek mugitzeko gogoia dutela".

Langileen erreserbak

Arrasateko Santa Ana hotolean apur bat lehenago berrirerki zituzten ateak, maiatzaren 14an, bi hilabetez hotela itxita izan ostean. Bertako arduradun Iñaki Pildainek adierazi duenez, egoera "zail" ikusten du, baina "denboraldia salbatzekotan, bertako eta Espainiatik etorritako turismoak salbatuko du".

Bailarako enpresa handietara eta kooperatibetara etortzen diren langileekin erreserba asko izaten dituztela azaldu du, eta jardun ekonomikoa lehengora itzuli arte ez du aurreikusten ohiko martxara bueltatuko direnik: "Krisi honek eztanda egin aurretik obrako langileak genituen gurean, Leongoak, hemen lanean ari zirela eta. Konfinamenduan, etxera itzuli ziren, baina orain lanari berrekin diotela-eta berriz ere ditugu gurean".

"MAROKO EDO PORTUGAL HELMUGA DUTEN ASKO HARTU OHI DITUGU GUREAN"

IÑAKI PILDAIN,
SANTA ANA HOTELA

"URTERO ATZERRIKO FAMILIAK ETORTZEN DIRA; AURTEN BERTAN BEHERA GERATU DA"

PILAR BELASTEGI,
IBARRE LANDETXEA



Pilar Belastegi, duela 24 urte abiarazi zuen Antzuolako Ibarre landetxean. J.O.



Julen Arabaolaza, Arantzazuko Bordako apartamentuetako batean atzo. J.O.

Turismoari dagokionez, Martxotik hasi eta urrirarte zituzten erreserba gehienak bertan behera geratu direla aitortu du Pildainek, nahiz eta oraindik baten batzuk mantendu: "Europako herrialdeetatik bidaia abiatu eta Maroko edo Portugal helmuga duten askok gurean egiten dute geldialditxo. Aurtun mugak ere ez dakigu nola egongo diren, ezta hori posible izango den ere".

Abuztua, beteta Urkulun

Logroñoko talde bat hartu behar zuten Urkulu landetxean COVID-19ak eragindako krisiak eztanda egin zuen martxoko asteburu hartan. Alarma egoera ezarri eta dena bertan behera geratu ostean, maiatzaren 11tik aurrera alojamendua eskaintzen ari dira.

Hasierako asteetan langileak eta Gipuzkoako bikoteran bat izan dituzte, baina udara begira aurreikuspena ona dela azaldu du Monica Lizarzaburu landetxe arduradunak: "Egoerak horrela jarraitzen badu, ondo gabiltza, jendea animatzen dabil etxetik irtetera. Denok dugu familia eta lagunekin egoteko


gogoia, eta gure etxea toki aproposa da horretarako, paraje lasaian kokatua".

Udara begira erreserba "politik" dituztela azaldu du: "Abuztua beteta dugu dagoeneko, astean zehar eta asteburuetan. Uztailean lekuren bat geratzen da oraindik, baina ez asko".

Bertakoa eta egonaldi luzea

Ateak berrirerki zituenetik "langileren bat edo beste" izan dutela azaldu du Antzuolako Ibarre Landetxe Pilar Belastegik, baina orokorrean azken asteetarako ez dute erreserbarik izan. Santa Ana hotolean bezala, Antzuola ingurura lanagatik joaten diren asko hartzen dituztela azaldu du Belastegik, eta, lan-tegietako erritmoa geratuta, euren martxa jaitsi egin dela aitortu du.

Konfinamenduan igarotako hilabeteak beteta zituztela azaldu du: "Aste Santura begira beteta genuen landetxea. Orain, poliki-poliki erreserbak iristen ari dira eta udarako aurreikuspen nahiko ona dugu. Bertako turista eta nahiko egonaldi luzearako erreserbarekin da profila". Urtero atzerriko familiak



Iñaki Pildain, Arrasateko Santa Ana hoteleko logela batean eguaztenean. J.O.



Monica Lizarzaburu eta Fernando Fernandez, Urkulu landetxeko lorategian. J.O.

hartzen dituztela zehaztu du; aurtentzen, baina, ezingo zirela etorri adierazteko dagoeneko deitu diotela azaldu du Belastegik.

Bisitak berreskuratzen

Aurtengo denboraldira begira hain positiboak ez direnak ere badira bailarako ostatueta. Gorosarri landetxeko Alex Perezek dioenez, aurtengo udako denboraldia "zaila" izango da: "Ezin da aurreko urteetakoekin alderatu ere egin. Gure bezeroen %60 Europatik etorri ohi da,

"FAMILIA BAT IZAN GENUEN EGUENEAN LABORATORIUM MUSEOA BISITATZEN"

MENTXU ZORITA, LABORATORIUM MUSEOA

"FUNTSEZKO ZERBITZUETAKO LANGILEAK HARTU DITUGU ORAIN ARTE"

MARI CARMEN OSA, EGUZKITZA LANDETXEAK

aurretik egin dituzten erreserba batzuek aktibo jarraitzen dute, baina ez dakigu zer geratuko den".

Elgetako Eguzkitza landetxeko Mari Carmen Osa ere iritzi berekoa da. Konfinamendu garaian ere zabalik izan du landetxea: "Funtsezko zerbitzuetako langileak izan ditugu gurean; gehienbat, osasun arlokoak. Orain ere hainbat langile ditugu, baina turista gutxi". Udara begira erreserbak mugitzen asteko itzaropena du,

"ERRIOXA, NAFARROA ETA ARABAKO BEZERO ASKO DITUGU, ETORRI EZIN IZAN DIRENAK"

RANDA FARHAT, LEINTZ ZUHAITZ ETXEAK

"GURE BEZEROEN %60 EUROPAKO HERRIALDEETATIK ETORRI OHI DIRA"

ALEX PEREZ, GOROSARRI LANDETXEAK

baina segurtasun neurriek kalte egingo diotela adierazi du: "Gela batzuek partekatutako komuna dute, eta, ondorioz, bi gela horietako bat ezin da erabili, komuna ez partekatzeko".

Leintz Zuhaitz Etxeak alojamenduan ere zenbait neurrik "bereziki" kaltetu dituztela azaldu du Randa Farhat bertako arduradunak: "Gure bezeroetako asko Araba, Errioxa eta Nafarroakoak izan ohi dira. Probintziatik ezin irteteak asko eragin digu. Hala ere, badirudi zertxobait hasi dela mugitzen".

Gune lasaien bila

Bailarara gerturatzen diren turista horiek guztiek aisialdi eskaintza zabala dute joan den astebururik; hain zuzen, Debagoieneko turismo-gune nagusiak apurka-apurka ohiko erritmoa berreskuratzen hasi baitira. Klasikoetako bat izan ohi den Oñatin, joan den astebururik martxan daude Arrikruzera bisitak eta Arantzazuko Parke txeko ekintzak. Turismo Bulegoa ere zabalik dago ohiko ordutegian. Lehen asteburuko balorazioaz galdetuta harrera "oso ona" izan duela adierazi dute Turismo Saitetik: "Jendea gogotsu dagoela igarri dugu, bisita ugari egon dira, asko Donostia aldetik. Gune lasaien bila zetozela aitortzen ziguten; askok ez zuten Oñati ezagutzen".

Bisitak berreskuratzen

Bergaran ere aurreko asteburuan berreskuratu zuen Laboratorio museoak bere ohiko ordutegia. Ekainean eguaztenezetik domekara eskaintzen dituzte bisitak eta uztailetik aurrera egunero egingo dituzte. Bertako teknikari Mentxu Zoritak azaldu duenez, bisitariak hasi dira etortzen, nahiz eta "gutxi batzuk" izan: "Gaur, esaterako [eguna], familia bakarra izan dugu Laboratorio bisitatzen. Oraindik martxan dagoen taula periodikoaren erakusketa ikusi dute".

Bisitak egiteko neurriak moldata dituztela ere zehaztu du, eta udara begira derrigorrezkoa izango da aurretik txanda hartzea, bai bisita gidatuak egiteko, baita museo bisitatzeko. Dolmenen ibilbidean ere bisita gidatuak martxan daudela adierazi du, lehena domekan. Parte hartzeko izena eman behar da.

700 ohe inguru Debagoiengan

NEKAZARITZA TURISMOAK	HERRIA	EDUKIERA
Ibarre	Antzuola	12
Lamaino Etxeberri	Bergara	12
Barrenengua	Elgeta	16
Aterbe	Eskoriatza	8
Arregi	Oñati	18
Uxarte	Aramaio	10
Muru baserria	Aramaio	6
LANDETXEAK		
Urkulu landetxea	Aretxabaleta	17
Arteaga landetxea	Arrasate	12
Izal landetxea	Bergara	10
Eguzkitza landetxea	Elgeta	8
Maialde landetxea	Elgeta	12
Etxeberri landetxea	Aramaio	18
PENTSIOAK 1*		
Jausoro ostalua	Aretxabaleta	12
Gure Ametsa	Leintz Gatzaga	11
Goiko Benta	Oñati	20
PENTSIOAK 2*		
Uxarte Pentsioa	Arrasate	10
Urizar Pentsioa	Oñati	14
APARTAMENTUAK		
Gorosarri apartamentuak	Eskoriatza	20
Areano	Eskoriatza	12
Leintz zuhaitz etxeak	Leintz Gatzaga	20
Arantzazuko Borda	Oñati	8
HOTELAK 1*		
Ormazabal hotela	Bergara	28
Ongi Etorri hotela	Oñati	30
Sindika hotela	Oñati	74
HOTELAK 2*		
Arrasate hotela	Arrasate	22
Etxe Aundi	Oñati	22
HOTELAK 3*		
Hotel Mondragon	Arrasate	68
Santa Ana hotela	Arrasate	24
Arantzazuko Santutegia hotela	Oñati	104
ATERPETXEA		
Arantzazuko aterpetxea	Oñati	56
FONDA		
Urbiako fonda	Oñati	19
AUTOKARABANEN GUNEA		
Asentzioko gunea	Elgeta	10
San Martingo gunea	Oñati	18
Ibarrako gunea	Bergara	20

ITURRIA: DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEKO TURISMO SAILA



Eskoriatzako haurrak udalekueetan jolasten. GOIENA

Betiko udalekuen orde, bestelako eskaintzak

Dagoeneko herrietan formula berriak aurreratzen hasi dira gaztetxoek udaldiaz gozatzeko eta gurasoen kontziliazio arazoei irtenbidea emateko. Halere, denek ez dituzte behin betiko erabakiak edo proposamenak aurkeztu oraindik

Uxue Igarza Loiola ARRASATE

Udalekuei ezkor begira jarriak ziren bailarako udalerrri eta elkarteak, baina konfinamendua arintzeko azken faseek aukera berriak ahalbidetu dituzte.

Gatzagan, Gurel Guraso Elkarteak kideak izan dira udalekuei arduratu direnak, eta uztailan, baimen guztiak betetzen badituzte, Nafarroara joateko

asmoa dute: txikiak Etxarrira joango dira –uztailaren 22tik 24ra– eta nagusiak Otsagabiara –uztailaren 28tik 31ra–. Osatuta daude bi taldeak, eta begiraleak ere lotuta dituzte.

Bestetik, Aretxabaletan ere udalekuak egiteko asmoa berretsi dute. Loramendi Elkartea eta Aretxabaletako Udala elkarlanean aritu dira, eta uztailaren

6tik 24ra bitartean egingo direla aurreratu dute. Guztira, 170 haurrentzako tokia egongo da, baina lehentasuna izango dute, besteak beste, guraso bakarra duten haurrek, gurasoak lanean dituztenek edota euskaraz hitz egiteko premia dutenek. Gainerako haurrentzako tokia zozketa bidez erabakiko da, ekainaren 22an, 17:00etan, mojen kaperan.

Horrez gain, Udako Futbol Eskolak ere asmoa erakutsi du bere eskaintza egiteko.

Elgetan, udalekuak ez, baina zaintza zerbitzua abiatuko da. Udalak jakinarazi duenez, ume kopurua herenera jaitsita, eskola erabiliz eta taldeen arteko harremanik gabe egingo da. 2 urteko haurretatik hasi eta 4. mailara arteko ikasleentzako izango da, eta, ezarritako plaza kopurua gairatuz gero, bana-keta egiteko orduan kontuan hartuko dute, adibidez, familiarren egoera ekonomikoa.

Bide beretik, Eskoriatzako Udalak ohiko udaleku irekien programa bertan behera uztea erabaki du, baina Udako Programa aurkeztu du. Zerbitzua uztailaren 6tik 24ra eta 10:00etatik 13:00etara eskainiko da, haurren arteko segurtasun neurriak eta higiene neurriak bermatuz. Bestetik, uztailako azken astean Aresko Campusa egiteko asmoa du saskibaloia eskolak, baina oraindik Udalaren erantzunaren zain daude.

Arrasaten, Txatxilipurdik jakinarazi duenez, Udalarekin egindako bileran, uztailako Udaxe egitasmoa indartzea adostu dute nerabeentzako, baina Udalak ez du haurrentzako egin zuten proposamena onartu. Horrenbestez, "aisialdi eskaintza propioa" lantzen ari direla jakinarazi dute Txatxilipurdikoek. Datozen egunetan emango dute horren berri. Bestetik, Ointxe saskibaloia taldeak lanean dihardu Udalarekin batera udalekuak egiteko, eta Mondra futbol eskolako zuzendaritza ere proposamenak lantzen ari da; momentuz, ordea, ez dute adierazpen zehatzagorik egin.

Oñatin, gainerako hainbat udalerritan bezala, udalekuen

ordez, zaintza zerbitzua abiatuko du Udalak: udako zaintza hezitzailea, hain zuzen ere. Azaldu dutenez, 231 haurrentzako tokia egongo da –hasieran izena 700ek eman zuten arren–. Ekainaren 29an abiatuko da eta lau aste iraungo du. Kontziliazio arazoak "leuntzeko" eta haurrei "arnasgunea emateko" asmoz abiatutako zerbitzua izango dela esan du Udalak.

Proposamenik ez gainerakoetan

Bailarako beste herriekin alderatuta, Bergaran, Aramaion eta Antzuolan bestelakoa da egoera: oraindik ez dituzte udalekuen ordeko zerbitzuak aurkeztu.

Bergaran, maiatzeko azken astean bukatu zen udaleku irekietan eta kirol campusean izena emateko epea. Halere, Udalak oraindik ez du argitu zer egingo duen udara begira, eta ez du esan noiz emango duen horren berri ere.

Aramaion, bestalde, udaldia antolatze bilerak egiten ari dira, baina oraindik Udalak ez du hitz egindakoaren berri eman. Hurrengo bilera astelehenean egingo dute.

Bukatzeko, Antzuolan, udalekuak bertan behera geratuko direla azaltzen duen oharra argitaratu du Udalak. COVID-19ak sortutako "zalantza egoerari" eskolako konponketa-lanak gehitu zaizkiola adierazi dute, eta, beraz, jarduera-gune falta dela eta udalekurik ez egitea erabaki dute.

HERRI GEHIENETAN ZAINZA ZERBITZUAK ABIATU DIRA, PREMIA HANDIEN DUTEN FAMILIENTZAKO

Langileak "baldintza duinak" eskatzeko mobilizatu dira

Aita Menniko eta kolektibitateetako enpresetako langileek bizi duten egoera salatu dute

Uxue Igarza Loiola ARRASATE

Astearte arratsaldean, Aita Menniko langileek auto karabana egin zuten enpresaren jarrera salatzen. Aita Mennin langile falta dagoela diote, eta horren aurrean enpresak "soldata igo"

diela azaldu dute; langileen iritziz, "kolektiboa isilarazteko". Aita Menniko zuzendaritzak, berriz, ez du gaiaren inguruko jarrerarik azaldu.

Bestetik, LAB sindikatuak Ausolan taldearen egoitza parean

elkarretaratzea egin zuen asteazken goizean. Bezero pribatuak dituzten kolektibitateko enpresetan ABEE egoeran dauden langileek ez dutela soldataren %100 kobratzen salatu zuten, eta negoziazio-eremua sortzeko eskatu zioten patronalari.

Bi kolektiboek salatu dute zaintzari lotutako sektoreek eta, oro har, sektore feminizatuek beren-beregi jasaten duten prekaritatea. Gainera, pandemiak egoera hori ikusarazten lagundu duela iritzi dute.



Asteazkenean LABek deitutako mobilizazio irudia. UXUE IGARZA LOIOLA

Euskara ere pandemiapen

KRISTINA ELKORO

ELAY SL-KO ZUZENDARI OROKORRA

IÑIGO GOMEZ, JOSE RAMON JIMENEZ,

JOSUE LAZKANO, ARANTZAZU

EGUIGUREN, ANTONIO GALIOT ETA ASIER

ETXANIZ

ELAY SL-KO LANGILE BATZORDEAREN

IZENEAN

ANTZUOLA

Urte asko dira gure enpresan euskara dela gure hizkuntza. Eta uste genuen euskara normala eta naturala zela gure erakundeetan; beraz, idatziak euskara hutsez sortzen dira.

Hori dela eta, konturatu gara zenbait erakundetan,

administrazioan edota judikaturan euskaraz soilik aritzeak atzerapenak dakartzala, dokumentazioa itzuli behar dutelako eta bertan aritzen diren profesional gehienak ez daudelako euskaraz trebatuta. Ondorioz, auzi motaren arabera kalteak eragiten dizkigu; eta honek sortzen digun beldurrak eragotzi egiten digu euskaraz aritzea.

Gertatu berria den adibidea aztertuko dugu: egungo pandemiak eraginda, Aldi Baterako Enplegu Erregulazioak (ABEE) eskatu behar izan ditu erakundeak, eta ez dago

azaldu beharrik atzerapenik gabeko erantzunak behar dituela; prozesua hasteko lehenengo komunikaziotik hasita, dena gazteleraz idatzi da, ondorengo urratsetan euskarazko testuak Lan Ikuskaritzara iristen direnean atzerapenik sor ez ditzan.

Hori dela eta, egoerari irtenbide bat aurkitu beharrean gaude.

2020ko martxoaren 2an, *El Correo*-k honela zioen: "Los tribunales vascos llevan tres años sin celebrar ningun juicio entero en euskara". Egiari zor, egun, auzi bat euskaraz eramateko epaitegira militantzia dosi

handia behar dugu eta normaltasunetik urruti kokatzen gaitu.

Halere, artikulua berean dio epaileen %9k dutela gaitasuna euskaraz aritzeko. Beraz, badago nondik hasi zerbitzua ematen. Alor horietako profesionalak euskaraz trebatzen diren bitartean, auziak segurtasunez euskaraz aritzeko bitartekoak eskain daitezke. Euskaraz aritzeko gai diren epaileen %9 horietan oinarrituta. COVID-19aren pandemiapen modan jarri zaizkigun protokolo bereziak egokitu besterik ez genuke, euskaraz bideratu

nahi diren auziak hasieratik amaierara euskaraz burutzeko. Eta, batez ere, euskarak atzerapenik edo kalterik sor ez ditzan auzi ezberdinetan.

Ekonomia zirkularra

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN

ARDURADUNA

BERGARA

Hauxe da 2015a ezkerreko Europako erakundeek indartu nahi duten ekonomia mota: jardueran baten hondakinak bestearen lehengai izan daitezela. Ideia polit hau gauzatzen den bitartean, baina, guk, kontsumitzaileok, erosi behar ditugu enbalaie gutxiarekin eta ekonomia zirkular jardueran ekoiztutako produktuak.

Daukagun zaborra ondo sailkatu eta sor dezakegun errefus apurrari beste sailkapen bat ematea proposatzen dizuet: gure herriko plazan San Juan egunean erretzeko modukoak direnak aparte gorde, ea gelditzen dugun Zubietako erraustegia, zaborrik ez duelako erretzeko.

Izan ere, orain, batez beste, 400 tona zabor erretzen ditu egunean, eta aurreikusten dute egoera normalean 500 tona egunean erre ditzakeela.

Anima zaitetz eta egin zure eskuan dagoena errefusik ez sortzeko.

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna


Idatzi zure gutuna eta bidali
gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharreak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





ZABALIK

PATXI OLABARRIA IRIZAR

Iturriaren bueltan

100 urte hauetan zure urretatik edan duten, dugun eta edango dutenen izenean zorionak! Eta segi horrela etengabeko jarioan freskotasun eta alaitasun hori ematen. Horrela dio duela 25 urte Kalebarrengo iturrian jarritako plakak; beraz, aurten du 125. urteurrena.

1895etik milaka lagun ezagutu ditu eta horietako asko ez daude jada gure artean. Azken hilabeteetan jariorik gabe egon ondoren, maiatzaren 7an berriz ura ematen hasi zen egun berean, iturri parean bizi izandako *Barberito* txistularia joan zitzaigun. Maiatzaren erdialdera, iturriaren beste aldeko Kruz *Pollero*-k utzi gintuen.

Maiatzaren amaieran, berriz, iturriak berak baino ur gehiago isuri genuen malkotan. Iturri ondoko beste bizilagun bat joan zitzaigun. Konfinamendu garaian balkoitik balkoira sarritan ikusi nuen laguna; arropak eskegitzen, txistularioi grabatzen, bizikleta estatikoan,

Urepeleko artzainari kantuan, emazteari zorionak abesten...

Triste gaude, baina bere oroitzapen ugariak irribarrea eragiten digute. Gogoan dut nola egoten nintzen

TRISTE GAUDE, BAINA BERE OROITZAPEN UGARIK IRRIBARREA ERAGITEN DIGUTE

dardarka, Makila handien dantzan bere parean tokatuz gero, behatzen bat noiz joko; edo, azkenean, Miren Karmeleren baiezkoa jaso zuenean, ezkon aurreko despedidan *drag queen* jantzita zeukan estiloa; edo alardean beste guztiak baino lehen tiroa botatzen zuenean; edo bere ikasle dantzarien atzetik ilarak zuzendu nahian plazara korrika irteten zenean.

Handia zen gure *Aranbarri*, gure *Itsasmendi*, gure Gorka, eta handia da utzi duen hutsunea. Baina dantzatzan duen herria ez da inoiz hilko, eta hilotzaren aurrean herriak dantza egin zion, guban bizirik diraelako eta berak emandakoaren jarioak etenik ez duelako.

125 urte hauetan joan zaizkigun guztiak gogoan, iturri zaharretik edango dudana ur berriaren lehen tragoa hire omenez izango dok, Gorka.

Irribarre handi batekin, *Unblenble!*

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Konfinatu al da prostituzioa?

ISA EGIGUREN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Espainia prostituzio gehien kontsumitzen den Europako Batasuneko herrialdea da. Munduko hirugarrena, Thailandiaren eta Puerto Ricoren atzetik.

Baina zer gertatu da Nafarroan pandemia honetan?

Nahiz eta alarma-egoeran egon eta pisuak eta klubak itxi, eskaria etengabea izan da. [...]

Emakume batzuk zeuden prostituzio-guneetan mantendu dira, eta edozein alokairuren ordainketa aise gainditzen duen zorra sortzen

ari dira. Beste batzuek, aldiz, ostaturia bilatu behar izan dute klubak eta pisuak ixtean, oso kontu zaila inolako diru-sarrerarik gabe eta, jakina, inolako laguntza publikorik gabe, Estatuarentzat ikusezinak baitira. Hori dela eta, batzuek prostituzioa izan dira berrogeialdi honetan.

Egoera horrek arrisku handiagoan jartzen ditu, ez bakarrik kutsatu daitezkeelako, baizik eta hazten ari direlako ahultasun egoerak, erasoak, indarkeria edo nahi ez diren praktikak egiteko betebeharra.

Nafarroako Munduko Medikuen Elkarteak behar berriak ari da jasotzen denboraldi honetan; hots,

elikadura, produktu freskoak edota oinarriko higiegi produktuak.

Erakundeak ondo daki zeintzuk diren emakume hauen eskaerak; batez ere, mundu horretatik ateratzeko baliabideak ematea.

Prostituzioa ez delako munduko lanik zaharrena, baizik eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeria-modu zaharretako bat.

Eta bide horretan, Espainian prostituzioak egunero mugitzen dituen 5 milioi euroekin aberasten ari diren proxenetek erreparatu behar diegu. Baita ate horiek zeharkatzen dituzten gizon guztiei ere, XXI. mendeko esklabismo hau betiketuz.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarteak
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Maite Igartua.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen

aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

BERBAGAI

"Komeni da kapar-ziztadaren berri medikuari ematea"

ELENA ELKORO BOTIKARIA

Eneko Azkarate Laspiur ELGETA
Elena Elkorok (Eibar, 55 urte) "30 bat urte" daroatza Elgetako Elgoro botikan. Kaparren (garrapatak) ziztadak eta koronabirusa ditu berbagai. **Entzuten ari gara kapar asko dagoela basoan. Botikara etorri da ohikoa baino jende gehiago kapar-ziztadengatik?**

Jende asko dator, bai. Orain arte ez dut ezagutu horrenbeste jende horregatik etorri izana gurera.

Zergatik dago kapar gehiago?

Martxoa, apirila eta maiatza eguraldi epel eta onekoak izan dira. Horrek errazten du kapar gehiago agertzea.

Bestetik, akaso, Osakidetzako protokoloak aldatu direlako eta medikuarengana arrazoi honegatik joaten hasi garelako, jende gehiago dator.

Zergatik da inportantea medikuarengana joatea?

Kaparrak ziztada egin duela jakinarazte komeni da, norbere osasun-historialean gera dadin.



Elena Elkorok, Elgetako Elgoro farmazian. LARRAITZ ZEBERIO

Arriskutsuak izan daitezke osasunarendako?

Izan daitezke, bai. Azkenean, kaparrak odola xurgatzen du. Beste animalia batzuen odola xurga dezake eta odol hori, gero, gizakioi pasa, horrek

izan ditzakeen ondorioekin. Izan ere, gerora, beste gaixotasun edo konplikazio batzuk sor daitezke eta diagnostiko egokia egiteko komeni da medikuak jakitea zeure kaparra izan duzula.

Medikuarengana joatea komeni?

Edo hari jakinaraztea. Bestetik, mendira joaten garenean neurriak hartzea komeni da: belar luzeetan barrena ibiltzea saihestu, ibili behar bada praka luzeak erabili, moskitoak uxatzeko produktuak erabili... Eta basoan ibili ostean, gorputzeko atal guztiak ondo begiratu: besapeak, iztaiarteak... Eta dutxa hartu. **Zela tratatzen dituzue kapar-ziztadak?**

Batzuetan, dutxa batekin nahikoa izaten da, baina, ondo itsatsita badago, orduak edo egunak odola xurgatzen badabil, ez da komeni norberak kentzea. Hobe medikuarengana joatea. Norberak erabat askatzea lortuz gero, antiseptikoa erabiltzea komeni da, eta ondoren, medikuari deitzea, tratamendu antibiotikoa jarri edo ez baloratzeko.

Koronabirusagatik, botika mota batzuk beste batzuk baino gehiago eskatzen ditu jendeak?

Bai; maskarak, eskularruak, termometroak, hidroalkoholak... Baita pizgarri naturalak edo babesak handitzeko sendabelarrak ere. Gainera, ohikoa baino jende gehiago etorri da, jeneralean botiketean inoiz ikusi bakoak.

HAU BE BADOGU!

Arrazakeriaren aurka, protestak sarean ere



Mundu osora zabalduta George Floyd-en heriotzaren ondorioz AEBetan duela bi aste hasi ziren protestak:

@kazabaleta: "Oso erraza da arrazakeriaren aurka egotea AEBetan gertaera latz bat suertatu denean, baina hemendik hasi behar da: zure seme-alaben eskolan ez badago haur ijitorik edo etorkinik, orduan haur horiek saihesten dituen eskola bat aukeratu duzu".

@mikel_gorri: "Arrazakeria eta faxismoaren aurrean elkartasuna eta borroka".

Futbol profesionala bueltan da

Atzo jokatu zen gizonetzkoen Lehenengo Mailako koronabirus garaiko lehen neurketa, Sevillan, eta aste bukaeran euskal taldeen txanda izango da:

@imurgiondo: "Entzun dut gaur futbola itzuliko dela. Bada, ez. Gaur gizonetzkoen goreneko mailako futbola itzuliko da; inoiz inora joan bada, behintzat...".

@anestraat: "Futbola eta terrazak bueltan, baina eskolak eta kultura ez? Joan pikutara!".

Pau Dones abeslariari azken agurra

Jarabe de Palo talde kataluniarreko abeslaria minbiziak jota zendu da:

@maia_jon: "@jarabeoficial-eko abeslari Pau Donesek egin duena, heriotzaren atarian bere alabaren ondoan kantu berri bat eskainiz agurtzea... Ederra, hunkigarria... #begirunea".

@Oli604: "Zetorkion heriotzaren aurrean, agur esateko unea eta modua aukeratu zituen Pauk. Gaixotasunak ez zion hori lapurtu".

ITURRI ONETIK

Tokikoari balioa emateko ikus-entzunezkoak

COVID-19ak handitu egin du gertukoarekiko sentiberatasuna, eta balioa eman zaie tokiko merkataritzari, elikagaiei, hedabideei... Hainbat ekimen agertu dira. Debagoienean, duela aste batzuk zabaldu zen Debagoieneko merkataritza sustatzeko ikus-entzunezko bat. Bergarako Lemak taldearen abestia oinarri hartuta, Abbaok Komunikazio Agentziak egindakoa. Aurki, argia ikusiko du Arteman Komunikazioaren beste bat; oraingoan, The Potes talde arrasatearraren doinuekin.

ALBISTE IZAN ZEN

2010-06-13

Reala berriz lehen mailara, hiru urteren ostean

Realak lehen mailara igotzea lortu zuen, Anoetan Celtari 2-0 irabazita. Mikel Gonzalez jokalaria arrasatearra – argazkian– izan zen zuri-urdinen hasierako hamaikakoan. Ligan lehen postuan amaitu zuen Realak 2009-2010 hartan, hain justu ere, amaiera bikaina emanez mendeurrenean hasitako denboraldiari. Anoeta inoiz ikusi bako moduan agertu zen egun hartan, goraino beteta eta egun berezietako giro bero-beroarekin.



Ekainaren 15etik aurrera, lehen izerdiak kiroldegian

Udalak aurreikuspen lanak egin ditu "modu seguruan" kiroldegiko ateak zabaltzeko. Alde lehorreko instalazio batzuk zabalduko dituzte lehenik, eta uztaileko lehen astean, kanpoko igerilekua; hartu beharreko segurtasun-neurriak zehaztu dituzte

Xabi Gorostidi ARRASATE

"COVID-19aren egoerak behar-tzen gaitu kirol instalazioetan hainbat neurri hartzera, bai alde lehorrean eta baita hezean ere. Higiene eta segurtasun neurri guztiak bermatzeko lanean dihardu Udalak. Herritarren segurtasuna bermatzea da lehentasuna", azaldu du Ander Garay Kirol zinegotziak.

Jende kopurua kontrolatzeko asmoz, abonatuak soilik sartu ahalko dira, eta ez dute eguneko sarrerarik salduko.

Hasteko, alde lehorra

Hauek izango dira ekainaren 15etik aurrera alde lehorrean erabilgarri egongo diren instalazioak: tenis pistak, frontoiak, padel kantxak eta kardio makinak gimnasioa. Tenis kantxetan eta frontoian bi lagun aritu ahal izango dira aldi berean eta padel pistetan, aldiz, lau. Kardio makinak gimnasioan erabiltzaileek makina zehatz bat erreserbatu beharko dute eta derrigorrezkoa izango da eskuoihala eramatea, eta makina erabili ostean hura desinfektatzeko bost minutu erabiltzea. Iraupenari dagokionez, lehorreko aktibitate guztietan, asko jota, ordubeteko saioak egin ahalko dira.

Joaten diren abonatuak alde aurreko hitzordua hartu beharko dute, beti; telefonoz edo webgunearen bitartez egin ahalko dira erreserbak, asko jota 48 ordu lehenago, eta beranduenez, bi ordu lehenago. Azkenik, ohar sorta hau eduki beharko dute kontuan erabiltzaileek: erabiltzaile eta erabiltzaile artean gutxienez bi metroko distantzia egotea; ahal dela, igogailua ez erabiltzea; eta aldagelak, takilak, iturriak eta janari makinak ez direla erabilgarri egongo.

Igerilekua, uztaileko

Saunak ez dira irekiko, hasiera batean; bai, ordea, kanpoko ige-



Aitziber Muñoz –Kirol teknikaria– eta Ander Garay –Kirol zinegotzia–. TXOMIN MADINA

JENDE PILAKETARIK EZ EGOTEKO, TXANDA BIDEZKO SISTEMA IZANGO DA KANPOKO IGERILEKUAN

rilekuak. Uztaileko lehen astean zabalduko dituzte, baina baldintza berezietan. Han ere ez da eguneko sarrerarik salduko eta soilik abonatuak erabiliko dute. Gehienez, 250 lagun sartuko dira, alde aurretik txanda hartuta: asko jota, 48 ordu lehenago; eta, beranduenez, bost ordu lehenago. 24 orduko lehenago hitzordua baliogabetezko aukera izango da; ostean, ez.

Txanda sistema bat ezarriko dute, jende kopurua kontrolatzeko, eta distantziak mantendu ahal izateko. Hala, 09:30 eta 10:30 artean, soilik igeri egitera joan ahalko da. Erabiltzaileek ordu erdiko ekinaldia egin ahal izango dute eta, asko jota, hamasei lagun arituko dira aldi berean.

Eguzkia hartzeko edo bainatzeko lau orduz ezarri dituzte: 11:00-13:00; 13:30-15:30; 16:00-18:00; eta 18:30-20:30.

Segurtasun neurriak, zehaztuta

Gune lehorra

- Bi metroko distantziak mantendu, une oro.
- Gehienez, ordubeteko saioak.
- Soilik abonatuak.
- Aldez aurreko txanda hartu beharko da, derrigorrez.
- Aldagelak, takilak eta *vending* makinak ez dira erabilgarri egongo; komunak bai.

Kanpo igerilekua

- Aurreko neurri guztiak.
- Gune berdean ezin izango da baloiarekin edo paletan ibili, ezta korrika egin ere.
- 2006. urtetik aurrera jaiotakoek nagusi batekin joan beharko dute.
- *Txapoteo* igerilekua soilik 6 urtetik beherakoek erabiliko dute.



Juan Arzamendi Musika Etxe berriko lanak, gelditu. JOKIN BEREZIARTUA

Juan Arzamendi Musika Etxean estalkia jarriko dute, babesteko

Orain arte egindako lanak babestu nahi dituzte; BEZa barne, 103.429 euroko kostua estimatzen dute pleguek

X.G. ARRASATE

Juan Arzamendi Musika Etxeko lanak gelditu daude urtea hasi zenetik. Lurgoi enpresak lanak bertan behera utzi zituen eraikin osoko lanen %42 eginda zegoenean. Udalak enpresa horrekin zuen kontratua eteteko bidea hasi zuen apirilko osoko bilkuran, eta ostean, lehiaketa publikoa egingo dute falta diren lanak berriz esleitzeko. Hala, enpresa berriari lanak egokitu arte, eraikina babesteko beharra ikusi du Udalak, eta lehiaketa publikoa deitu dute, eraikina babesteko estalki bat jartzeko.

Pleguak, onartuta

Maiatzaren 21ean, tokiko gobernu batzarrean onartu eman zizuten pleguak. Besteak beste, sei asteko epea ezartzen da estaltze-lanak egiteko, eta 103.429 euroko aurrekontua estimatzen dute –BEZa barne–. Gastu gehigarri hau jada 2020ko aurrekontu barruan dago. Apirilko osoko bilkuran 921.570 euroko kreditu gehigarriak onartu zituen udalbatzak, non 2020 hasieran onartutako gastuen atalean 100.000 euro zeuden lan hauetarako. Orain, kontu sail hori 4.000 euro handituko da.



XABI GOROSTIDI

TAOrrik ez irailera arte

Alarma egoera ezarri zenetik bertan behera utzi zuen Udalak zerbitzua, eta hala jarraituko du irailera arte. "Herritarrei, enpresa txikiei eta autonomoei laguntzeko gelditu zen bertan behera, eta ez da abian jarriko ikasturte berria hasi artean". Gaur-gaurkoz, Uribarri etorbidean, Uribe kalean, Loramendi kalean eta Arimazubi plazan dago martxan TAO zerbitzua.



Arrasateko Amaika-gazte elkarte ireki berritan. XABI URZELAI

Elkarte gastronomikoak hasi dira ateak zabaltzen

la guztiek itxita jarraitzea erabaki ostean, Aritzorri izan zen harria botatzen lehena. Aurreko asteburuan ireki zuten –barrarekin eta sukalderek gabe– eta Amaika-gazte eta San Isidro atzotik daude irekita; beste batzuek finkatu dituzte irekitzeko datak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Duela bi astetik dute ateak irekitzeko aukera elkarte gastronomikoek, baina Arrasaten kosta egin da lehen harria botatzea. Jaurlearitzak zabaltzeko aukera eman eta gutxira, SUDC elkartetik protokolo zirriborro bat helarazi zieten elkarte guztiei. Bertan hainbat gomendio eta jokabide zehazten zituzten, eta elkarte bakoitzaren esku uzten zuten irekitzeko edo ateak itxita mantentzeko erabakia. Hasiera batean, psikosi orokortu moduko bat hedatu zen, eta itxita jarraitzeko erabakia hartu zuten elkarteek, bata bestearen atzetik.

"Inork ez zuen nahi zabaltzen lehena izan, eta ia herriko elkarte gehienek ez zabaltzeko erabakia hartu zuten. SUDC elkartetik ez genuen elkarte guztien erantzunik jaso, baina hamasei inguruk ez zabaltzeko erabakia hartu zutela jakinarazi ziguten", azaldu du SUDC elkarte Juan Luis Arkauzek.

Aritzorri, lehena

Ezezko orokortuen giroaren erdian, Aritzorri elkarteak –EA bezala ere ezagutzen dena– izan ziren ateak irekitzen lehenak, aurreko asteburuan. "Soilik barra zabaldu genuen, sukalderek gabe, eta asko jota zortzi laguneko erreserbekin. Jateko gauzak etxetik edo kanpotik ekarritakoak izan behar ziren. Egia esan, eguraldi txarragatik eta tabernetan egoteko leku faltagatik, nahiko jende etorri zen, baina distantziak eta bestelako neurriak errespetatzen, betiere. Bazegoen gogoia bazkideen artean, eta asteburu honetan, ziurrenik, sukaldea irekiko dugu", azaldu du elkarte presidentea Iñaki Ayerbek. Hartutako segurtasun

**ALKARTU HILAREN
18AN IREKIKO DUTE
ETA DANOK-BAT 22AN
IREKITZEA AZTERTZEN
DABILTZA**

neurriei buruz galdetuta, zera adierazi du Ayerbek: "Lehenik eta behin, mahai kopurua murriztu genuen, euren artean segurtasun tarreak handitzeko. Barra inguruko aulkiak ere kendu genituen, eta elkarte zehar zortzi pote gel hidroalkoholiko jarri genituen. Jarraitu beharreko arauekin poster handi batzuk jarri ditugu elkarteetan; alde zuzenetik posta elektronikoz helarazi genizkien bazkideei, baina badaude posta elektronikoa kasu handirik egiten ez dioten bazkideak; nagusienak, batez ere".

Lehenaren ostean, gehiago

Amaika-gazte eta San Isidro ere irekita daude atzo ezkerre; sukaldea eta barra zabaldu dituzte Amaika-gazte, eta karta jokoan egitea debekatu egin dute. GOIENAK jakin duenez, Alkartu elkarteak hilaren 18an irekiko ditu ateak, eta Danok-Bat elkarteak hilaren 22an irekitzea aztertzen ari da.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Ur globoak lurrean, maiztasun handiz



Irudiko argazkia Musakolako iturri baten aterata dago. "Denok erabili izan ditugu, baina komeni da gurasoak eta haurrak horiek batzuearen garrantziaz jabetzea", dio irakurle batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA

Suga koloretsue

Arratsaldeko seirak eta ondion lanien gauz Ikastolan, kanpuen egundoko zarrabarra entzuten da, leixora hurbildu eta han nun datorren kotxez osatutako suga koloretsua. Nahiz eta sugak normalien ixilik dabitzen, hau sugioi zaratatsue da, eta antza, ez dauko gainera ixilketako asmorik. Haren uluek garbi entzuten ez dien arren, lantzian behin, boziñen gainetik, lan hitzarmena berbie aillegetan jaku belarrixetaraño. Geure arteko batek ze pasetan dan galdetu dau, "Aita Memnikuek die" beste batek erantzun.

Itxialdixan txaloketan gittuen bihargiñek die, barrero be, kotxie hartu eta euren lan baldintzengatik borrokan dabitzenak. Gizartiandako, lehen, ipurdi garbitzaille, eta orain, heroi dien erizain laguntzailiak lan aldarrikapenak alde batera itxi dittue eta, txintik esan barik, jo ta sua biharrien ibilli die lanerako babes egoki barik.

Urak bere onera datozen honetan, txaluak jotziaz gain, gure nagusixak eta gaixuak zainketan dauen honetxein alde zer beste egin geinke?

ion ELEKTRIZITATEA

Mantentze lan integralak
Konponketa txikiak eta handiak
24 orduko zerbitzua
658 99 59 12

Deitu!!!



Nagusien Kontseiluko kideak eta Gizarte Ongizateko zinegotzi Maitane Muñoz, gidaren aurkezten, Etxaluzen. A. ARANBURUZABALA

Nagusien Kontseiluak prest du informazio-gida

Udalarekin batera, 65 urtetik gora dituztenei zuzendutako eskuorria egin dute, askotariko informazio praktikoarekin. Gidak eskuragarri daude BAZen eta herrian daude erretiratuen elkarteetan: Etxaluzen, Santa Teresan, Musakolan eta Uribarrin

Xabi Gorostidi ARRASATE

Azaroan sortu zen Arrasateko Nagusien Kontseilua, herriko hainbat elkarte bat egin ostean. Hala, ia bi urteko sukalde lanaren ostean, Arrasaten erretiratuen lau elkarteek –Abaroa, Santa Teresa, Uribarri eta Musakola–, Goienagusik, Bizipozek, Caritasek, Sasoibidek, Duinta-

sunak, Iturbide egoitzak eta Udaleko Ongizate Zerbitzuak indarrak batu zituzten. Kontseiluko idazkari Joxe Urteagak argi azaldu zuen zergatik sortu zuten kontseilua: "Askotariko arazoak dituzten adindunei laguntza ematea da gure misio nagusia".

Etorkizuneko asmoen berri galdetuta, besteak beste, infor-

mazio gida bat prestatzen ari zirela azaldu zuten, eta aste honetan egin dute aipatutako eskuorriaren aurkezpena. BAZen eta erretiratuen elkarteetan eskura daitezke gidak.

Kirol aukerak

Aktibitate fisikoa egiteko, aukera hauek zerrendatu dituzte

gidan: "Musakolako kiroldegia askotariko kirolak egiteko ikastaroak eskaintzen ditu nagusientzat ere bai. Bestalde, Arrasateko parkeek jarduera fisikoak egiteko ekipamenduak dituzte: Gernika zumardiak gimnasia makinak ditu eta Gazteluondo pasealekukoak ping-pong mahai bat, esaterako".

Kultur ekintzak

Hainbat aukera identifikatu dituzte. Horieta lehen Portaloi kultur elkarte da. "Euskal kantu herrikoiak eta euskal erromeria dantzak lantzen ditu, adin guztietako pertsonekin. Gainera, urtean lau edo bost lekutara egiten dituzte irteerak, kantatzera edo dantzatzera". Honako hauek ere sartu dituzte zerrendan: "Liburutegia zabalik dago herritar guztientzat eta egunkariak, liburuak eta aldizkariak doan irakurtzeko aukera ematen du. Adinekoentzat ikastaroak ematen dituzten elkarte ugari ere badaude: Helduentzako Hezkuntza Zentroa, Debagoiena Esperientziaren Eskola, KZgunea, Emakumeen Txokoa eta Osasun Eskola, besteak beste".

Azkenik, Amaia antzokiko kultur gidako ekintzak eta Imerso elkarteak bizitza aktiboa bultzatzeko egiten dituen ekintzak ere kontuan hartu dituzte.

Erretiratuen elkarten ekintzak

Aipatu bezala, Arrasaten erretiratuentzako lau elkarte daude.

Nagusien Kontseiluko kideek ondo ezagutzen dituzte bertan antolatzen diren ekintzak, eta horiek ere txertatu dituzte gida barruan: Abaroak urtero antolatzen ditu gimnasia, eskulanak, yoga, memoria, tai txia eta dantza lantzeko ekimenak, Etxaluzen eraikinean; Santa Teresako Toki Argik bingoa, bolilloak, bainikak, eskulanak eta memoriarako aktibitateak eskaintzen ditu; Usae-txe plazako Uribarri elkarteak sasoian egoteko gimnasia, pintura, memoria, yoga eta dantza saioak egiten ditu; eta Musakolakoak, berriz, sasoian egoteko gimnasia, eskulanak eta memoriarekin lotutako ekintzak. Horiez gain, udalerrian helburu sozialak dituzten beste hainbat elkarte daude, irabazi asmorik gabekoak: Akabo, Afagi, Atece, Caritas, Ekin Emakumeak, Elkarheztzen, Gautena, Hurkoa, Imme, Kaonbi, Harreman eta Mundukide, besteak beste".

Udaleko Gizarte Zerbitzuek adindunei zein laguntza ematen dieten ere jaso dute: "Mendekotasun balorazioak egiteko edo prestazio ekonomikoen eta bestelako laguntzen inguruko informazioa eska daiteke bertan".

KULTUR ETA KIROL ARLOKO AUKERAK ETA UDALAK EMAN DITUEN LAGUNTZAK BATU DITUZTE ESKUORRIAN

OHARRAK

Pentsiodunen elkarretaratzea, astelehenean

11:45ean elkartuko dira, Herriko Plazan, pentsio duinak aldarrikatzen jarraitzeko.

San Felipe Elkarlaguntzaren batzar orokorra

Ohiko batzarra egingo dute ekainaren 14an, Amaia antzokian, 12:00etan –bigarren deialdia–. Besteak beste, 2019ko kudeaketa txostena eta ekitaldiko kontuen azalpena, auditoreekin egindako hitzarmena eta aktuazio-txostena, 2020ko sarreraren eta gastuen aurrekontua eta kuoten ezarpena, eta Zuzendaritza Batzordeko kideen berritzea jorratuko dituzte.

Posta bidezko botoa emateko erraztasunak

Arrasateko EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEk prest dituzte bulegoak posta bidezko botoa eman nahi dutenentzat. EAJk 688 77 50 11 telefonoa jarri du. Aurrez aurre egiteko, batzokian dago aukera, astelehenean eguaztenera –17:00-19:00–. EH Bilduk 644 29 85 87 telefonoa ezartzeaz gain, Pablo Urangan duen bulegoa irekiko du horretarako: astelehen eta martitzenetan –11:00-13:00– eta eguaztentean barikura –18:00-20:00–. Eta PSE-EEk Martxoaren 8a kaleko bulegoan artatuko ditu boto emaileak; astelehenean barikura, 09:30-12:30 eta 17:00-19:30.

Arrasateko tanatorioak osasun ikuskaritza teknikoa gainditu du

Instalazioaren egokitasunaren inguruko zalantzak uxatzeko eskatu dute, eta aldeko txostena jaso dute

X.G. ARRASATE

Koronabirusaren pandemia erdian, apirillean, mezu anonimo bat zabaldu zen sare sozialetan, non, nagusiki, bi gauza jartzen ziren zalantzan: ustez San Felipe Elkarlaguntzak gorpu batzuekin egindako kudeaketa, eta baita Arrasateko tanatorioa zaharkituta zegoela eta ez zuela koronabirusagatik hildakoak jasotzeko gaitasunik. Tanatorioak bi jabe ditu –%50 San Felipe Elkarlaguntzarena da eta %50 Arrasate Hileta Berria enpresarena–, eta zera adierazi zuten

tanatorioari buruz Arrasate Hileta Berria ehorztetxeok: "Gure kasuan, koronabirusagatik hildakoak Aretxabaletako tanatoriora eraman ditugu, bertan ganbera hermetikoak ditugulako. Arrasatekoa zaharkituta dago, eta ez dauka ganbera hermetikorik".

Oharra eta azterketa

Horren harira San Felipe Elkarlaguntzak oharra kaleratu zuen, nagusiki, hildakoei emandako tratua legea betez egin zutela azaltzeko, eta Arrasateko tana-

torioari buruz esandakoak argitzeko. Horrez gain, apirilaren 29an, Gipuzkoako Osasun Lurralde Ordezkaritzari, Gipuzkoako Hilotzen Osasunaren arduradun den horri, eskatu zioten prozedura-ikuskaritza ofizial bat, tanatorio horretako instalazioak ahalik eta azkarren ikuskatzeko.

"Ikuskapen hori hilabete honen 4an egin da, eta aldeko txostena izan da. Txosten horrek 19 urteko antzintasuna eta kudeaketa prozedura espezifikoko behar direla identifikatzen dituen arren, araudi tekniko-sanitarioa betetzen dela ziurtatzen du", azaldu dute San Felipekoek. "Sortutako zalantza guztiak argitzeko eta herritarren artean segurtasun eta konfiantza sentazioa berreskuratzeko balio izatea nahi genuke".

"Nesken eskubaloiak indar handia hartu du"

INES AZPIAZU ARRASATE ESKUBALOIKO PRESIDENTEA

Azken urteetan, geroz eta emakume gehiago daude klubean, eta, presidentearen esanetan, geratzeko etorri dira; baliabideak ipini behar direla dio, gehiago inbertitu

Eneko Azurmendi ARRASATE

2007a ezkerro Arrasate Eskubaloiko presidente dihardu Ines Azpiazuk, nahiz eta sorreratik egon izan den lanean klubean. **Zelan eragin dio pandemiak Arrasate Eskubaloiri?**

Txapelketak ezin izan ditugu bukatu, baina ez genuen talderik ez goiko postuetan ezta behekoetan ere, eta, alde horretatik, ez digu askorik eragin. Jokalariak denboraldia bukatzeko gogoz gelditu dira, hori bai.

Momentu hauetan, zein da Arrasate Eskubaloiren egoera?

Azken urteetan inportantea izan dena da emakumezkoen eskubaloia gora egiten ari dela. Orain, gainera, lehenago hasten dira, eta horrek aukera ematen die ibilbide osoagoa egiteko. Infantiletan, esaterako, 20 neska ditugu, eta hortik batzuk kadete mailara pasatuko dira. Hala ere, ez daude nahikoa taldea osatzeko, eta gustatuko litzaiguke neska gehiago sartzeara, kadete mailako taldea osatu ahal izateko. Gazte mailan ere taldea osatzeko moduan gaude; beraz, kadete mailan dugu erronka, kategoria guztietan emakumeen ordezkariak eduki ahal izateko. Gizonezkoek dagokienez, gazte mailako jokalarik asko senior mailara igotzekoak dira, baina



Ines Azpiazu, Arrasate Eskubaloiko presidentea, Iturripen. E.A.

ikasketak direla-eta ikusiko dugu jarraituko duten ala ez. Horren arabera, senior mailan bi talde osatu ahal izango ditugu, agian. Kadete eta gazte mailetan ere taldea osatzeko moduan egongo gara, baina, urtero moduan, infantiletako taldea osatzea izango da erronka nagusia.

Futbolaz eta saskibaloiaz harago, badaude kirol gehiago. Hori da helarazi gura duzuen mezua, ezta?

Bai. Arrasaten kirol eskaintza zabala dago eta faltan igartzen dudana da guztiok gure zerbitzuak mahaia gainean jarri ahal

izatea, umeek gura dutena aukeratu ahal izan dezaten. Gurasoak ere gehiago interesatu beharko lirarteke umeendako dauden aukera horiek guztiak aztertzen, eta ez laguna futbolera doalako haien umea ere futbolera bidali. Kirola ez da lehia bakarrik, bestelako balio asko ere badaude, eta inportantea da gurasoek horri ere garrantzia ematea, umeek benetan gura dutena aukeratu dezaten. Bestalde, ikusten dudana da futboleko, adibidez, ume guztiak onartzen dituztela eta, azkenean,

aukeraketa bat egiten dutela. Lehen, 12 urterekin egiten zuten aukeraketa eta besteok *arrantzan* egiteko aukera izaten genuen. Orain, futbolak adin guztietako umeak hartzen ditu eta horrek kalte egiten digu guri. Hala ere, klub bakoitzak bere irizpideak eta lan egiteko moduak ditu, hor ez naiz sartuko.

Nola dago emakumezkoen eskubaloia Arrasaten?

Duela 20 urte eduki genuen emakumezkoen taldea, baina bizpahiru urte iraun zuen, gehienez, ikasketak zirela-eta taldea uzten joan zirelako jokalariek. Azken urteetan, aldiz, badirudi susperraldia gertatu dela eta emakumezkoen talde berriak gelditze-ko datozela. Kadete mailan daukagu hutsunea, oraingoz. Taldea osatzen ez badugu ere, ordea, ez dugu inor kanpoan uzten eta Federazioari baimena eskatzen diogu jokalarik horiek goian edo behean jokatu ahal izateko. Inportanteena da guztiak aukera izatea kirola egiteko, eta giro onean aritzeko.

Senior mailan, denboraldi txukuna egiten ari zen Ford Mugarri...

Azken hiru urteetan mailari eustea izaten ari da helburua, taldean aldaketa nabarmenak egon zirelako, eta, oraingoz, lortzen ari gara. Datorren urterera begira ere hori izango da helburua. Ez dugu fitxaketarik egingo. Norbaitek, ikasketengatik edo bestelako arrazoiengatik, gurekin jokatu gura badu, gure ateak zabalik aurkituko ditu, baina gu ez gara kanpora jokalarik bila aterako. Harrobiarekin moldatzen gara, batzuetan ondo eta beste batzuetan ez hain ondo. **Dagoeneko badaramatzazu urte batzuk presidente...**

Lehen lerroan, 2007a ezkerro, baina aurrez ere denbora asko,

hasieratik. Zuzendaritzan hiru pertsona gaude, onerako eta txarrerako. Aspalditik gaude, elkar ondo ezagutzen dugu eta horrek lasaitasuna ematen digu, konfiantza handia dugu. Gero, gurasoen lantaldea ere badaukagu, baina zaila da gurasoen konpromisoari eustea, haien seme-alabek eskubaloia uztearekin batera haiek ere utzi egiten dutelako. Interes pertsonalik gabe lan egiteko prest dagoen jendea aurkitzea oso zaila da.

Jarraitzeko asmoa daukazu?

Bai. Helburuak eta erronkak sozialki hain politak izanik, ezin diot ezetzik esan. Ikusten duzu umeak nola sartzen diren klubean eta, urte batzuk pasata, nola gizontzen eta emakumetzen diren. Hori oso polita da. Horrez gain, gurasoekin egiten dituzun harremanak ederrak dira, eta askok esaten dizute haien seme-alabei eskubaloiak asko lagundu diela. Horregatik bakarrik merezi du.

Klubean, zertan aldatu dira gauzak hasi zinetetik?

Emakumezkoek garrantzia handia hartu dute azken urteetan, eta asko poztzen nau horrek. Bestalde, nire ikuspegia ere aldatu egin da horrekiko. Orain arte, ez dut garbi ikusi genituen baliabide gutxiak nesketan inbertitzeko aukera, denbora gutxi iraun izan dutelako taldeek, baina orain, uste dut emakumezkoen eskubaloian inbertitu behar dugula, haiek ere konpromisoa erakusten dutelako.

"GURASOAK GEHIAGO INTERESATU BEHARKO LIRATEKE UMEEK KIROLEAN DITUZTEN AUKERAK AZTERTZEN"

Garagardo Azokaren ordeaz, artisau-garagardoa salgai

Arrasate Rugby Taldeak "oso zail" ikusten du aurten Garagardo Azoka egin ahal izatea; alternatiba topatu du

E.A. ARRASATE

Klubaren armarrria daramaten eta Zarauzko garagardogile batego artisau eran egindako garagardoak jarri dituzte salgai asteon. 12 botilaz osatutako loteak dira eta Agirre-Etxe harategian

eta Lazkano musika dendan eskuratu ahalko dira 30 euroren truke. Hiru garagardo mota egongo dira aukeran: gorria, horia eta beltza. Gura duenak, gainera, hirurak 3x4ko lotean nahastuta erosteko aukera ere

izango du. "Ekimen honekin bat egiten dutenek, Arrasate Rugby Taldea laguntzeaz gain, garagardo paregabeaz gozatzeko aukera izango dute baita ere", azaldu du klubeko presidente Ane Agirrek.

Agirre-Etxeko salmenta modu zuzenean egin ahal izango da, han bertan. Lazkano musika dendan, eskaera online egin beharko da, eta *Bizum* sistema bidez ordaindu, 688 60 21 06 telefono zenbakian. Dendan bertan jaso ahal izango dira ostean.



Salgai jarri dituzten hiru artisau-garagardoak, klubaren armarriarekin. ART

Assata: entsegu lokalera bueltatzeko "irrikan"

2019ko azaroan sortu zen Arrasateko Assata taldea, eta, orduetik hainbat emanaldi eskaini badituzte ere, lotuta zizuzten emanaldiak bertan behera utzi behar izan dituzte, koronabirusaren eraginez. Hala ere, taldeak lanean jarraitu du

Maialen Regueiro ARRASATE

2019a amaitu aurretik sortu zen Assata taldea eta zazpi kantuz osatutako *Dantzatu, madarika-tuok!* lana grabatu zuten *Shot!* estudio berrituan. Zapalkuntza, egolatria eta ikuskizunaren jendartea jo puntuan dituzten abestiek osatu zuten taldearen lehen lana, eta orduetik, hainbat emanaldi eskaini dituzte, koronabirusak guztia bertan behera uztera behartu zituen arte. Assatako kide Arkaitz Biainek azaldu duenez, talde gisa ez dute entseguak-eta egiteko aukerarik izan, baina aipatu du "pribilegiatuak" izan direla inguru hurbilean eta pertsonalki osasun arazorik eduki ez dutelako.



Assata taldeko kideak Shot! estudioan. ASSATA

Kontzertuak, bertan behera

Biainek azaldu du abenduan Ahotsenean egindako kontzertuaren osteko lehen mugarrira otsailean Arrasaten egindako lehen kontzertua izan zela. Taldeak hainbat kontzertu zituen lotuta martxorako zein apirilera, baina guztiak bertan behera utzi behar izan dituzte. Aipatutako epealdian, gainera, taldearen asmoen artean zegoen beste proiektu bat aurrera eramatea, baina hura ere atzeratu egin behar izan dute. Udara begira taldeak lotuta zizuzten

emanaldiak, momentuz, bertan behera geratu direla aitortu du Biainek.

Taldearen gaur egungo egoeraren harira, Biainek adierazi du "irrikan" daudela entseatzera bueltatzeko. Gainera, aste honetan bertan eman dute baimena Uarkapeko lokaletara entseatzera joateko. Horrekin batera, joan den asteburuan, zapatuan, hain zuzen, *Shot!* estudioan izan ziren Assata taldeko kideak, martxo bukaeran egiteko asmoa zuten proiektu bat lantzeko: "Oraindik forma

ematen gabilta, baina epe laburrean partekatze moduan izatea espero dugu".

Konfinamendu garaia

Koronabirusak Assata taldearen emanaldiak bertan behera utzi bazituen ere, taldeak lanean jarraitu du: "Epe honetan, abestien lanketa egiteko aukera izan dugu. Egubakoitz gauero Internet bitartez elkartu gara sormen lanean jarraitzeko; ondoren, bakoitzak aukera izan duenean bere kabuz zati propioak eta bestelako ideiak landu ditu, be-



Ezkerretik eskuinera, Alberto, Aitor, Beñat eta Arkaitz; behean, Ekain. A.P.

Duela hogeitun urte, maketa grabatzen

Anger bostekoa Aitor Lopezek, Arkaitz Biainek, Ekain Zubizarretak, Beñat Unzuek eta Alberto Rodriguezek osatu zuten 1997an. Duela hogeitun urte, 2000n, taldeak lehen maketa grabatu zuen, bost abesti bilduko zituena.

rriz egubakoitzetan konektatu eta guztion artean aztertu, moldatu eta hobetzeko". Horrekin batera, Biainek aitortu du maizterako etxean grabatutako zortzi abestiko maketa bat egin dutela, eta ideiak lantzen jarraitzen dutela: "Kontzertuetarako abestiak izateaz gainera, hurrengo lan baterako abesti posibleak dira hauek, eta baita momentu honetan lantzen ari garenak ere".

Konfinamendu garaian, Assata taldekoek ez dute etxetik aurrera eraman diren kultura ekimenetan parte hartu, nahiz eta sortzaile eta kulturagileek sinatutako manifestuan eta egindako sareko 48 orduko etenean parte hartu duten.

Anger taldea

Bestalde, duela hogeitun urte grabatu zuen Anger taldeak bost

abestiz osatutako maketa. Aitor Lopezek, Arkaitz Biainek, Ekain Zubizarretak, Beñat Unzuek eta Alberto Rodriguezek osatu zuten 1997an, eta Biainek oroitzapen politak dituela adierazi du: "Gaztetxoak ginen eta taldearekin bizpahiru urte generamatzan, zenbait kontzertu emanda, lokalean garai hartako kaseteetan grabatutako abestiek, eta jauzi garrantzitsua zen gure lehen maketaren grabaketa profesionala. Ordu asko sartu genituen garai hartako Musakoloko lokalean grabaketa prestatzen, oso modu intentsuan bizi genuen".

EPE LABURREAN PARTEKATUKO DUTEN PROIEKTU BERRI BATI FORMA EMATEN DABIL ASSATA TALDEA

"Berme" gehiagorekin egingo dute aurtengo sari banaketa

Ekainaren 17an izango da sari banaketa, 18:30ean, eta aurtun irabazleak soilik izango dira ekitaldian

M.R. ARRASATE

Aurtengo Arrasate Literatur Lehiaketako sari banaketa ekainaren 17an izango da egiteko Kulturaren, baina AEDk ekitaldia ekainaren 17ra atzeratzeko erabakia hartu du, sari banaketa

"berme" gehiagorekin egin ahal izateko. Itxaro Artola AEDko kideak azaldu du ekitaldia jende kopuru mugatuarekin egingo dutela, nahiz eta beste urte batzuetan Kulturateko aretoa bete egin den. Aurtun, egoerak hala

behartuta, saridunak soilik izango dira aretoan. Hala ere, gonbidatu bat izango da: Jon Maia bertsolari eta idazlea. Artolak azpimarratu du, gainera, Maiak egun aldaketarekin "prestutasun" handia erakutsi duela eta arazorik jarri ez duela. Gauzak horrela, hark 20 minutu inguruko hitzaldia eskaintzea aurreikusten da, eta sariduneri eskainia egongo da. Ekitaldia 18:30ean hasiko da, eta hura grabatzeko eta edonork ikusteko aukera aztertzen ari dira.



2018ko lehiaketako irabazlea. GOIENA

AGAKOK 'Gazte Ko(lek)vidbentziak' ekimena abiatu du

Ekimen honen helburua da gazte arrasatearrek konfinamenduan izandako esperientziak jasotzea. Gauzak horrela, AGAKOK dagoeneko jaso ditu profil ezberdinetako gazteen testigantzak; erizain batena eta konfinamenduan guraso izan direnena, besteak beste. AGAKO, gainera, esperientzia guztiak sare sozialen bidez partekatzen ari da.

Egin tokiko komunikabideen alde

Egin Goiena Klubeko bazkide



Anima zaitetz, egin zaitetz Goiena Klubeko bazkide. Baduzu zer irabazi:

- Deskontuak hainbat komertziotan: Goiena Klubeko txartela erabilia.
- Puntuak aldizkaria jasoko duzu: zeuk eskatutako helbidean.
- Zozketak: irabazi ekitaldietarako sarrerak, liburuak, teknologia gailuak...
- Deskontuak Iragarki sailkatuak atalean, Goiena aldizkarian.
- Deskontuak eskelak jartzean Goiena aldizkarian.

Gainera, ORAIN egiten bazara bazkide, beste abantaila hauek ere izango dituzu:

- 30 euro bakarrik kostako zaizu urte bukaerara arteko kuota, 56 beharrea.
- %30 merkatuko zaizu bazkide kuota errenta aitortpena egiterakoan. Izan ere, Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena jaso zuten 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.
- Maskara jasangarria jasoko duzu, 300 aldiz garbitu daitekeena. (Maskarak agortu arteko oparia.)



BAZKIDE EGITEKO:

☎ 943 25 05 05 ✉ kluba@goiena.eus



Julen Iriondo ARAMAIO

Suitza, Italia, Eslovenia, Kroazia, Bosnia-Herzegovina, Montenegro, Albania, Kosovo, Mazedonia, Grezia, Turkia, Georgia, Azerbaijan, Kazakhstan, Kirgizistan, Tadjikistan, Uzbekistan, Kirgizistan, Kazakhstan, Errusia, Georgia, Armenia, Iran, Pakistan, India, Nepal, India, Nepal, India, Myanmar, Tailandia, Laos, Kanbodia, Tailandia, Malaysia eta Indonesia; Amaia Uriarte aramaioarrak eta Marvin Ancian suitzarrak –Bonnie eta Klyde ezizenak jarri zizkieten euren buruei– ia bi urtez, 719 egunez, zehazki, egindako ibilbidea da hori.

"Elkar ezagutu genuenetik, biok nahi genuen bidaia handi bat egin. Urte pare bat generatuz lanean, diru apur bat bagenuen aurretuta, eta nahi genuen bidaia handi bat egin; urtebetekoa, gutxienez. Orduan txehasi ginen motorrean ibiltzen ere, eta gustatu egin zitzaigun. Argazkilaritza ere bioi gustatzen zitzaigun, eta bidaiatzea ere bai. Hiru gauzok elkartuta, maletak motorrean jarri, eta bideari segi, Singapurrerantz", azaltzen du Amaia Uriartek, bidaia egiteko ideiarene nondik norakoez galdetuta.

Helmuga buruan zuten, Singapur; azkenean, bi gurpilen gainekoan, Malaysian bukatu zuten. Mediterraneo aldetik joan ziren hasieran, klimagatik; zenbait herrialde errepikatu zituzten gero, Txinatik ez pasatzearen atzera eginda. "Asian herrialde errazagoak" direnetatik igarotzea erabaki zuten. Azkenerrako, pila bat izan ziren ezagututakoak; bat aukeratzea ez da erraza: "Herrialde asko izan dira, eta bakoitzak ditu bere gauza onak. Baina, bi aipatzekotan, Tadjikistan, mendiagatik –Himalayako desertua, altuera horretan–, eta Iran –oso polita da, jendea ere oso gustagarria...–; bi herrialde horiek asko markatu gaituzte".

Bidaia bakarrean, bi

Amaia Uriarteren esanetan, bidaia bera bi bidaia dira azkenean: "Bat da ezagutzea herrialde horiek denak, eta bestea da bakoitzarengan egiten den bidaia. Ordu asko dira, pentsatzeko; bizimodu bat bizi izateko aukera, eta ohartzen zara daudela bizimodu asko, eta ez da bat bestea baino hobea, denek di-



Amaia Uriarte eta Marvin Ancian, euren motorrekin. BONNIE & KLYDE

Suitza handitik irten eta bi urteko bidaia motor gainean, Asian barrena

'Suitza txikikoa' izan arren, Europa erdialdeko herrialde hartan bizi da Amaia Uriarte. Motorrak hartu eta Singapurrerako bideari ekin zioten 2018ko apirilean bikotekideak eta biek, hamarka herrialde paseaz eta hamaika abentura biziz; bueltan dira orain

61.000 kilometro, 30 herrialde

2018ko apirilean hasi zuten bidaia Amaia Uriartek eta Marvin Ancianek, eta 61.000 kilometro egin dituzte ia bi urtean, munduari itzuli eta erdi emateko adina. Hilabete eta erdian pasatu zuten Europa, eta Asian egin dute gainerako denbora, hegoko partean. Bidaia amaitzeko, Balin hegazkina hartu eta Aramaiora etorri ziren; bertan pasa dute konfinamendua.



Egindako bidaia, gorriz. WWW.BONNIEANDKLYDE.CH

tuzte gauza hobeak eta okerra-goak, baina ikasten duzu ez konparatzen dena: 'Guk horrela egiten dugu, gurea hobea da...'. Zergatik? Bizitzeko beste modu batzuk dira, eta asko ikasteko balio du".

Ikasi, baita ere, gauzak datozen moduan hartu eta aurre egiten ikasten omen da halako bidaia batean: "Onartu behar da gauzak ez direla beti pentsatu moduan irtengo. Eta zerbait txarra gertatuz gero, etorriko da zerbait hori bideratzeko; arazo bat badator, topatuko diozu erantzuna. Ezin da defentsiban jarri, bestela bidea ixten da, bere erara joaten utzi behar zaie gauzei".

Arazo larririk ez dute izan Uriartek eta Ancianek bidaian; handiena, hasi eta berehala, bigarren egunean, izan zuten: "Suitzatik Italiara pasatzen, mendate batean, Marvinen motorri atzeko transmisioa apurtu zitzaion; berriz Lausanara itzuli behar izan genuen, eta bi astez pieza itxoiten egon". Ingu-rukoak agurtu eta dena martxan jarri eta gero, berriro geldirik. Behin berriz abiatuta, ez zuten halako ezusteko gehiago izan.

Erabilitako motorrak, bata 2014koa da, baina bestea zaharra, 1985ekoa: "Ez genuen motor berezirik erosi honetarako, genituenekin joan ginen. Motorrak ondo zebiltzan, ezagutu egiten ditugu, prestatu genituen apur bat eta eurekin joan ginen. Jende guztiak esaten zigun: 'Nora zoazte motor horrekin?'. Marvinen motorra oso zaharra da. 'Eta?'. Dena konpondu daiteke; batez ere, herrialde batzuetan, ohituta daude dena konpontzen. Batzuetan txapuzak ere egiten dira, baina...".

Dena motor gainean

Eta, hasierako arazo hura kenduta, portatu ziren motorrok, ez zen-eta makala izan jasotako tratua, beharrezko dena eraman behar baitzuten gainean: "Maleta asko dira, ze zure etxea hura da. Kanpin dendarekin joan nahi genuen; jatekoa ere geuk prestatzeko sukalde txiki bat eraman genuen; horrez gain, erremintak eta pieza batzuk, edozer gertatuta ere. Beraz, nahikoa kargatuta gindoazen. Motorrek 200 eta 250 kilo pisatzen dute; 20 eta 40 kilo gehiago maletetan, eta gero gu".

Bidaiak utzitakoan artean, bikoteak nabarmentzen duen

gauzetako bat da janaria; euren prestatzeko gauzak eraman arren, batekoa eta bestekoa probatzeko aukera ere ez dute-eta alferrik galdu, nola bada. Indiarri buruz Uriartek dio oso herrialde "gogorra" egin zaiela, gizarte antolakuntza edo mailakatzeagatik; aldiz, bertako gastronomia asko disfrutatu dute: "Gauza oso ona duena Indiak da janaria. Oso herrialde handia da, eta leku bakoitzean duzu gastronomikoki aniztasun handia". Eta gauza "arraroak" ere jan dituzte han-hemen: "Nik gutxiago, nahikoa beldurtia naitzelako, baina Marvinek gehiago, bai".

Bidaiaren beste osagai bat izan da beste bidaiari batzuekin egindako harremana; Instagram bidez komunikatu eta elkartzeko ziren: "Egun batzuk egin ditugu beste motor batzuekin, edo beste auto batzuekin, eta oso ondo dago. Ezagutzen duzu jendea zure egoera berean dagoena, zure mentalitate bera duena, gauza asko genituenak komunean, eta oso ondo etortzen da jende berria ikustea eta, batzuetan, zure hizkuntzan hitz egitea ere bai".

Urtebete beharrean, bi

Gutxienez urtebetekoa izateko asmotan jaio zen bidaiari urtera luzatu zen, azkenean; koronabirusarekin topo egin zuten amaieran: "Martxo bukaerarako genuen bueltatzeko hegazkina. Baina COVIDa Europara heltzerako, guk bagenuen Asian. Eta dena gelditu zegoen. Balin geunden, eta gure hegazkina bertan behera geratu zen. Mentalki gertu geunden etxera bueltatzeko, ze horretarako ere prestatu egin behar duzu. Bi urte egin genituen bizitza nomada baten, eta berri-

ro nonbait finkatzera gentozen. Prest geunden, baina zaila izan zen itzultzea, ze bertan behera geratzen ziren hegaldiak". Bost txartel erosi eta bertan behera geratu eta gero, aireportuan bertan erositakoarekin, ze hegazkin zeuden eta lekua non zegoen ikusita, itzuli ziren etxera, Aramaiora; konfinamendu sasoiak bertan pasatzea erabaki zuten eta.

Besteak beste, gogoetarako nahikoa denbora izan da aspaldiko asteetan, eta baita aurreko hilabetetako bizimodua faltan igartzeko ere, bizimodu arruntagoaren erosotasun eta abantailak ere gogoan edukiz, hori bai: "Faltan igartzen da eszitazio hori, egunero esatea: 'Ea gaur zer gertatzen den!'. Ze bagenekien motorrean aterako ginela, baina hortik aurrera ez genekien. Eta hori faltan igartzen da; baina

ZITUZTEN MOTORRAK EGOKITU ETA HAIKIN EGIN DUTE BIDAIA; BERRIA ZEN BAT, BESTEA 1985KOA

BIDAIARI EKIN ETA BIGARREN EGUNEAN IZAN ZUTEN LEHEN EZUSTEKOA, ETA ETXERA ITZULI ZIREN

HERRIALDE GUZTIEN ARTEAN BI NABARMENTZEN DITUZTE: IRAN ETA TADJIKISTAN

orain baditugu beste gauza batzuk onak: txorrota zabaldu eta ura edateko moduan izatea, edo Internet, edo argindarra, edo ospitalea, zerbait gertatzen bada. Guretzako beti hor egon diren gauzak dira, baina halako bidaiaren batean ohartzen zara ze zortea dugun horiek guretzako esku-bide izatearekin. Bidaiaren ibili behar genuen pentsatzen zenbat ur izango ote genuen, sukaldian egiteko, edateko... filtroak eraman, haiek ere garbitu... logistika asko dago, eta une oro zaindu behar da hori, zure bizitza horren araberrakoa baita. Antolakuntza potentzia behar da; bizimodu librea da, egunero zara pertsona berria, elkartzeko zara ezagutzen ez zaituen jendearekin, 'nor izango ote naiz beretzat?', baina prest egon behar duzu: bi ibilgailu dituzu, logistika asko dago, zure pasaporteak, bisa, motorrek ere euren pasaporteak dute, ustelkeria dago muga batzuetan, motorraren mantenua... Dugunagatik esker onekoagoak izan beharko genuke. Mundu berean beste mundu batzuk daude, beste bizimodu batzuk. Errespetua izan behar zaie horiei guztiei, eta esker ona guk dugunarekiko".

Oraindik nolabait lur hartu berri, baina lehenago edo geroago halako beste bidaiari handi bat egin nahi luketela argi dute Amaia Uriartek eta Marvin Ancianek, *Bonnie-k* eta *Klyde-k*. Bidaiaren kontzeptzioa bera ere aldarazi egin die oraingo honek: ez dute ikusten hamabost egunerako leku batera joan eta hango paraje ezagunenak bisitatzeko soilik; bidaiak bidea behar du eurentzat, motor gainean, euren kasuan; eta bideko bizipen eta esperientzia horiek guztiak.



Uzbekistanen. 'BONNIE & KLYDE'



Indiako merkatu bat. 'BONNIE & KLYDE'




Nepalen. 'BONNIE & KLYDE'



Tadjikistan. 'BONNIE & KLYDE'

Material ugari sarean

Uriarte eta Ancian argazkilaritza zaleak izanda, erretratu pila bat utzi ditu, besteak beste, bi urteko bidaiak. *Flickr*-en aurki daitezke. Horrekin batera, baina, bideoak ere grabatu dituzte, eta kanala dute Youtuben. www.bonnieandklyde.ch helbidea duen webgunean askotarikoak aurki daitezke, eta baita euren Facebooken eta Instagramen ere.



Argazki bildumaren zati bat. 'WWW.FLICKR.COM'



Gidatzen, Iranen. 'BONNIE & KLYDE'

Ohiko udalekuen ordeztu, 'Loratu' programa abian

Koronabirusak sortu duen salbuespeneko egoeraren aurrean familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko zerbitzua da 'Loratu'. Ohiko udalekuen ordeztu, 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako aisialdi zerbitzua, hain zuzen ere

Imanol Beloki ARETXABALETAKO

Udalekurik ezaren ondorioz sortutako beharrei erantzuteko, haurrentzat zuzendutako *Loratu* udako programa izango da uztailaren 6tik 24ra bitartean izango da, 6 urtetik 12 urte bitarteko haurrentzat. Lehen Hezkuntza- . Guztira, 170 plaza eskainiko dira, eta ordutegia, berriz, astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:00etara bitartekoa izango da.

170 plazako muga

Loramendi Euskara Elkartek udako ekimen hau martxan jarzea proposatu dio Aretxabale-tako Udalarari eta bi aldeen artean borobildu dute egitaraua. Plaza guztiak betetzen badira, zenbait taldek lehentasuna izango dute: guraso bakarrak edo bananduak, euskaraz hitz egiteko eta sozializatzeko premiak, edo behar bereziak dituzten haurrak, eta



Aretxabale-tako Udaleko eta *Loratu* egitasmoa kideak. ARETXABALETAKO UDALA

bi gurasoak lanean dituztenak. Hurrenkera honen arabera kanpo geratzen diren plazak zozketa bidez izendatuko dira, eta zozketa ekainaren 22an egingo litzateke, 17:00etan, mojen komentuan.


Segurtasun eta higie-neurri guztiak betetzea izango da helburua; beraz, ez da jarraituko plazan batzeko metodoa. Talde bakoitzak bere erreferentzia-gunea izango du, eguneroko ekintzei hasiera eta amaiera

Neurriak hartuko dituzue?



MAIDER ETXANIZ
GAZTERIA TEKNIKARIA

"Unean uneko gomendioei jarraituz eta horiek aintzat hartuta diseinatu dugu udako programa hau. Lehen Hezkuntzako zuzendutakoa izango da; izan ere, 3, 4, eta 5 urtekoekin ezin ditugu segurtasun neurriak bermatu, egoera deserosoa izango litzatekeelako".



JULEN PERALES
'LORATU'-KO KOORDINATZAILEA

"Aretxabale-tan udalekurik ezaren ondorioz sortutako beharrik asetzeko sortu da *Loratu* proiektua. Taldeak zazpi haurrez eta begirale batez osatuta egongo dira, eta herria birtualki hiru gune nagusitan banatuko da; alde bakoitzak bere erreferentzia gunea izango du".

emateko balio izango duena. Funtzionatzeko modu horrek hiru gunetan banatuko du herria, begirale batek zuzendutako zazpi kidez –aldaketak egon daitezke– osatutako taldeen arteko kontaktua saihesteko.

duko dute, eta hori betetzean zerbitzuaren helburuei erreparatzea eskatu dute Udaletik. Izen ematearen epea ekainaren 9tik ekainaren 18ra bitartean izango da, eta prezioa, berriz, 85 euro umeko; hirugarren umea, doan.

Izen-ematea, zabalik

Internet bidez egingo da izen-ematea, eta banakakoa izango da. Hau da, haur bakoitzak izen-emate orri bat beteko du, nahiz eta familia berekoak izan. Horretarako, formulario bat zabal-

UZTAILAREN 6TIK 24RA BITARTEAN GAUZATUKO DA 'LORATU' UDAKO PROGRAMA

Kantu entseguak kalean

Basotxo erretiratuen elkarteko kantu taldea hasi da entseguetan. Hainbat astean geldirik egon ostean, joan den astean hasi zituzten entseguak, ilargi plazan. Eguazten arratsaldeetan jarduten dute, Jose Ramon Quintanillaren esanetara, eta inguruko bazterrak girotzan dituzte, bide batez. Dantza taldeak ere hasi ditu entseguak, eta plaza horretan bertan elkartzen da.



MIRARI ALTUBE



NIRE USTEZ

MARTIN BERRIZBEITIA

Munduan ibilia

Lagun batek esan dit dioxosozko birusaren kontua amaitzean bidaia luze bat egingo duela. Herriko errutina itogarritik aparte, arnasa hartzeko beharra duela. Aire hartu nahian, dena haizea hartzerantz bidali. Munduan ibilia da: Erasmusen Berlingen –"ikasten"–, Indian bere burua ezagutzen, Patagonian naturaz gozatzeko... eta beste hainbat bidaia.

Gangesko ibaiari buruz hitz egiten dit, baina busti du bere azala Ezkako uretan? Edo Lizarra aldeko erreketan? Bere hiztegiak daude "aloha" edo "namaste"; aldiz, zenbat aldiz esan diote "arrasti on"? Zenbat aldiz "izan ontsa"? Manchesterko Old Trafford-en eta New Yorkeko Appollo-n egona da; baina zapaldu al ditu sekula Eibarko Astelehena edo Donostiako Doka?

Aireportuko *Duty free* eta kontrolak ondo ezagutzen ditu; hala ere, ez du pasa foralen kontrolirik Irurtzunen, ertzainak Azkaraten, jendarmeak Saran...

Nire lagunak, "munduan ibilia", ez daki Aretxabale-tatik Agurainera joaten GPSa piztu gabe.



Trokolo teatroko Fulanito eta Menganito eguaztenez, Herriko Plaza giroten. M.A.

Kultur ekitaldiak itzuli dira herriko kaleetara

'7x7 kultura kalean' ekimena jarri du abian Udaleko Kultura Sailak, beste urte batez; oraingoan, segurtasun neurriak hartuta. Hala eta guztiz, herritarrek harrera beroa egin diote lehenengo ikuskizunari eta ekainaren 25a bitartean beste sei izango dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Ekainarekin batera *7x7 kultura kalean* programa iritsiko da, beste behin, Aretxabaleako kaleetara, herritarren kultura gosea ase eta herria girote aldera. Ikuskizun bakoitzean aulkiak jarriko dituztela adierazi dute Udaletik, ikusleen arteko segurtasun tartea mantenduz.

Ainhoa Cabero Kultura zinegotzia pozik agertu da kultur ekitaldiak "berreskuratuko" direlako hiru hilabeteren ostean: "Ekintza txiki batzuk dira oraingoak, umeei bideratutakoak gehienak, eta ez da ohiko plangintza; baina pozik gaude zerbait antolatzen hasi ahal izan garelako".

Antzerkia eta musika

Antzerkia, txotxongiloak, magia eta musika dira aurtengo edizioaren proposamenak. Horietatik bost ikuskizun izango dira umeentzat eta bi helduentzat; azken horientzat, musika emaldiak, hain zuzen ere.

Egitaraua

EKAINAK 12

- **Bihar txotxongilo taldea:** *Ipuin magikoak*. Santa Rita lorategia.

EKAINAK 14

- **Zirtaka antzerki taldea:** *Ongi etorri, lagun!* Iralabarri plaza.

EKAINAK 16

- **Asier Kidam magoa:** *Aroak eta mirariak*. Santa Rita lorategia.

EKAINAK 19

- **Voces Navarras taldea.** Herriko Plaza.

EKAINAK 21

- **Havana 537 taldea.** Mitarte kalea.

EKAINAK 25

- **Zirika Zirkua konpainia:** *Zinemaz Blai* ikuskizuna. Kurtzebarri eskolako kantxa.

Gaur, egubakoitza, txotxongilo emanaldia izango da Santa Ritako lorategian, Bihar txotxongilo taldearen eskutik. Sorgina, herensugea, lamina eta beste hainbat pertsonaia ekarriko dituzte, *Ipuin magikoak* ikuskizunaren baitan.

Domekan, ostera, Zirtaka antzerki taldeak kanpotik Euskal Herrira bizitzera etorritako haurren egoeraren eta horien integrazioaren gainean jardungo du, *Ongi etorri, lagun!* antzezlan musikatuan; Iralabarri plazan izango da hori. Ikuskizun guztiak 19:00etan dira.

Distantzia eta maskara

Ikuskizunetan segurtasun neurriak bete beharko direla gogorarazi du Udalak. "Derrigorrezkoa da protokoloa betetzea", azaldu du Caberok. Kasu bakoitzean aulki kopuru jakin batera mugatuko da edukiera, eta horien artean bi metroko tartea utziko dute. Ikusleei maskara eramatea gomendatu diete.



Hainbat lagun jarduera fisikoa egiten martitzenean, kiroldegian. ASIER MUJIKA

Igerilekuak, fitness aretoa eta rokodromoa, hilaren 15etik abian

Astelehenean ireki zituzten Ibarra kiroldegiko ateak eta dagoeneko 179 lagunek ekin diete kirol jardueri

M.A. ARETXABALETA

Kirol jarduerak itzuli dira kiroldegira, eta astelehenean, hilaren 15ean, beste hiru gune zabalduko dituzte: bainu-gunea (08:00-14:00), fitness aretoa (16:00-21:00) eta rokodromoa. Aurrez ez da txandarik hartu behar, baina edukierak mugatu egingo dituzte, baita denborak ere.

Garbitasuna zainduta

Ekainaren 8tik daude abian kirol jarduerak, eta aste hasierarako 179 lagunek emana zuten izena; horregatik, "pozik" agertu da Asier Mujika, Kirol teknikaria: "Gure asmoa izan da zerbitzua ematen hastea modu ahalik eta seguruenean, eta gero, zerbitzu hori hazten eta hobetzen joatea". Doan dira jarduera horiek.

Hainbat neurri hartu dituzte segurtasuna bermatzeko aldera; distantziak eta garbitasuna zaintzea, besteak beste. "Protokoloa-

ren berri ematen diegu datozen guztiei; spinning saio baten aurretik, adibidez, norberaren bizikleta garbitu beharra dago. Egunaren bukaeran, bapore bidezko desinfekzio bereziak egiten ditugu guk", azaldu du.

Hilaren 22tik aurrerako ordutegia

Ekainaren 22tik aurrera eta uztail osoan goizez eta arratsalde zabalduko dute kiroldegia. Astelehenetik egubakoitzera: 08:00-14:00 eta 16:00-21:00; zapa-tuetan: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Edukierei dagokienez, fitness aretoak gehienez 25 erabiltzaile har ditzake aldi berean. Igerilekuan goizean 25 lagun egon ahal izango dira eta arratsaldean, 35. Rokodromoan zortzi lagunentzako tokia egongo da. Instalazioak erabiltzen ez dituzten abonatuak irailera arte ez diete kuota kobratuko eta gainerakoei, 16,86 euro hilean -umeei, 9 euro-.

Andramaixak gertatzen hasteko batzarra gaur

Aretxabaleako gazteek andramaixak gertatzen hasi gura dute, jakinik aurtengo jaiak "ezberdinak" izango direla: "Aurtengoa ezberdina izango dela ziurra da, eta ez dakigu hilabete hauetan egoera nola aldatuko den". Horretarako, gaur, egubakoitza, batzarra egingo dute osasun etxeko arkupean, 17:30ean. Maskara erotea gomendatu dute.

Posta bidezko botoaren gaineko argibideak batzokian

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan posta bidez botoa eman gura dutenek dagoeneko egin dezakete eskaera. Horren gaineko argibideak emango dituzte batzokian uztailaren 2a bitartean. Hona hemen ordutegia: astelehenetik egubakoitzera goizez (10:30-12:30) eta martitzen eta eguenean arratsalde ere bai (18:00-20:00).

"Ahalduntzea oinarri hartuta hezi behar da"

IDOIA SANCHEZ ERIZAINA ETA HILEROKOAN HEZITZAILEA

Arrasateko osasun etxean erizaina da, eta, horrez gain, hilerokoaren gainean aditua; jostailu erotikoei buruzko argibideak ematen ditu 'Xarma bilerak' proiektuaren baitan

Mirari Altube ARETXABALETA

Idoia Sanchez aretxabaletarrak *Xarma bilerak* proiektua sortu du, eta jostailu erotikoen gaineko argibideak ematen dizkie taldeei zein norbanakoei.

Hilerokoaren hezitzailea zara eta horri agerikotasuna eman nahi diozu; zergatik?

Hilerokoaren gaineko argibideak emateko formakuntza jaso dut, eta horretan dihardut. Pentsatu nahi dut 12 urteko neskatilak ez direla tanpoiak edo konpresak gordetzen ibiltzen eskolara doazenean gaur egun, baina ez dakit. Emakume gehienok eta gizonezko transek bizi duten egoera naturalenetakoa da, eta ezin da ulertu ezkutuan ibili behar izatea. Kopa menstrualak, esaterako, agerian utzi du hilerokoa, asko egin delako berba horren gainean; pentsa, jendeak uste du orain dela 6-7 urte asmatu zela, eta patentea 1937koa da.

"Ezagutzea ahalduntzea da", diozu... Hilerokoak zein eragin duen gure gorputzean jakitea garrantzitsua delako. Ilargia legez, lau fasetan banatzen da, eta zein eragin duen fase bakoitzak gugan jakin behar da. Odola botatzea baino askoz gehiago da hilerokoa, ziklo barik ez delako ezer.

Sexuaren gaineko heziketa falta dagoela esango zenuke?

Bai, handia. Sexuaren gaineko lehen saioa, lau orduko formakuntza, DBHko 2. mailan jaso nuen, eta gero ez nuen besterik izan DBHko 4. mailara arte. Eskolako curriculumean sartuta egon beharko litzateke, ez formakuntza saio batera mugatu. Gainera, ez dago adinik hori lantzen hasteko, umetatik has daiteke, garrantzitsua delako naturaltasunez jorratzea, gero traumarik ez sortzeko. Ahalduntzetik hezi beharrean beldurretik hezten gaituzte, eta horrek gerora asko baldintzatzen du.

Jostailu erotikoen gaineko proiektuan zelan hasi zinen?



Idoia Sanchez, produktu erotikoen artean dituela. IDOIA SANCHEZ

"ASKOTARIKO JOSTAILUAK DAUDE; TRISTEA LITZATEKE 'SATISFAYER'-ERA MURRIZTEA"

Nire bizitza profesionalaren lehorre garai baten sortu zen. Produktu erotikoren bat edo beste ezagutzen nuen, eta hortik jo nezakeela pentsatuta hasi nituen bilerak. Hainbat produktueroaten ditut halako bilere-tara, eta horien gaineko argibideak ematen ditut. Azken hila-beteotan bilerak egitea zaila denez, norbanakoendako salmenta abiatu dut Instagram bidez: *xarma_bilerak*.

Zelako profiletakoa da bezeroa?

Askotarikoa, ez dago bakar bat. Gaztea eta herrian ezaguna izateak laguntzen duela uste dut, eta askok jotzen dute nigana interesatuta.

Satisfayer-ari buruz asko egin da berba; zergatik nabarmendu da?

Iraultza txiki bat egin duela esango nuke. Honi esker emakumearen masturbazioa mahai gainean jarri da falo itxurarik

ez duen jostailu bati esker, eta adierazten du emakume gehienek plazer puntua klitorian dagoela; eta hori bada zerbait. Halako fama hartu badu, ez da bakarrik marketin kanpaina handia egin zaiolako, ahoz ahokoak ere funtzionatu duelako baizik. Dena den, sexualitatea oso anitza da eta produktu erotikoen mundua are eta anitzagoa; hortaz, edozeinen gustutarako produktuak daude, zorionez. Tristea izango litzateke *satisfayer*-era murriztea gutzia.

Gazteak jakitunagoak eta askeagoak dira sexu kontuetan?

Sekulako informazioa dugu eskura orain klik bakar batekin, baina informazio hori guztia ondo kudeatzen jakin behar da. Pentsatu genezake gazteek ezagutzen dituztela onura zein arrisku guztiak, eta sexu praktika seguruak izango dituztela, baina ez da horrela; azken urteetan, sexu bidez transmititzen diren infekzioen gorakada handia egon da... Gogoeta eragiten du horrek; guztia dator ez dugulako ganorazko sexu heziketarik. Askeagoak izan gaitzeko, baina arrazonomendu kritikoa garatuta ote dugun zalantza dut.



Eguzki Alde elkarte, eguztzen iluntzean. MIRARI ALTUBE

Eguzki Alde elkarte izan da atea zabaltzen lehenengoa

Gainerako elkarteak ere zabaltzen joango dira, nahiz eta zalantza asko izan segurtasun neurriak zelan ezarri

M.A. ARETXABALETA

Hirugarren fasean sartzearekin batera alarma egoerako neurriak malgutu egin dira, eta Eguzki Alde elkarteak zabaltzea erabaki du. Astelehenean, garbitasun lanak egin zituzten, eta martitzenean atea ireki.

Bigarren fasean sartzearekin batera, maiatzaren 25ean, jaso zuten irekitzeko baimena gastronomia elkarteek. Baimenak, baina, zalantza asko ekarri zituen; besteak beste, segurtasun neurriak zelan zehaztu eta be-tearazi. Horregatik, herriko elkarte guztietako ordezkariak bilera egin zuten maiatzaren 27an eta elkarrekin erabaki zuten ez zabaltzea. Atzo, bigarren bilera ziren egitekoak, bakoitzaren jarrera agertzeko.

Garbitasuna indartuta

Eguzki Aldeko zuzendaritza batzordeak domekan erabaki zuen

zabaltzea, eta segurtasun neurriak jasotzen dituen araudia zehaztu du. "Edukieraren kontua aurretik ere erabakita genuen eta mahai batzuk kenduta ditugu, bi metroko distantzia bermatze aldera", dio Iker Iturricastillo presidenteak, eta gaineratu du: "Garbitasunari dagokionez, indartu egin dugu, eta garbitzaileak egunero joaten dira orain".

Iturricastillok ez du uste batean bete egingo denik elkarteak: "Astean zehar adinekoak gerturatzen dira, bereziki. Eta orain, gainera, ezin dute kartajokoan jardun, ezta egunkaririk irakurri ere, norberak etxetik ez badakar, behintzat; hortaz, ikusi egin behar. Udan, gainera, jende gutxiago ibiltzen da".

Aste bukaerarako bazkari bat egiteko erreserba hartuta dagoela gaineratu du, eta poliki-poliki martxa hartzen joango den itxaropena agertu du.

Batzar orokorra egingo du Loramendi elkarteak egunean

Loramendi elkarteak batzar orokorrera gonbidatu ditu bazkideak. Ekainaren 18an izango da, eguna, 18:45ean -bigarren deialdia- udaletxe zaharrean; aurretik jakinarazi behar da bertaratzeko asmoa. Iazko jardueren eta diru kontuen berri emango dute, eta 2020ko plangintza eta diru kontuak aurkeztuko dituzte.

Uztailaren 12ko hauteslekua kiroldegian egongo da

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan botoa emateko mahaiak Ibarra kiroldegian izango dira aurten, Kurtzebarri eskolan beharrean. Segurtasun neurriak bermatze aldera egin dute aldaketa hori. Datorren astelehenean, ostera, mahai horietan izango diren kideen hautaketa egingo dute ezohiko osoko bilkuran.



Eskoriatzako Berbalagunak taldeak hamar urte bete zituenean Zaldibar antzokian egindako ekitaldia. I.B.

Testigantzen trukean, bonuen zozketara

'Hamar urte, hamar oroitzapen' lelopean, Eskoriatzako Berbalagunak taldeak 50 euroko hiru bonu zozketatuko ditu. Baldintza bakarra jarri dute parte hartzeko: taldearekin hartu-eman izan duen edonork testigantza bat bidali beharko du

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Berbalagunak euskara praktikatzeko segitu dute konfinamenduan. Izan ere, online aritu dira, eta dagoeneko tabernetako terrazetan ere hasi dira batzartzen. Hala ere, ikasturteari amaiera eman nahi diote, eta, urteroko agur-afari jaia egingo ez duten arren, aurtentzen, bonuen zozketa egingo dute Berbalagunak taldearekin edozein hartu-eman izan duten herritar guztien artean.

Parte hartzeko, Eskoriatzako Berbalagunekin bizitako testigantza edo bizipen bat bidali beharko dute parte hartu gura dutenek, Whatsappez, 661 746 376 zenbakira, edo berbalagunak@gmail.com helbide elektronikora.

'Hamar urte, hamar oroitzapen' Ikasturte honetan hamar urte bete dituzte taldeak, eta, *Hamar urte, hamar oroitzapen* leloari jarraituz, iaz, urrian ekitaldi ederra egin zuten Zaldibar an-

tzokian, bidelagun, bidelari edo koordinatzaileen testigantzak jasota. Hori horrela, martxan jarri berri duten egitasmoarekin bizipen gehiago batu gura dituzte, eta, bide batez, herriko merkatariei lagundu, eskoriatzarrek bertan erosteko dei eginda.

50 euroko hiru bonu zozketatuko dira testigantzak bidaltzen dituzten herritar guztien artean, eta sariak izango dira Eskoriatzako Axtroki Merkataria Elkar-atea batzen duten 25 denda edo komertzioetan gastatzeko.

Bizipenak jaso eta jaso

Iratxe Arrese Eskoriatzako Berbalagunak taldeko koordinatzaileak adierazi duenez, egitasmo

50 EUROKO HIRU BONU ZOZKETATUKO DITUZTE HERRIKO DENDETAN GASTATZEKO

honek Berbalagunekin bizitako esperientziak batzea du helburu: "Ikasturteari amaiera emateko diru bat izaten dugu gordeta afari bat egiteko, baina aurtentzen zozketa bat egitea erabaki dugu; denok batzea ez baita samurra. Bertan parte hartzeko Berbalagunak talde bateko partaide izan zaitezke edo ez; asmoa da taldearekin edozein hartu-eman izan duen edozein herritarren esperientzia jasotzea. Izan ere, hamar urte bete ditugu, eta herriarekin ospatu nahi dugu. Astelehenean eman genuen zozketaren berri, eta dagoeneko zenbait testigantza jaso ditugu. Batzen ditugun guztiekin zozketa egingo dugu, eta 50 euroko hiru bonu Axtrokitan banatuko ditugu herriko komertzioetan xahutzeko".

Esperientziak bidaltzeko epea

Berbalagunekin izandako esperientziak bidaltzeko azken eguna, berriz, ekainaren 19a izango da.

Esaldi lehiaketa berezia, San Pedro jai berezietarako

Sari bakarra izango da aurtentzen: 100 euro; hain zuzen ere, herriko denda edo tabernetan gastatzeko

I.B. ESKORIATZA

COVID-19aren pandemiak ezarritako alarma egoeraren ondorioz, San Pedro jaiak bertan behera geratu dira, baina aurtentzen 21. edizioa beteko duen esaldi lehiaketa egingo da, eta dagoeneko martxan da.

Ohiko oinarri jarraiki

Lehiaketaren formatua egoera berrira egokituta, sari bakarra emango zaio bizi dugun egoera berezia modu originalean jasotzen duen esaldiari. Hala, urterotzen moduan, zenbait oinarri izango ditu lehiaketak: 16 urtetik gorako edozein eskoriatzarrek hiru pertsona edo gehiagoko taldeak osatuz hartu daitezke parte. Talde bakoitzak gutxienez esaldi bat aurkeztu beharko du eta gehienez, gura beste. Esaldiak Whatsappez 636 78 59 71 telefono zenbakira bidalita edo euskara@euskardialdia.eus helbidera idatzita aurkeztu beharko dira, eta horretarako azken eguna ekainaren 17a izango da. Mezuan, taldearen izena eta partaideen izen-abizenak eta adina adierazi beharko dira.

Hala ere, aurreko edizioetan moduan, ez dira onartuko neu-

rriz kanpoko kontsumoa edo jarrerara sexistak bultzatzen dituzten esaldiak. Talde moduan entregatuz gero, talde bakoitzak gaitzitzen bat bakarrik erabil dezake eta pertsona batek talde batean bakarrik har dezake parte.

Esaldi lehiaketaren epaimahaia Eskoriatzako Udaleko Euskara, Gazteria eta Hezkuntza batzordeak izendatuko du, eta, oinarrietan jasota ez datorenen egoeraren bat gertatzen bada, epaimahaiak izango du horri buruzko erabakia hartzeko ahalmena.

Sari bakarra: 100 euro

Sari bakarra egongo da aurtentzen edizioan. Hain zuzen, Eskoriatzako denda edo tabernetan gastatzeko 100 euroko balioa duen bonua.

Irabazle izango den esaldia euskarri desberdinetan erabiliko du Udalak, jaiegunetarako egingo duen zabalpen desberdinetan erabiliz, eta sare soziale- tan banatuko du, nahi dutenek etxeko balkoiak edo leihoak apaintzeko erabili dezaten. Hala, irabazlea zein den Eskoriatzako udal webgunean iragarriko da.



I.B.

Farolak konektatzeko arketak

Gaztañadiu kalean, Akeita taberna parean zenbait lan egiten ari dira egunotan. Arketak jartzen aritu dira, ondoren farolak konektatzeko. Eguraldi kaskarraren ondorioz pixka bat gehiago irau dezaketela lanek adierazi dute Udaletik. Hala ere, dena ondo bidean, gaurko, egubakoitza, amaituta izatea aurreikusten dute.

Mundua aldatzea posible dela aldarrikatzen 20 urte bete ditu Aste Zapatistak

Aste honetan zehar zen egitekoa 20. Aste Zapatista Eskoriatzan. Hala ere, ezin izan dute EskoZap taldeko kideek ohi moduan antolatu. "Egoera hau da kontzientziak pizteko unea" esanez zenbait mural jarri, janari bilketa eta esker-bideoa egin dituzte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Beste mundu bat posible dela aldarrikatzen hogei urte bete ditu Eskoriatzako Aste Zapatistak, baina aurten ez da ohi moduan ospatzea posible izan. Hala ere, inoiz baino gehiago eragin gura dute gizartearen kontzientziak piztean.

Aurtengo edizioan zenbait pankarta jarri dituzte herriko hainbat gunetan, eta, horrekin batera, janari bilketa jarri dute abian, egoera zaurgarrian dauden Eskoriatzako 13 familiari

laguntzeko. Eta, honekin batera, bideo bat egin dute urte hauetan guztietan lagundu dieten guztiei eskerrak emateko.

Hogei urtean, urtero-urtero, Eskoriatza kolorez jantzi dute, hainbat hitzaldi, erakustaldi, haurrentzako tailer, musika kontzertu eta ipuin kontaketa antolatuz, besteak beste. Gainera, Chiapasko zein beste zenbait herrialdeetako hainbat proiektu eta bertako komunitateen errealitateak ezagutarazten ere aritu dira. "Hitzaldi ugari egin ditugu

hogei urtean: Ayotzinapan desagertutako 43 ikasleetako baten gurasoekin bideo-dei bidezkoa, Wallmapu Euskal Herria Elkarteko Iban Gartziaarekin herri maputxeez, aldaketa klimatikoaz, sexualitateaz... Hala ere, Eskoriatzako Aste Zapatistak zapatismoa ardatz hartzen du, baina gure herrian eta inguruan eragiteko. Hala, egoera hau da kontzientziak pizteko unea; ea benetan hartzen dugun inguruko ardura...", adierazi dute EskoZap elkarteko kideek.

Janari bilketa

Martitzenean, beharra duten pertsoneri laguntzeko janari bilketa jarri zuten martxan Coviran eta Eroski dendetan. Hala, janaria uzteko kaxa berezi batzuk jarri dituzte, eta ekainaren 17ra arte egongo dira. Batutako janaria, berriz, beharra duten Eskoriatzako 13 familiaren artean banatuko dute, Caritasekin elkarlanean.

20 urte iruditan

20. urteurrena ospatzeko ikusentzuzkoa ere egin dute EskoZap elkarteko kideek. Urte hauetan egingako zenbait ekin-tza eta kartelak batuta bideo motz bat egin gura izan dute; hala, bide batez, urte hauetan guztietan astea antolatzen lagundu dieten eragile, elkarte eta norbanakoei eskerrak emanaz: "Oso zaila da gure alboan beti egon diren guztiei eskerrak ematea. Rosa Sanchez bakarlarria, Durangoko Marilu eta Rafa herri bazkari mexikarra antolatzen urtero izan direnei, Alaitzen taldeari gurekin batera Jose Arana egoitzako egoiliarrek paseoa atera eta beraien kantuekin herriko nagusiei irribarre bat ateratzearren...".



Aste Zapatistako kideek zenbait pankarta jarri dituzte herriko hainbat txokotan. I.B.



EskoZap taldeko zenbait kide talde argazkian. IMANOL SORIANO



2018an, herri maputxeen gaineko solasaldia izan zen kultura etxean. I.B.



Urtero hutsik egin ez duen herri bazkari mexikarra, kontzejupeko arkupeetan. I.S.



Romaretazabala, Zitim komunitateko zenbait kiderekin. IURRE ROMARETAZABALA

25 urtez Chiapasen laguntzen

Mexikoko Chiapasko zenbait proiektutan haziak loratzen aritu da 25 urtez lurre Romaretazabala eskoriatzarra. Urtero joaten da, lau hilabetez, hango indigena eta atzerritarrei laguntza ematera; azaroan irten eta otsailean bueltatu.

Bertako zenbait komunitate, kolektibo eta elkartetako proiektuetan laguntzen aritu da, eta urte hauetan fruituak ere batu izan ditu: "Aste Zapatista antolatzen 20 urte egin ditugu, eta nik 25 urte daramatzat, urtero, Chiapasera joaten. Ahal izan dudana laguntza guztia ematen saiatzen naiz, eta hemendik eramaten dudana laguntza ere ezinbestekoa da beraietzat. Hala, Eskoriatzarekiko maitasun handia dute hangoek. Hemendik helarazten diegun laguntza ekonomikoarekin eta elkartasunarekin aurrerapauso handiak eragiten dizkiegu beraien bizitzetan".

Egoera berrira egokitutako udalekuak

Eskoriatzako udalekuak uztailaren 6tik 24ra bitartean izango dira, soilik Lehen Hezkuntzako haurrei zuzendutakoak. 10:00etan hasi eta 13:00etan bukatuko dira, eta zenbait neurri hartuta. Izen-ematea zabalik dago, ekainaren 17ra arte

Imanol Beloki ESKORIATZA

COVID-19ak eragindako ondorioak direla eta, Eskoriatzako Udalak ohiko udaleku irekien programa bertan behera uztea erabaki du, baina, udako programa aurkeztuta, 2020ko udalekuak egoera berrira egokitutakoak izango dira.

Lagunekin jolastea, naturan gozatzea, kirola egitea, pantailatik deskonektatzea eta aisialdia euskaraz gozatzea izango dira egitasmo honi jarri dizkieten helburuak, eta zenbait egokitzapen egin eta neurriak ere hartu dituztela adierazi du Mainer Etxanizek, Eskoriatzako Udaleko Gazteria teknikariak: "Uztailaren 6tik 24ra izango dira udalekuak, eta talde txikietan banatuta arituko dira. Talde bakoitzak begirale bat izango du, eta ez dira haurrak talde handietan elkartuko; aurten haurrak ez dira plazan batuko, talde bakoitzari leku bat izendatuko zaio. Bestalde, soilik goizez eskainiko da zerbitzua, arratsaldekorik ez da egongo. Hau egitearen arrazoia izan da konfinamendu garaian eta eskola presentzialik ez den garai honetan haurrengandik jasotako premiei erantzutea; betiere, testuinguruak eskatzen dizkigun neurriak hartuta".



luz, Eskoriatzako udalekuetan, haurren zerrenda pasatzen. I.B.

Soilik, Lehen hezkuntza

Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik seigarren mailara bitarteko haurrentzat zuzenduta izango da, eta Haur Hezkuntzakoentzat ez da zerbitzurik izango: "Haur txikiak kasuan, ezin dugu bermatu prebentzio neurriak behar bezala bete ahal ditugunik; izan ere, euren jolasteko modua oso gertukoa eta ukimen askokoa da. Beraz, arriskurik ez egoteko, hauentzat ez da eskaintzarik egongo. Horretaz gain, arrisku taldeko pertsonekin harremana duten

haurrei ez apuntatzea gomen datzen zaie. Hau da: diabetesa dutenak, gaixotasun kardiobaskularrak, hipertentsioa...".

Izen-ematea, zabalik

Izen-ematea Internet bidez egingo da, banaka. Hau da: haur bakoitzak izen-emate orri bat beteko du, nahiz eta familia berekoak izan. Izena emateko galdetegi bat zabalduko da, eta epea ekainaren 10etik ekainaren 17era artekoa izango da. –galdetegia Eskoriatzako Udalaren webgunean egongo da–.



luz, Leintz Gatzagako udalekuetan loreak landatzen. GUREL GURASO ELKARTEA

Herritik kanpora joatearen alde eginda, udalekuetarako gertu

Bi talde osatu dituzte udalekuetarako: talde bat Etxarri Aranatzera joango da eta beste taldea, Otsagabiara

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatzagako Gurel Guraso Elkarteko kideek egunotan izan dute hizpide uztailean egiten dituzten udalekuak egin edo ez. Aste honetan, aurrera egitea erabaki dute, eta aurten, gainera, haurrak zein gaztetxoak herritik irtengo dira udalekuetan. Bi taldetan banatuta, batzuk Etxarri Aranatzera joango dira eta beste batzuk, Otsagabiara.

Segurtasun bermearen bila

"Konfinamenduan herritik irten barik egon dira haurrak, eta, naturaren eta espazio zabalen aldeko apustua eginda, batetik, eta Gatzagatik irtete aldera, bestetik, Nafarroara joateko apustua egin dugu. Erreserba eginda dugu, ezeztatze aukerarekin, eta, aurreikuspenen arabera, uztailean bertara joatea baimenduta izango dugula uste dugu. Udalekuak herrian egin

ditugunean, eta irteeraren bat edo beste egin dugunean, autoz mugitu izan gara, baina, gaur egungo egoera ikusita, egokiagoa iruditzen zaigu protokolo eta segurtasun neurriak betetzen dituzten instalazio batzuetara joatea, erantzukizun aldetik babestuta egoteko, eta neurri guztiak ondo hartu eta bete daitezen", adierazi dute Gurel Guraso Elkarteko kideek.

Bi taldeak, beteta

Etxarri Aranatzeko kanpinera 10 urtera arteko gaztetxoak joango dira uztailaren 22tik 24ra bitartean. Otsagabiara, berriz, 11 urtetik gorako gaztetxoak joango dira, uztailaren 28tik 31ra. Bi taldeak osatuta daude dagoeneko: 15 haur joango dira Etxarrira eta 13, berriz, Otsagabiara. Begiraleak berdinak izango dira udaleku guztietan: Miren Zubillaga eta Aitor Ajuria.

Feria eguna gogoan

Eskoriatzako Ferixie antolatzen duten Jose Aranakoek ikus-entzunezko bat egin zuten feria egunerako –joan den zapatua–, eta, horrekin batera, balkoiak apaintzeko dei egin zuten. Elorreta auzoan, aldiz, *Eskoriatzako Ferixie Bizirik* lelopean, auzoa girotu zuten; zenbait txorimalo egin eta musikaz lagunduta, pintxo batzuk jateko tartea hartu zuten auzotarrek.



MIKEL LETONA

Liburutegia plazara ateratzea edo ez erabakitzeak daukate

Leintz Gatzagako herri liburutegia urritik maiatzera bitartean izaten da zabalik; beraz, eskaintzen duen zerbitzua etenda, ikasturtea amaitu dute.

Herri liburutegia itxita egon arren, liburuak plazara ere atera izan dituzte azken urteotan, uda partean, eta irakurzaletasuna sustatzeko txoko hori sortzea oraindik erabaki barik dute

herri liburutegiko boluntario taldekoek: "Herriko plazan liburutegi bat sortzen dugu uda aldera, oasi txiki bat izango balitz moduan. Liburuak irakurtzeko, partekatze eta, nola ez, irakurzaletasuna sustatzeko. Hala ere, egoera honen aurrean, ez dakigu halakorik egin ahal izango dugun edo ez; beraz, oraindik erabaki gabe dugu liburutegia kalera atera edo ez", adierazi du Leintz Gatzagako liburutegiko boluntario taldeko kide Nerea Altunak.



Iker Ibarguren, Amaia Zabaleta, Aitor Arantzabal, Gorka Artola eta Iñaki Ugarteburu, atzoko agerraldian. JOKIN BEREZIARTUA

Agorrosin: txandak hartu eta "baldintza bereziak" betetzeko dei egin dute

Alarma egoera gaindituta, ekainaren 22tik irailaren 13ra izango da uda denboraldia, betiere normaltasun berrira egokitutako neurriekin; alde aurretik txanda hartzea eta kiroldegi barruan zehaztuta dauden neurriak zorrotz betetzea eskatu zaie erabiltzaileei

Jokin Bereziartua BERGARA

Ekainaren 15etik 19ra Agorrosingo harrera irekiko dute, 09:00etatik 19:00etara, eta udako denboraldia ekainaren 22tik irailaren 13ra izango da, taberna barne. Hau da, ekainaren 22tik aurrera barruko igerilekua, kanpoko igerilekua, fitness gela, areto txirrindularitza gela eta padel pista. "Agorrosin irekitzea oso garrantzitsua da herritarrei begira, eta, baldintza oso berezietan bada ere, irekitzearen alde egin dugu. Baldintza horiek zehazterakoan bergararrek orain arte erakutsi duten konpromisoarekin kontatu dugu; erabiltzaileek baldintzak zenbat eta hobeto bete, orduan eta zerbitzu hobe eskaini ahalko dugu. Abonatuak abantaila batzuk izango dituzte eguneko erabiltzaileen aurrean", esan zuen atzoko agerraldian Gorka Artola alkateak.

Igerilekua: Ipintzan eguzkia hartu

Kanpoko igerilekuak jolasik gabe irekiko dira, legeak txirrista eta iaz instalatu ziren kanpoko umeen txorrotak itxita izatera derrigortzen du eta. Kanpoko igeritokia egunero egongo da zabalik, 10:00etatik 20:00etara -14:30etik 15:30era itxi egingo da garbiketa egiteko-; hori bai, bi txanda zehaztu dituzte: goizekoa izango da 10:00etatik 14:30era eta arratsaldekoa, berriz, 15:30etik 20:00etara.

Kanpoko igeritokiko edukiera 525 laguneko da. Eremua zabalik dagoenean erabili ahal

KANPOKO IGERITOKIKO EREMUAREN EDUKIERA BERRIA 525 LAGUN DA; IPINTZAKO ZELAIAN EGUZKIA HAR DAITEKE

izango dira ohiko berdegunea eta Ipintza futbol zelai erdia eguzkia hartzeko; kanpoko igerilekua, barruko igerileku txikia, barruko igerileku handiko bost kale eta kanpoko komunak. Berdeguneetan, markatutako tokietan soilik egon ahal izango dira erabiltzaileak.

Hamakak eraman ahal izango dira, baina ez da bertan gordetzeko aukerarik egongo, eta kanpoko igeritokiko erabiltzaileek ez dute aldagarik izango.

Barruan: hamar kale, hamar lagun Barruko igerilekuari dagokionez, astean zehar hamar kale erreserbatu ahal izango dira honako ordu tarte hauetarako: 06:30etik 10:30era, 14:30etik 15:30era eta 19:30etik 21:30era. Gainontzeko orduetan bost kale bakarrik erreserbatu ahalko dira. Igerileku txikian, berde-

gunea itxita dagoenean, hiru pertsonak egin dezakete erreserba, eta erabiliko diren instalazioak izango dira igerilekua eta bertan dauden dutxak zein aldagelak -dutxa gabe-. Barruko igerilekurako txandak ordu-betekoak izango dira, eta txanda horietan denbora errespetatzea "oso garrantzitsua" dela dio Kirol zinegotzi Aitor Arantzabalek: "Erabiltzaileak ordu-bete izango du kiroldegira sartu, igeri egin eta irteteko. Oso garrantzitsua da denbora horiek betetzea, beste erabiltzaile bat zain egongo da eta".

Gimnasioa, bizikleta eta padela

Gimnasioan, muskulazio makinak eta kardio-makinak erabili ahalko dira. Koltxonetak eta eskuzko materialak kendu egingo dira, eta giharrak lantzeko ondoko gela itxita egongo da. Gimnasioan 20 lagunek hartu ahal izango dute txanda ordu-tarte bakoitzean, eta txandak, kasu honetan, ordu eta erdiak izango dira. Erabiltzaileak derrigorrez toalla eraman beharko du; eta erabilitako makina erabili aurretik eta ondoren garbitu beharko du. Horretarako, Udalak makinak garbitzeko desinfektatzailea eta papera jarriko ditu. Lehorreko aktibitate honetan aldagela eta dutxa erabiltzeko aukera egongo da. Baldintza bereberekin irekiko dute areto txirrindularitza gela.

Padel pistak ere irekiko dituzte eta lau lagunek erabili ahalko dute ordu tarte bakoitzean. Aldagela eta dutxa erabili ahalko dira eta abonatuak zein eguneko erabiltzaileek ordaindu beharko dute padelean egin ahal izateko.

Txandak, edukieraren izenean

Legeak kirolguneetako edukiera %60ra murriztu ditu. "Ondorioz, erabiltzailea kirola egitera etor daiteke eta lekurik ez izatea, eta hori ekiditeko txandak hartzea proposatzen dugu", zehaztu du Arantzabalek. Abonatuak aste-bete lehenago har dezakete txanda eta eguneko erabiltzaileek eguneko bertan. Erreserbatuta-

ABONATUAK LEHENETSI DITUZTE; BESTEAK BESTE, %20 JAITSIKO ZAIE UDAKO KUOTAREN KOPURUA

ko txanda hori pasatu arte ezin dute beste txandarik hartu zerbitzu berean. Txandak lau eremutan banatu dira: berdegunea, igerilekuko kalea, gimnasioa eta areto bizikletak. Erabiltzaile bakoitzak, gehienez, eremu bakoitzetik txanda bat hartu dezake egunero; hau da, gehienez, egunero lau txanda.

Udako abonua, %20 merkeago

Uda sasoirako abonamendu bakarra atera du Udalak, abonamendu arrunta, eta hileko abonamenduaren prezioak uztailen eta abuztuaren %20ko murrizketa izango du. 2020ko martxoan altan zeuden abonatuak ekainean doan izango dute abonamendua, eta, uztailen baxa eman nahi izanez gero, ekainaren 30era arte izango dute horretarako aukera. Aldiz, erabiltzaile berriek ekainean alta eman nahi badute, hilabete osoa ordaindu beharko dute. Bi modu daude alta emateko: Agorrosingo harrerara bertaratuta eta inprimakiak beteta; edo www.bergarakirola.eus webguneko argibideak jarraituta. Abonatuak lehenetsi ditu Udalak, baina eguneko erabiltzaileek eguneko bertan erreserbatu ahal izango du nahi duen txanda; helduen prezioa 6,75 euro da.

Sarrera-irteerak, beste era batera

Hatz marka kendu egin dute, eta txartela emango zaie abonatu guztiei. Beraz, txartela ez duen abonatuak lehen eguneko harreraren eskatu egin beharko du. Igeri egitera doazen erabiltzaileak spako tornutik sartuko dira; berdegunera doazenak sarrerako bi tornuetatik eta gimnasia edo ikastaroetara doazenak gimnasia joateko atetik -irakurgailua jarriko da bertan-. Irten leku beretik egingo da, baina badago salbuespena: kanpoko igerilekuen eremuan dauden erabiltzaileek, txanda bukatzean, Ipintza ikastetxera ematen duen ate handitik irtengo dira zuzenean.

Bost ikastaro eskainiko dira

Udaleko Kirol Zerbitzuak erabaki du bost ikastaro eskaintzea uztailaren 1etik 28ra: padela, yoga, pilatesa, body balancea eta areto txirrindularitza. Ekainaren 15etik 23ra eman ahalko da izena eta plazen zozketa ekainaren 25ean egingo da; libre geratzen diren plazak ekainaren 26tik aurrera eskatu ahalko dira.



27 urtez erabili ostean, azken egunotan aritu dira kantxa kentzeko lanetan. JOKIN BEREZIARTUA

Sei hilabete Labegaraieta berrirako lanak amaitzeko

Aldagelen eraikin berria egiteko lanak "epe barruan eta txukun" amaitu ostean, hasita daude eraikin zaharraren barruko lanak; urte bukaerarako lanak bukatzea espero du Udalak, besteak beste, kiroldegia erabiltzen duten klubei ahalik eta kalte gutxien eragiteko

Jokin Bereziartua BERGARA

Labegaraietako kiroldegi eraberritua 2020. urtea bukatu aurretik prest izatea. Horixe da Udaleko Kirol Zerbitzuak zehaztu duen erronka proiektu horretarako, eta, oraingoz, martxa onean doaz lanak; esan daiteke COVID-19ak oraingoz ez duela zuzenean eragin obra honetan. Labegaraietako kirol-

degiak badu eraikin berri bat zaharrari itsatsita, Udaleko Kirol teknikariburu Iñaki Ugartebururen arabera, lehen faseko lanak "epe barruan eta txukun" amaitu direlako. Aldagela berriak jango dira nagusiki eraikin horretan: "Orain arte, kiroldegi barruan lau taldealdagela, epaileen aldagela eta aldagela egokitu bat zeuden.

Orain, zazpi aldagela berri egin ditugu itsatsita doan eraikin berrian". Aldagelez gain, konponketa gela bat ere egokitu dute eraikin berrian.

27 urte dituen kantxari agur

Bigarren faseko lanen barruan aldaketa aipagarriena da, baina, kantxa berritu egingo dela. "Kentzen ari diren kantxa honek

27 urte egin ditu eta oso kantxa ona izan dela esan beharra dago. Ez pentsa lan erraza danik halako kantxa bat lortzea... Eguurrezko kantxa bat izango da, betiere ezaugarri elastikoak izango dituen. Espero dugu kantxa ona irtetea".

Gainera, gortina banatzaileak eta markagailuak berritu egingo dira. Labegaraieta berrian rokodromoa gunee itxi baten egongo da, herriko eskalatzaila taldearen aspaldiko eskaera bat betez. Eta orain arte rokodromoaren azpian egon diren harmailen lekuan material handia gordetzeko biltegi batzuk egokituko dituzte; besteak beste, kanastak eta gimnasia erritmikoko gurdia gordetzeko.

Gaur egungo rokodromoaren azpian joango diren biltegien ondoan erabiltzaileendako gimnasio bat ere jarriko dute. Horrez gain, sarrera nagusiak ere aldaketa nabarmenak izango ditu: "Sarrera eskuinaldetik bakarrik izango da, ez da egongo ezkerretik ere sartzeko; irisgarritasuna bermatzeko, igogailua jarriko da eta goiko pisuan auzokideendako gunee bat egokituko dugu. Klubendako beste espazio bat jarriko da goiko pisuan", zehaztu du Ugarteburuk.

Beste udal batzuekin berbetan

Saskibaloia taldea, eskubaloia taldea, piraguistak, hockey eta gimnasia erritmikoko klubak daude Labegaraietako erabiltzaileen artean. Hala, obrek iraun artean ohiko erabiltzaile diren klubek beste azpiegitura batzuk beharko dituzte entrenatzeko eta lehiatzeko, eta, Ugarteburuk dioenez, aspalditik ari dira inguruko herrietako udalekin berbetan: "Momentuz, Antzuolako Udalarekin lotu

dugu eskolako kantxa eta frontoia erabiltzea; zorionez, ordu asko eskaini dizkigute. Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalekin ere ari gara berbetan. Jakin badakite premia berezi baten aurrean egongo garela Bergaran, eta ahal duten heinean ahaleginguduko dira aukera ematen".

Lizitazioen baimo merkeago

Bigarren faseko lanok Artzamendi enpresak egingo ditu eta aurrekontua 1.557.190 eurokoa da, BEZa barne. Udalak aditzera eman duenez, Artzamendi enpresak lizitazio oinarritik 38.000 euro jaitsi du aurrekontua eta hainbat hobekuntza aurkeztu ditu: kantxan markagailu modernoagoa jarriko dute; espazio anitzetako altzariak jarriko dituzte; ubi-garabiaren kanpoaldeko egitura hobekuntzak egingo dituzte; eta rokodromo itxian aroztegi metalikoa jarriko dute.

Kostu totala: 2.547.998 euro

Obra honetarako biltegi zaharra eraitsi behar izan zuten eta lan horretan 42.168 euro gastatu zituen Udalak. Gero, aldagela berriak dituen eraikin berria egiteko lanetarako 948.640 euro bideratu dira. Hortaz, Labegaraieta eraberritzeak 2.547.998 euro kostatuko du, BEZa barne. Gogora ekarri behar da proiektu hau Diputazioaren ia 600.000 euroko dirulaguntza bati dagoela lotuta.

HAINBAT LAN: KANTXA BERRITU, ROKODROMOA GUNE ITXI BATEN EGIN, GIMNASIO BERRI BAT...

TAO martxan dago berriro ere, makinak desinfektatu ostean

Funtzionamendua betikoa izango da, eta gomendatu dute makinak botoiak ez sakatzeko atzamarrekin

J.B. BERGARA

Eguaztena ezkerre martxan dago berriro ere TAO zerbitzua, ohiko arau eta funtzionamenduarrekin. Udalak makinak desinfektatu zituen martxan jarri aurretik eta erabiltzaileei eska-

tu diete makinak botoiak sakatzeko eskularru, giltza edo bestelako materiala erabiltzea, atzamarrek erabili beharrean.

TAO zerbitzua lau gunetan dago banatuta: Oxirondo plaza, San Martin plaza, Ibargaraiko

parking publikoa eta erdigunea. Guneen araberrako ordutegia mantendu egingo da. Hala, San Martin plazako ordutegia astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:00etara bitartean izango da. Gainontzeko guneean, berriz, astelehenetik egubakoitzera 09:00etik 13:00etara bitartean goizez eta 16:30etik 21:00ak arte arratsalde. Hiru gunee horietan, zapatuetan 09:00etatik 13:00ak bitartean egongo da martxan TAO zerbitzua. Tiketa doakoa izateaz gainera, ezinbestekoa da



Oxirondoko makina, apirilaren 22an. A.G.

eta ateratzen den gunerako bakarrik izango da baliozkoa. Oxirondo plazako eta Ibargaraiko parking publikoko iraupena hiru ordukoa izango da; San Martin plazakoa ordu erdikoa; eta kalekoa, ordu eta erdikoa. Gainera, tiketaren iraupena bukatzerakoan ezingo da TAO gunean aparkatu hiru ordu igaro arte, nahiz eta honako salbuespen hau onartzen den: lehenik San Martin plazan aparkatzen bada, posible da gainontzeko guneean aparkatzea.



Bergararentzat oso kutuna da San Martzialgo ospakizuna; irudian, hainbat herritar amaierako erromerian. GOIENA

Sanmartzialak ez dituzte "bideragarri" ikusten

Udalak erabaki du jairik eta kultura ekitaldirik ez antolatzea alarma egoerak iraun artean, eta uztailaren 5eko sanmartzialak ere ez ospatzea erabaki dute: "Ez dugu bideragarri ikusten halako jende pilaketa eta jai mota uztartuko lituzkeen egitaraua formulatzea"

Jokin Bereziartua BERGARA

Uztailaren 5ean ez ditugu San Martzialgo zelaiak jendez bete-ta ikusiko, bergarar askorendako urteko egunik berezietakoa dena ere ezingo da ospatu COVID-19ak eragindako alarma egoeratik. "Alarma egoerak irauten duen bitartean Udalak ez du antolatuko jai edo kultur ekitaldirik modu presentzialean. Era berean, herritarren osasuna bermatzeko, Pentekosteetan eta San Antonioko jaietan jokatu moduan, Udalak ez du jairik ospatuko eta ez du halakoetarako baliabiderik jarriko datozen asteetan. Sanjuanetarako ere irizpide bera izango dugu", adierazi du Udal Gobernuak.

San Martin jaietara behar

Sanmartzialak alarma egoeratik kanpo egonda ere, erabaki dute bertan behera uztea: "Aurten sanmartzialak ez dira ospatuko, bizi dugun osasun-krisi egoera honetan ez delako bideragarri ikusten halako jende pilaketa

Letania bai, baina meza ez

Ekainaren 30ean, San Martzial egunez, ohitura da urtero 07:30ean Santa Marina parrokiatik abiatuta letania errezetatzen igotzea San Martzialera. "Igoera egingo dugu, ez delako jende askorik pilatzen, baina goiko ermitan meza, seguruenik, ez dugu egingo. Urtero 80 bat lagun elkartzen gara eta uste dut aurten gutxiago elkartuko garela. Hala ere, ez ginateke sartuko ermita barruan distantziak mantentzeko aukerarekin; kanpoan egingo dugu otoi", adierazi du Jon Molina parrokoak.

eta jai mota uztartuko lituzkeen egitaraua formulatu ahal izatea. Hortik aurrera, egoera aldatzen joango balitz, Udalak erabakiko luke gainontzeko ospakizunen aurrean zer irizpide berri hartu". Udan zehar auzo batzuetan izan daitezkeen jaietz gain, sanmartinak izango dira hurrengoak.

Seminarixoko ekitaldien dirua

Bestalde, asteon iragarri dute alarma egoera bukatzearekin bat asmoa dutela Seminarixoko emanaldietarako txarteldegian bertan erositako sarreraren itzulketak egiteko; sei emanalditako dirua itzuliko dute. Internetez erosi zituztenek dagoeneko eskuratu zuten sarreraren dirua, eta ekaina bukatu aurretik gainontzekoei itzuliko zaie. Hiru egun hauetan irekiko da txarteldegia suspenditu behar izan ziren ekitaldietako sarrerak jasotzeko: ekainaren 22an eta 23an, 10:00etatik 12:30era; eta ekainaren 24an, 18:00etatik 20:00etara.

GORA ETA BEHERA



J.B.

"Sekulako putzuak" Goiko Estazioan



Goikorock elkarteko erabiltzaile batek gogora ekarri duenez, "sekulako putzuak" daude musika lokalerara heltzeko: "Materiala garraiatzea zaila eta arriskutsua izaten da euria egiten duenean".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Gaur irekiko dute San Joxepe elkartearen egoitzako taberna

Martxoaren 12an itxi zituen ateak San Joxepe erretiratu elkartearen egoitzak eta gaur, ekainak 12, irekiko dituzte tabernako ateak. Hau da, bigarren eta hirugarren solairua itxita egongo dira eta, beraz, ez da masajista, ile-apaindegi edota podologo zerbitzurik izango, besteak beste. Taberna eta terraza irekiko dute gaur, 90 egun itxita egon

ostean. "Taberna egongo da zabalik eta terrazak erabilgarri egongo dira. Jangela ere zabalik egongo da, betiere COVID-19aren bueltako segurtasun neurri guztiekin. Berria eta arraroa izango da, baina ohitzen joan beharko dugu", adierazi du elkartearen presidente Roberto Kareagak. Egoitza erabat noiz zabalduko duten ez dute, oraingoz, erabaki.

Gaur irekiko den tabernako ordutegia COVID-19aren aurreko berbera izango da, 09:30etik 21:00etara.

OHARRAK

Zaintzaren gaineko diagnostikoa egiteko plana

Hirugarren adinekoen edota dependentsia duten zaintzaren egoera aztertu nahi du Udalak eta zaintza lanetan ari direnei edo zainduak diren pertsonen elkarriketak egin nahi dizkiete. Elkarriketa horietan parte hartzeko eskatu dute Udaletik. Kontaktua: berdintasuna@bergara.eus edo 634 73 27 62.

Dolmenen ibilbidea egiteko bisitak, martxan

Ekainaren 14an egingo da alarma egoera barruko lehen doako ibilbidea. Parte hartzeko izena eman daiteke 657 79 46 77 telefonora deituta edo info@begi-bistan.com helbidera idatzita.

EAJ: botoa posta bidez emateko aukera

Batzokia irekita egongo da uztailaren 12ko hauteskundeetan botoa postaz emateko: astelehenerdik egubakoitzera, 11:00etatik 12:30era eta 18:00etatik 20:00etara. Aldez aurretik telefono zenbaki honetara deitu behar da: 943 76 47 00.

Botatzeko egurra jasotzeko aukera egongo da

Udaleko mendi eta lorezaintzako brigadek euren lanetan ateratzen duten egurra jasotzeko zozketa egin dute; bi herritarri tokatu zaie eta orain ez dute arazorik izango egurrok jasotzeko.

"Azpimarratutako data da guretzat Gorlako Igoera"

ION UNAMUNO LOKATZA ZIKLISMO ESKOLAKO LEHENDAKARIA

Aurreikusitako hainbat proba bertan behera lagatzera behartu du koronabirusak Lokatza ziklismo taldea; Gorlako Igoera ere arriskuan dagoela aitortu dute

Jone Olabarria BERGARA

COVID-19ak eraginda Lokatza ziklismo eskolak bizi duen egoeraren berri eman du Ion Unamunok, lehendakariak. Aurreikusitako hainbat proba bertan behera utzi behar izan dituzte, eta Gorlako Igoera ere "zalantzan" dago irailera begira. Hala ere, "gogorrena" txirrindulariek bizi izan duten egoera dela azpimarratu du.

Maiatzaren 20an jakinarazi zenuten hiru proba garrantzitsu bertan behera geratu direla. Zer eragin izan du?

Emakumezkoen San Martzialgo igoera, San Antonioko proba eta Antzuola DH proba bertan behera uzteaz gain, eskola arteko bi



Ion Unamuno, Lokatzako presidentea, prentsaurreko batean. IMANOL SORIANO

proba ere ezin izan dira egin. Antolaketa mailan baino gehiago, txirrindulariei eragin die; kirol talde bat gara, kluba pertsonak osatzen dute eta eskola moduan asko eragin digu.

Nola bizi izan duzue konfinamendua eskola barruan?

Entrenatzeko orduan, etxetik prestatzen egon behar izan dute neska-mutikoek, eta horrek dinamika asko apurtu du; batek edo bestek utzi dute dagoeneko txirrindularitza. Motibazio falta denok izan dugu. Gogorra izaten da horrelako egoeretan aurrera egitea; are gehiago, txirrindularitza bezalako kirolean. **Ekintza berezi batzuk egin dituzue aste hauetan...**

Spinning saioak egin ditugu online bidez, dietetikari buruzko solasaldiren bat ere online eman dugu. Zerbait, behintzat, eskaintzen ibili gara zaleei eta klubeko kideei. Gorlako Igoera birtuala ere egin genuen, online plataforma bat erabilita, Caja Rural taldeko hainbat profesionalekin batera. Hala ere, zaleak errepidean txirrindulariak animatzen ikustea ezin da konparatu etxean Internet bidez egi-

tearekin. Klubak berak baino gehiago, txirrindulariek sufritu dute egoera honetan.

Gorlako Igoera ere zalantzan duzue...

Klub moduan bere prestigioa du Gorlako Igoera antolatzeak, egutegian gorritz markatutako data bat da askorentzat, eta hori ez antolatzeak kalte egingo lioke klubari. Azpimarratutako data bat izaten da guretzat, baita gure babesleentzat; apustu bat egin dute guregatik, esaterako, Bolintxo eta Lana gure babesleek, baita herriko beste hainbat komertzio. Euskarri ekonomiko garrantzitsua dira, eta proba hauek bertan behera lagata hori ere erdipurdi geratzen da.

Baduzue datarik esku artean?

Irailaren 27a proposatu ziguten lehen aldiz, baina Espainiako Kopako proba bat jokatu da egun horretan bertan eta txirrindulari askok ezingo lukete parte hartu. Irailaren 12a ere esku artean izan dugu, baina baliteke data horrek San Martin jaien aurreko zapatuan egin ohi den azokarekin kointziditzea. Data berri baten bila lanean jarraitzen dugu, oraingoan.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldeak.

- K-21

Telleria 19 802-803

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzereka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa

- Berogailuak eta petrolio-produktuak

- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABAETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak

- Berokuntza eta gasa

- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABAETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza

- Ureztatze sistemak

- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonca D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Lemak taldeko Beñat Larrañaga, Antxon Arregi eta Biken Larrañaga entseguan joan den egunean. JOKIN BEREZIARTUA.

Herriko musika taldeak ere entseguetara bueltan

Joan den eguenetik, hilak 3, Bergarako musika taldeek Goiko Estazioko entsegu lokalean batu eta jotzeko aukera dute. Neurri zorrotzak beteta eta lehen asteak emandakoaz "balorazio positiboa" eginda, "gogoz" itzuli dira entseguetara taldeak

Jone Olabarria BERGARA

Aurreko asteko egunean berrireki zuten musika entseguetarako lokala Bergaran, ia hiru hilabetez itxita egon ostean. Bergarako GoikoRock elkarte-kideek orduan izan zuten aukera Goiko Estazioko lokalak erabili eta, betiere, segurtasun neurriak jarraituz, taldeen ohiko martxa apur bat berreskuratuko.

Duela hamaika urte, 2009an sortu zuten GoikoRock elkarte, eta musika estilo eta formazio ezberdinetako musikariek osatzen dute, taldeka edo bakarka; 80 bazkide eta 20 musika talde dira.

Erantzukizuna, musikariena

GoikoRockeko bozeramaile Eugenio Pelicanok zehaztu duenez, hainbat neurri betetzeko baldintzarekin eta erantzukizuna musikariena dela argudiatuta eman die Udalak bertan entseguetarako baimena. Konfinamenduan zehar bazkideek adostutako

arauak eta neurriak batzen dituen protokolo-dokumentu bat presatu zutela azaldu dute, eta Udalari aurkeztu zioten.

Han jasota daude, besteak beste, lokal bakoitzean bost lagun baino gehiago ezin direla egon aldi berean; kideen artean bi metroko distantzia mantendu behar dela; bakoitzak bere tresnak bakarrik erabili behar dituela, eta, hala ez bada, garbitu; eta eraikinean maskara erabili behar dutela.

Taldeak, jotzeko "irrikan"

Lehen entsegu eguna izan zen egunean, eta musikariek berriz ere elkartu eta entsegetzeko aukera "irrikan" hartu dutela aitortu zuten. Lemak taldeko baxu

ARAUAK ETA NEURRIAK BATZEN DITUEN PROTOKOLO DOKUMENTUA ERATU DUTE BAZKIDEEK

jole Beñat Larrañagak aitortzen zuenez, entsegetzen ari diren bitartean distantzia mantentzea "zaila" izan daitekeen arren, maskarak une oro ari dira erabiltzen. Lemak taldea aurtien hasi da "seriotasunez" entsegetzen, abestiak egiten edota bideoak grabatzen, eta COVID-19ak prozesu horren guztiaren "erdian" harrapatu dituela azaldu du Larrañagak.

Lehen balorazioa, positiboa

Zabaldutuetatik astebete igarota, Eugenio Pelicanok azaldu du musikariak "neurriak jarraitzen" ari direla, instrumentu eta materiala desinfektatzen dutela erabilitakoan eta orokorrean arduratsu jokatzeko ari direla talde guztietako kideak. Goiko Estazioko lokalak zortzi entsegu gela dituela azaldu du Pelicanok eta eraikinean jende gehiegi pilatu ez dadin txandak antolatu dituztela zehaztu du. Eraikinean erabilera egokia egitearen garrantzia azpimarratu du.



Liburuak DUT taldearen historia batzen du. Irudian, taldeko kideak. DUT

'DUT' liburuaren aurkezpena gaur iluntzean Kartzela Zaharrean

Aurkezpena martxoaren 13rako zegoen aurreikusita, baina COVID-19 gaitzak bertan behera laga zuen

J.O. BERGARA

Angiolillo liburutegiaren eskutik, DUT taldearen argitaratu gabeko materiala ikusi eta entzuteko aukera izango da gaur, hilaren 12a, 19:00tik aurrera, Bergarako Kartzela Zaharrean. Hain zuzen ere, Pablo Salgado idazleak eskainiko du DUT taldearen gaineko liburuaren aurkezpena.

Gogorarazi dute aurkezpena orain dela hiru hilabeterako aurreikusita zegoela, martxoaren 13an ospatzekoa zen *Tapoi Fest 9* ekimenaren barruan. Berrogeialdia hastear zegoela, baina,

liburu aurkezpena atzeratzea erabaki zuten.

Neurri bereziak

Kartzela Zaharrak egingo duen lehen ekintza publikoa da, eta zenbait neurri errespetatu behar dira: maskara erabili behar da, eta nork berea eraman behar du, osasun neurriak bermatzeko eserleku batetik bestera gutxienez 1,5 metroko tartea egongo da eta edukiera %50ekoa izango da. Parte hartzeko, dut-liburua@gmail.com helbide elektronikora mezua bidali behar da.



BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Aurrez aurreko eskoletara itzulera

14 urtetik gorako ikasleak astelehenean itzuli ziren eskola presentzialetara, eta datorren astelehenean aurrera 8 urtetik gorakoak ere. Bakarkako saioetan arituko dira, segurtasun neurriak betetzeko asmoz. Berriz elkartu eta eskola presentzialak jarraitzea "positiboa" izango delakoan, hilaren 26ra arte luzatuko dituzte eskolak.

IKA

- WEBSAILA -

Gaur egungo bizimoduaren arriskuak, sei kapitulotan



Ekainaren 26tik aurrera 'Ttap' aldizkarian ikusgai!

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN

Euskarazko aldizkari
digitala, deskargatu astero
zure mugikor edo tabletan

 **DESKARGATU**
Play Store-n

 **DESKARGATU**
APP Store-n



Eguneko Zentroko adineko bat eskuak garbitzen sarreran. MAIDER ARREGI

"Pozik" itzuli dira aste honetan Egunekeo Zentrorra

Astelehenean ireki ditu berriro atea Antzuolako Egunekeo Zentroak. Ekainaren 5ean onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalaren kontingentzia-plana. Hala, babes neurri zorrotzak hartu ditu zentroak, eta adinekoak bi gelatan daude banatuta

Maidar Arregi ANTZUOLA

Ia hiru hilabetez egon da Antzuolako Egunekeo Zentroa itxita COVID-19aren ondorioz. Alarma egoera indarrean jarri aurretik itxi zuen, ordea, Udalak bai Landatxope zaharren aisialdi-gunea eta baita ere adinekoen Egunekeo Zentroa, Eusko Jaurlaritzak hala eskatuta.

Joan den egubakoitz arratsaldean, Udaleko Gizarte Zerbitzuek aurkeztutako kontingentzia-plana onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hala, asteon, berriro ireki ditu atea Egunekeo Zentroak. Egoitzan 19 lagunendako lekua dagoen arren, zortzi adinekorekin abiatu dute zerbitzua. "Astelehenean, zortzi adinekorekin ireki zituen atea Egunekeo Zentroak; eguaztenean, beste lau hasi ziren; eta beste bik edo hiruk plaza gordetzeko eskatu dute, itzulera pixka bat luzatu nahi baitute; lauk, berriz, baja eman dute; eta bi eskaera berri jaso ditugu. Beste birendako ere lekua egongo litzateke,

beraz; izan ere, 19 lagunendako tokia du Antzuolako Egunekeo Zentroak", argitu du Puri Arregi Gizarte Ongizate zinegotziak.

Babes neurri guztiak

Hiru hilabeteren ostean, Foru Aldundiak Egunekeo Zentroa irekitzeko kontingentzia-plana eskatu zuen. Plana Udaleko teknikari Karmele Kortak egin zuen, eta, aipatu bezala, ekainaren 5ean izan zen onartua. "Dena aldatu behar izan dugu. Espazioa kontuan izan da, eta, zorionez, denendako tokia dugu eta ez da inor kanpoan utziko tokirik ez dagoelako zentroan. Lehen, mahai baten bueltan egoten ziren adinekoak. Orain, bakoitzak bere mahaia du eta distantziak man-

ADINEKOAK BI GELATAN DAUDE BANATUTA, BABES NEURRI ZORROTZAK BERMATZEKO

tentzen dituzte. Bata bestearengandik urrunago daude, baina aurrez aurre ikusteko moduan ere badute. Batzuk irrikan bazeuden bueltatzeko. Hiru hila-bete denbora luzea da eta faltan igartzen zuten hemen duten egonaldia. Egia da gustura egoten direla, eta aitortu didate pozik itzuli direla", adierazi du Puri Arregik.

Babes neurri zorrotzak bete behar dituzte adinekoek: maskarak une oro jantzita eta eskuak sarri garbituta. Oinetakoak sarreran garbitu behar dituzte. "Maskara eramatea ez da eroso euren dako, baina egia da pozik daudela berriro zentroak atea ireki dituelako". Egoitza bi zaitan banatu dute, planari jarraikiz. Asteon, antzuolarrak gela batean izan dira eta bergararrak beste batean. "Modu horretan, bertako langileei gauzak errazten zaizkie, eta, arauak eskatzen duen moduan, bi gelatan banatuta izanda, pilaketak saihesten dira".



Liburutegiko arduraduna liburuak antolatzen. M.A.

Liburutegia babes neurri zorrotzekin ireki dute asteon

Ikasteko gelak pertsona bakarrak erabili ditzake, eta liburutegia irekita dagoen ordutegian, gainera

Maidar Arregi ANTZUOLA

Liburutegi berrituak asteon ireki ditu atea. Itxura berriarekin egin du estreinaldia, baina babes neurriak zorrotz bete behar dira. Hala, haurrendako liburutegia itxita dago, oraingo, eta ikasteko gelak liburutegia irekita dagoen bitartean soilik erabili ahaliko dira, eta banaka.

Distantziak gordetzeko eta banan-banan sartzeko eskaera egin du Lierni Legorburu liburutegian: "Espazioa murriztuta geratu da eta mahai bakoitzean bi lagun jarri daitezke. Sarreran eskuak garbitu behar dira gela-

rekin, eta une oro maskara jantzita izan. Egokiena liburutegira banaka sartzea litzateke, adin txikikoak edo menpekotasuna dutenak salbu". 09:00etik 13:00etara dago irekita, baina telefonoz edo Whatsapez ere egin daitezke eskaerak. "Liburuak ahalik eta gutxien esku artean ibiltzeko helburuarekin, telefonoz egin daitezke eskaerak, 673 90 53 28 zenbakian. Gainera, kanpoaldean dagoen buzoian utzi daitezke entregatu nahi diren liburuak. Zazpi egunez utziko ditugu liburu horiek geldi", azaldu du Legorburuk.

GORA ETA BEHERA



HIRIX

Maskarak eta zikina, berriro lurrera

Ingurumen arazoaz haratago, maskarak eta zakarra lurrera botatzeak osasun larrialdiari bete-betean eragiten diola salatzen du herritar batek. Arduraz jokatzeko eskatu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

"Nire asmoen artean dago taldea uztea"

IBAI ZABALO ANTZUOLAKO KAPITAINA

16 urte zituenean hasi zen Ibai Zabaloren futbol ibilbidea Antzuola taldean, eta ordutik ez du taldez aldatu. Azken urteetan, lehen taldeko kapitain lanetan aritu da

Maialen Regueiro ANTZUOLA

Ibai Zabalo (Antzuola, 1991) 16 urterekin hasi zen Antzuolako futbol taldean jokatzeko, eta ordutik, bizipen zein esperientzia ezberdinak bizi izan ditu: jaitsierak, igoerak edota lesioak, besteak beste. Futbola uztekoan da Zabalo, oraindik behin betiko erabakia hartu ez duen arren. **Futbolari agur esateko ordua iritsi al da?**

Oraindik guztiz erabakita ez daukat, baina azken urteetan buruan daukadan zerbait da. Beraz, gauzak asko aldatu ezean, hurrengo urtean ez dut taldean jarraituko.

Azkenean uzteko erabakia hartzen baduzu, zein izango da arrazoia?

Urte asko egin ditut taldean, hainbat lesio ere izan ditut, eta, horien ondorioak nabaritzen ez badituz ere, lesio muskularrak eragin dizkidan, eta horrela, modu ezberdinean disfrutatzen dituzu partiduak. Horrez gain, taldea belaunaldi aldaketa jasaten ari da, jokalariek oso gazteak dira eta bakoitzak modu ezberdinean ulertzen du futbola. Orduan, futbola alde batera uzteko garaia iritsi zaidala uste dut.

Futbola uzteko erabakia hartzen baduzu, zein da aurrerantzean AKE-ekin izango duzun harremana?

Beti egongo naiz elkarte laguntzeko prest, baina uste dut kontrastu litzakeela entrenatzailer gisa hastea, esate baterako. Urte batean, behintzat, aldentzea gustatuko litzaidake; osasun mentalagatik, batez ere.

Hamarkada bat baino gehiago egin duzu Antzuolako taldean jokatzeko.

Halaxe da. Antzuolan zaila izaten zen futbol taldea sortzea, bertako gazteei Bergara edota Urolan jokatzeko eskaintzen zietenelako. Gauzak horrela, 16 urte nituela lehen taldearekin entrenatzen hasteko aukera eman zidaten eta handik urte batera hasi nintzen partiduak jokatzeko. Ordutik, ez dut taldez aldatu.



Ibai Zabalo, Lagun Onak taldearen aurkako partidu batean. KARLOS BALEZTENA

"IGOERAK ZEIN JAITSIERAK BIZI IZAN DITUT, BAINA IKASITAKOAREKIN GELDITZEN NAIZ"

Denetik bizi izan duzu futbolearen eta lesioak ere zure ibilbidearen parte izan dira.

Esperientzia asko bizi izan ditut, onak zein txarrak, baina urte hauetan guztietan ikasitakoarekin gelditzen naiz. Igoerak zein jaitsierak bizi izan ditut; alegia, gozamenerako zein sufritzeko uneak. Zoritxarrez, bi belaunaldi izan ditut lesioak, eta, horren eraginez, hainbat ebakuntza egin behar izan dizkidan. Zorionez, gaur egun, ez ditut lesio horien ondorioak igartzeko.

Aurten, mailari eutsi dio taldeak. Emaitzarekin pozik al zaude?

Egia esan, aurtengoa denboraldi arraroa izan da: gaizki hasi ginen; jardunaldi batzuetan, hobetzea lortu genuen; ondoren, okerrera egin genuen; eta, azkenean, koronabirusak sailkapeneko azken postuetan harrapatu gintuen. Zorionez, mailari

eutsi dio taldeak, eta horrekin pozik gaude.

Nola ikusi duzu taldea azken denboraldietan?

Taldeak izan duen bilakaera azpimarratuko nuke. Lehen, talde beteranoagoa zen, baina azkenengo urteetan jokalariek oso gazteak ari dira jokatzeko eta bizpahiru gara beteranoak. Hori, azken batean, igarri egiten da taldearen nortasunean, gehienbat partidua galtzen ari zarenean, pazientzia falta... Hala ere, gaitetasunak ere bere gauza positiboak eskaintzen dizkio taldeari; bizitasuna, esate baterako.

Zuen taldean nola hartu dituzue beste talde batzuetan hazitako jokalariek?

Beste talde batzuetan hazitako jokalariek futbola uztekoan egon dira, talde horietan jokatzeko ez zutelako, eta Antzuolan beste aukera bat eman diegu. Guk gustura hartzen ditugu jokalariek eta beraiek ere gustura aritzen direla esango nuke.

Nola ikusten duzu AKE?

AKE osasuntsu ikusten dut kirol arloan zein elkarte gisa. Izan ere, azken hamarkadan beste bide bat hartu du zuzendaritzak eta lan ona egin du.

Aurten udalekurik ez egiteko erabakia hartu du Udalak

Udalak zalantzak ditu hartu beharreko neurriekin eta udalekuak modu egoki eta seguruan egitearekin

M.R. ANTZUOLA

Antzuolako Udalak jakinarazi du COVID-19ak eragindako osasun larrialdiagatik eta bizi dugun zalantza eta baldintzazko egoeragatik aurtengo Antzuolako udalekuak bertan behera geldituko direla.

Udalak azaldu du udalekuak egiteko araudia aldatuz joan den arren, zuzurtzari eta prebentzioari eman diotela lehentasuna: "Zalantzak eta kezak ditugu zaindu beharreko neurriekin eta udalekuak modu egoki eta seguruan egitearekin, eta berau

izan da erabaki hau hartzearen arrazoi nagusietako bat". Gainera, ikasleen ikasturtea amaitu eta umeak udalekuetan elkartzea ez legoke "prebentzio eta zuzurtzariaren lerrokatuta", Udalaren ustetan.

Horrekin batera, udalekuen gune garrantzitsua izaten den eskolaren obra dela eta, eraikina ez dago bere osotasunean erabiltzeko moduan eta honek ere zaildu egin du udalekuek beharrezkoak dituzten baliabide eta jardueraguneen prestaketa eta antolaketa.



NIRE USTEZ

AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

Formula berriak

Eguerdiko hamabiak dira. Eguzkia bete-betean dago. Ez dago itzalik. Ez daukat kremarik, ez. Larruzala gorritzen ari zait. Kaka zaharra. Txaleko horidun boluntarioak. Bi metroko distantzia eserlekuen artean. Entzuleak. Maskarak muturrean. Bertsolariak. Txaloak.

Itxura hori hartu zuen duela bi aste gure herriko plazak. Hiru hilabetez kulturaren plaza fisikoak (ere) etenda egon ostean, entzuleak aurrez aurre zituztela bertsotan aritzeko aukera izan zuten Maialen Lujanbiok, Miren Amurizak eta Beñat Gaztelumendik. Plazan, lehenik; auzoetan, ondoren. Neurriak betetzeko omen daude. Kasu honetan, hala izan zen.

Ezohiko eszena bat izan arren, halako egitasmoek erakusten dute egin daitezkeela, eta horrelako ekimenak egiteko aukerak egon badaudela. Erakusten dute pandemia garaian ere bultzatu daitezkeela kultur plazak eta kultur gileak. Formula berriak aurkitzean dago gakoak, bertatik sor daitezkeen bide berriak eraikitzean.

Ei, bai, bizitzak hor jarraitzen du.

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Aurten, zaintza premiei bideratutako udalekuak

Uztailaren 6tik 31era eskainiko du Udalak, eta izango da zerbitzua eskaintzen den ordutegian unitate familiarreko gurasoak lanean dituzten 2001etik 2008ra bitartean jaiotako neska-mutikoendako. Izen-ematea zabalik da udaletxean, hilaren 26ra arte

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Urtero antolatzen den udako aisialdia ezinezkoa da aurten pandemiaren eraginez. Hala ere, ezinbesteko zaintza beharrei erantzuteko zerbitzua eskainiko du Udalak uztailaren zehar. "Plaza kopurua oso mugatua izango da, eta izen-ematearekin batera guraso edo tutore guztiak ordu tarte horretan lanean egongo diren ziurtagiria aurkeztu behar dute", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak.

Zerbitzua astelehenetik bari-kura bitartean emango dute, 09:00etatik 13:00etara. Plaza kopuruaren inguruan galdetuta, Lazkanok esan du aurreko urteetako herena inguru izango dela. Iaz, 86 neska-mutikok hartu zuten parte udaleku irekietan.

Beharra duten familiendako

Lau asteko zaintza zerbitzua izango da, eta ezingo da asteka izenik eman. "Eskatzen dugu zerbitzua erabiltzea bakarrik beharrezko kasuetan". Prezioa da 90 euro eta hobariak daude aurreikusita egoera ekonomikoaren arabera, baita bizikidetzaren unitateko bigarren haurrak izena emateagatik ere. "Ezarritako plaza kopurua gaindituz gero, plazen banaketan kontuan izango da familiaren egoera ekonomikoa, eta beharrezkoa izango da ziurtagiriak aurkeztea", azaldu du Lazkanok.

Zerbitzutik kanpo gelditzen dira, aurten, LH-5 eta LH-6 mailako neska-mutikoak. "Ratioak bermatu nahi ditugu, eta aurreko urteetako esperientziatik ikusten dugu adin nagusiagoko umeak apur bat autonomoagoak direla. Horregatik hartu dugu erabaki hori".

Talde oso txikiak eta eskolan

Taldeak oso txikiak izango dira eta herri eskolako eraikinean emango du zerbitzua Udalak. "Eskolak aukera ematen digu



lazio udalekuei amaiera emateko zirku emanaldia egin zuten umeek. L.Z.L.

AURREKO URTEETAKO PLAZA KOPURUAREN HERENA INGURU ESKAINIKO DU UDALAK

zerbitzua sektoreka antolatzeko. Talde bakoitzak ikasgela bat erabiliko du, eta ez dira elkarren artean nahastuko".

Ratioei dagokienez, hezitzaile bakoitzeko bost eta zazpi neska-mutiko aurreikusitak dituzte, adinaren arabera. Hezitzaileak Udalaren lan poltsatik kontratatuko dira.

Higiene protokoloa

Pandemia egoerara egokitutako higiene protokoloa ezarriko dela adierazi du alkateak. "Zorrotza izango da. Sarrerak eta irteerak, esaterako, hamar edo hamabost minutuko tartearekin egingo dira talde ezberdinetako neska-mutikoen elkarren arteko kontakturik ez edukitzeko. Puntualitatea, beraz, ezinbestekoa izango da. Eta helburua izango da ahalik eta ekintza gehienak aire zabalean egitea".

Eguraldia zerikusi handia izango du honetan, eta egun euritsueta talde txikietan antolatuta egoteak eta eskolak eskaintzen dituen ikasgela kopuruak aukera emango dute ekintzak aterpean ere egiteko.

Ardura handia

"Hilabete mordo goaz zerbitzua eskaini edo ez aztertzen. Gipuzkoako Foru Aldundiak bertan behera utzi zituen bere udalekuak. Hainbat udaleku berdina egin zuten gero. Orain, egin daitezkeela adierazi du Eusko Jaurlaritzak... Baina gauzak ondo egiteko irizpide asko hartu behar dira kontuan, eta ardura itzela da. Begiratu behar duzu zenbat gela eta zenbat hezitzaile dituzun, nahikoa baliabide duzun garbiketarako eta desinfektatzearako; izan ere, gauza guztiak behin eta berriz garbitu behar dira...", azaldu du Lazkanok. Hezitzaile bakoitzak koronabirusaren inguruko formazioa jaso behar duela zehaztu du alkateak, eta talde bakoitzarentzat programazio bat prestatu behar dela. Zailtasunak zailtasun, neska-mutikoen ongizatea izango da lehentasuna.



Hauteskunde-mahaia, Elgetan, iazko udal eta foru hauteskundeetan. L.Z.L.

Hautesleku eta hauteskunde-mahai bakarra uztailaren 12an

Neurri bereziak bete beharko dira, eta nola gauzatu aztertzen ari dira hautesleku prestatzeko arduradunak

L.Z.L. ELGETA

Pandemia egoera dela-eta osasun eta segurtasun neurri bereziak hartu beharko dira, baina Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan mahai bakarreko hautesleku bakarra izango da Elgetan. Orain arte moduan, udaletxean egongo da kokatua. Horrela azaldu du Elgetako hautesleku prestatzeko ardura izaten duen Juan Ramon Irazabalek. Berari ere horrela baieztatu diote. "Osasun neurri bereziak hartu beharko dira, eta jarraibideak aztertzen ari gara orain", azaldu du.

Osasun jarraibideak

Hartu beharreko neurrien artean aurreikusitak dira segurtasun tartearak uztea, horretarako lurrean markak egitea, maskara erabiltzea, sarreraren gel hidroalkoholikoa jartzea, eskuak sarri garbitzea zein erabilera handiko guneak sarri desinfektatzea. Hauteskunde-mahaia osatzen dutenen arteko segurtasun-tartea ere zaindu beharko da.

Posta bidezko botoa ere eska daiteke. EINren formularioa bete eta posta-bulegora eraman behar da uztailaren 2a baino lehen. Bertan ere bete daiteke.

Ekainaren 22ko astean zabaldu nahi dute Ozkarbi elkarteak

Zuzendaritzak ez du, oraingoz, data zehatzik ipini, baina jakinarazi dute lanean ari direla elkarte berriz ere zabaltzeko. "Segurtasun eta osasun irizpide guztiak ondo egin ahal izateko hainbat neurri hartu behar dira. Irekiera behar den bezala egiteko gure hornitzaileekin ari gara lanean". Horrekin batera, elkartearen segurtasun eta osasun baldintzak jasotzen dituen arautegi berri bat lantzen ari direla jakinarazi dute.

Zuzendaritzak lehenbailehen banatu nahi du informazioa bazkideen artean. Laster jasoko dituzte irekieraren ingurukoak zein arautegi berria, posta elektronikoz eta posta arruntez.

OHARRAK

Garagardo luntxa

Bihar, 18:00etan, Mediona azokarekin bat egingo dute Espaloitik, Baobeer-ek antolatuta. Hogei gonbidapen daude, eta doan dira. Eskaerak: 615 74 28 46 (Mikel).

Literatura solasaldia

Eguenean, 17:30ean, aurrez aurreko saioa, liburutegian. Osasun neurriak hartuko dira. Izena eman behar da.

Podologo kontsulta

Erretiratuendako kontsulta hilaren 22an, 15:00etatik aurrera, kultura etxean. Musukoa erabiltzea eta txanda hartzea beharrezkoak dira. Txanda hartzeko: 943 76 80 77 (Nati).



Xalbadorpe erretiratuen elkarteak deituta Kutxabank bulegoaren itxiera egunean egindako protesta ekitaldia. L.Z.L.

Kutxabank bulegoko erabiltzaileak, haserre

Erdibideko irtenbide bat negoziatzen saiatu dira bai erretiratu elkartetik bai Udaletik, baina banketxeko arduradunak ez dira iritziz aldatu. Martitzenean itxi zuten bulegoa. Aurrez aurreko arreta zerbitzua herritik kanpora bilatu beharko dute, orain, elgetarrek

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Sinadura bilketa, udalbatzak aho batez onartutako adierazpen instituzionala, erdibideko irtenbide bat topatzeko egindako ahaleginak... Ez dute emaitzarik eman. Erabakia hartuta zegoen, eta Kutxabankek martitzenean itxi zuten Elgetako bulegoa. Hamabost minutuko elkarretaratze

isilarekin erantzun zuten herritarrek; asko eta asko, erretiratuak. *Kutxabank bulegoa ez itxi* zioten kartelak eskuetan. Inguruko herrietako hainbat erretiraturak ere bat egin zuten protesta ekitaldiarekin. "Sei hamar-kadako elkarlana egon da Kutxaren eta elgetarren artean", esan zuten Xalbadorpe elkarte

kide Guadalupe Ibarbiak. "Elgetarrak leialak izan dira urte hauetan guztietan, aurrezkiak milioi askoko emaitzek bermatutako kaudimena duen erakunde bati fidatuz. Eta orain, alboratu eta kalean uzten gaituzte. Bakoitzak epai dezala banketxe honen portaera, eta joka dezala horren arabera".



OIHANA ELORTZA

Zapatuan bete ziren lau hilabete

Lau hilabete dira Zaldibarko zabortegea behera etorri zela. Zaldibarren, Zallan, Eibarren, Ermuan eta Markinan bezala, elkarretaratzea egin zuten Elgetan, Zaldibar Argitu plataformak deituta. Bertaratutakoek salatu zuten bi langileren gorpuek lur azpian jarraitzen dutela eta zabortegearen kudeaketaren ingurukoek argitzeke jarraitzen dutela oraindik ere.

Frontoia eta squash kantxa erabilgarri, astelehenetik aurrera

Pandemia egoeragatik itxi ziren biak martxoan, baina astelehenetik aurrera erabilgarri egongo dira. Baldintza izango da aurrez erreserba egitea, eta urte osoko erreserba eginda dutenek ordua mantentzeko aukera izango dute. Erreserbak Bolatoki tabernan egin beharko dira, eta tabernatik sartu beharko da bai squash kantxara bai frontoira. Aldagelak, sauna eta gimnasioa ez dira erabilgarri egongo.

Ordubetez erabili ahalko dira instalazio biak, eta, gehienez ere, lau lagunek batera. Erabilerarekin mugatua izango da; izan ere, frontoiko kiroletarako eta squasherako soilik egongo dira erabilgarri, oraingoz.

"Hitz politik entzun ditugu, eta besterik ez"

PEIO OJANGUREN
ERRETIRATUEN ELKARTEA

Behar dutenei laguntzeko prest agertu dira elkartetik.

Bulegoak zabalik segitzeko aukerarik bazegoen?

Hainbat bilera izan ditugu Kutxabankek arduradunekin eta bailarako erretiratuen babesa ere izan dugu aldarrikapen honetan. Hitz politik entzun ditugu, baina besterik ez. Bulegoa itxeko erabakia hartuta zegoen.



L.Z.L.

Kalte handia ekarriko du nagusiendako?

Asko dira herritik bakarrik mugitu ezin direnak edo gestioak Internet bidez egiten ez dakitenak. Horiekin zer gertatuko da orain? Laguntza eskatu beharko dute, eta autonomia galdu. Elkartetik gure esku dagoen guztia egingo dugu sor daitezkeen zailtasun egoerak bideratzen laguntzeko edo egon daitezkeen zalantzei eta kontsultei erantzuna ematen saiatzeko.

Kaltetu ugari

Elgetar askok igarriko dute bulegoaren itxiera: merkataritxiak, teknologia berriekin konpontzen ez direnak... Eguneroko arreta zerbitzua eman beharrean astean pare bat eguneko emateko eskaera ere egin dute herritarrek. "Hitz politik entzun ditugu, eta besterik ez", azaldu du Xalbadorpe elkarte arduradun Peio Ojangurenak. "Elgetatik kanpora joan beharko dugu orain zerbitzua jasotzera, eta herritar guztiek ez dute aukera hori. Internet erabiltzeko esaten

digute, baina bada jendea ideiarik ere ez duena".

Kutxabanketik diote elgetarrek gero eta gutxiago erabiltzen zutela bulegoa, eta banketxe bakarra izango dela Elgetan kutxazain zerbitzua ematen jarraituko duena.

EGUAZTENETIK ITXITA DAGO KUTXABANK BULEGOA ETA KUTXAZAIN BAKARRIK ZERBITZUA DAGO

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Maskarak lurrean, han eta hemen

Lau argazki bidali ditu irakurle batek. Maskarak ikusten dira lurrean. Telefono kabina ondokoa da hori. Salvador eta San Roke kaleko argazkiak ere bidali ditu. Ez da al lotsatzekoa?

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Zubikoa astelehenean eta gimnasioa 22an

Kirol instalazio guztiak ez dituzte batera zabalduko; hilaren 15ean, Zubikoako kirolguneak, Larrañako pilotalekua eta Azkoagain futbol zelaia irekiko dituzte. Hilaren 22an, berriz, Eltziko gimnasioa. Saio gidatuak uztailaren 1ean hasiko dira

Oihana Elortza OÑATI

Kirol eremuek datorren astean hasiko dute konfinamenduaren arintzea. Modu mailakatu zabalduko dituzte kirolguneak datozen bi asteetan, segurtasuna bermatzeko neurriak hartuta.

Neurriak hartuta

Horrela, Zubikoa kiroldegiko zerbitzuak izango dira erabili ahal izango diren lehenak. Datorren astelehenean, ekainak 15, zabalduko dute Zubikoako kirolgunea. Astelehenetik egin ahal izango da han: kantxa urdineko, tenis pistako zein pilotalekuko kantxak erreserbatu eta fit-bike eta pilates gelak erabili, biak monitorerik gabe. Aldagelak, komunak, takilak eta dutxak ere zabalik egongo dira. Baita bulegoa ere, informazioa eskatzeko edo tramiteak egiteko, adibidez.

Kirol espazioetako edukierak ere zehaztuta daude; adibidez, pilates gelan hamar lagun egon ahal izango dira, gehienez, eta fit-bike gelan, hamabost. Frontoia lau lagunek baino gehiagok erabili behar badute, eskaera egin behar da harreran. Garbiketa eta desinfekzio produktuak instalazioko gune ezberdinetan jarriko dituzte erabiltzaileentzako. Bestalde, egunean bi aldiz egingo da instalazioaren garbiketa: eguerdian eta zerbitzua ixterakoan. Horrez gain, baina, erabiltzaileei arduraz jokatzeko ere eskatu gura die Udaleko Kirol Sailak, eta hainbat eskakizun egin: eskuak garbitzeko eta desinfektatzeko, segurtasun distantzia mantentzeko, jardueran erabilitako materiala garbitzeko eta nork bere toalla eta botila ura eramateko, besteak beste. Gomendioen artean, etxetik kirol jantziekin joatea.

Gimnasioan, txandak

Azkoagain eta Larrañako pilotalekuak ere astelehenean za-



Hainbat ume kantxa urdina erabiltzen joan den urtean. GOIENA

KIROL TXARTELAK EZ BADU JARRAITZEN, IGERILEKUAK ERABILTZEN UZTEKO ESKATU DU UDALAK

balduko dituzte, eta Zubikoan ezarritako arau berak aplikatu dituzte bi gune horietan.

Larrañaren kasuan, Zubikoan egin beharko da frontoia erreserbatzeko eskaera. Azkoagainen erabilera nola egin, berriz, Aloña-Mendi kirol elkarteko futbol sailak erabakiko du; taldeko zein banakako entrenamenduak antolatu ahal izango ditu Udalen baimenarekin.

Eltzian egokitutako gimnasioa hilaren 22an zabalduko dute. Hiru gelatan antolatu dute gimnasio hori eta zortzi eta hamabi erabiltzaile artean egon daitezke batera, kasuan kasu. Kiroldegietako harreretan egin ahal izango den txandaren erreserben bidez joan ahal izango da gimnasia abonatu. Egunetik egunera egin ahal izango da erreserba, eta, erabilera egin ondoren, hurrengorako eskaera

egun bat pasa ondoren egin ahal izango da. 13:30etik 15:00etara itxi egingo dute, garbitu eta desinfektatzeko.

Kirol txartela, zalantzan

Aurten aukera egon da kirol txartela ateratzeko eta horrekin Debagoieneko beste kiroldegietako hainbat zerbitzu erabiltzeko. Berez, sei hilabeterako zen hasiera bateko erabilpena. Mankomunitateak oraindik ez du erabaki txartel horrek jarraipena izango duen edo ez, baina Oñatiko Udalak eskaera egin die Arrasateko, Aretxabaletako, Bergarako eta Eskoriatzako udalei beraien kiroldegietako igerilekuetako zerbitzua erabiltzen uzteko. Oraindik ez dute erantzunik jaso.

Usako eta ur txorrotak

Bestalde, Udala lantzen ari da Usakoren erabilpena udarako. Baita ur txorrotaren gunearena ere. Udan herritar asko erakartzen dituen guneak dira biak, baina trataera ezberdina dute eta biak ari dira lantzen; hau da, noiz zabaldu ahal izango dituzten eta zein neurri hartu beharko diren, besteak beste.



Kanpainaren aurkezpena egiten martitzen eguerdian. U.I.

Hirugarren sektorearen aldeko kanpaina abiatu du Udalak

Eskuorriak, hedabideetarako euskarriak eta negozioetarako eta Herribuserako biniloak egin dituzte

O.E. OÑATI

Herritik zuztarrera, zuztarretik herrira du izena hirugarren sektoreko langileen aldeko kanpainak. Helburua da herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko negozioak sustatzea koronabirusaren pandemiak eragindako egoera gogorari aurre egiteko. Ostalarien eta zerbitzu sektorekoen lana aitortzeko ere izango dela gaineratu du Sozioekonomia zinegotziak, Xabier Igartuak.

Funtsean, publizitate-kanpaina izango dela zehaztu dute, eta horretarako hainbat euskarri

erabiliko dituzte: etxeetan banatuko dituzten eskuorriak, hedabideetarako euskarriak eta negozioetan eta Herribusean itsasteko biniloak egin dituzte. Hamabost egun iraungo duela azaldu du zinegotziak eta, guztira, 8.000 bat euro bideratu dituztela kanpainara, 500.000 euroko funtsetik.

Zinegotziaz gain, Enplegu udal teknikaria, Unai Kortabarría, eta pare bat merkataria ere izan ziren kanpainaren aurkezpenean. Dendariak "pozik" agertu ziren Udala eskaintzen ari den laguntzarekin.



NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Otsoaren hozkada

Oraingoan, otsoa etxe barrura sartu zaigu, hozka egin digu eta zauritu egin gaitu. Zauriak odolatan oraindik sakonak dira, mingarriak; ahaztezinak, beharbada: maitearen heriotza, langabearen etsipena, gaixoaren ahuldadea, askoren bakardadea, guztion ziurgabetasuna...

Historiari begiratuta, badakigu pandemia aldiaren behin gertatzen den hondamendia dela. Gure arbasoek ere bizi izan zuten esperientzia da. Orduan, zientziarik ez eta, Jainkoaren haserrean aurkitzen zuten pandemiaren zergatiak.

Gaur, zorionez, pentsamendu magikotik urrunduta, gaixotasun honen zergatiak zientziari eskatuko dizkiogu – pangolin eta saguzarrean begira dabilzala jakin dugu –, baina galderak eta bilaketak, lehen bezala orain ere, bizirik jarraitzen dute; begiratu bestela berrogeialdian sortutako abesti eta idatziek esaten dutena: zergatik batzuek asko eta besteek hain gutxi? Zergatik gizatasun falta? Zergatik entregatzen diogu gure bihotza hondarrezko gaztelu ederrei? Jainkoa ona bada, zergatik horrenbeste sufrimendu?...

"Oso liga polita da Hirugarren Mailakoa"

ASIER UGARTE ANAITASUNA FUTBOL TALDEKO JOKALARIA

2000n Aloña Mendiko infantil mailan hasi eta denboraldi berrian ere jarraitzeko asmoa du Asier Ugarte oñatiarrak. Hirugarren aldiz jokatuko du Hirugarren Mailan

Oihana Elortza OÑATI

Disfrutatu egiten du futbolean jokatzen Asier Ugartek (Oñati, 1988), eta horretan saiatzen da. Datorren denboraldian Hirugarren Mailan jokatuko du, Azkoitiko Anaitasuna taldearekin. **Hirugarren Mailara.**

Bai; pozik. Hirugarren aldiz jokatuko dut maila horretan. **Ezagutzen duzu Hirugarren Maila. Nolakoa da?**

Oso liga polita da. Euskal liga bat da, Bizkaiko eta Arabako taldeen aurka ere jokatzen duzu, maila handiko taldeak daude... **Anaitasunarekin jokatu zenuen maila horretan azkenengo aldiz. Zenbatek errepikatuko duzue?**

2009-2010 denboraldian Eibarrekin jokatu nuen eta 2012-2013an Anaitasunarekin. Orduan taldekide, jokalaria, izan nuena entrenatzailea da orain, Xabier Artetxe. Gu biok izango gara, akaso, bakarrak.

Nolako taldea da Anaitasuna?

Oso gustura nagoen taldea da. Ez dut arazorik izan, jokatzeak aukerak izan ditut; disfrutatut gura izan dut, eta konfiantza horrekin jokatu dut. Taldean ez ezik, herrian ere, Azkoitian, ondo hartu naute; oso gustura nago.

Futbola utzi ere egin zenuen, baina berriz bueltatzea erabaki zenuen gero. Futbol-mina?

Gustatu egiten zait futbolearen aritza eta disfrutatzea. Urtebetez utzi nuen eta tarte hartan bakarkako kirolak egiten hasi nintzen, baina ez da gauza bera, ez nengoen eroso.

Eta buelta Aloña Mendira.

Bai, 2017-2018 denboraldian. Denboraldi ona ari ginen egiten, baina ez genuen igotzea lortu; gogorra izan zen igoera. Anaitasuna taldera joateko aukera izan nuen, eta hartu.

Orduan ez, baina aurten igo da mailaz Aloña Mendi.

Oso albiste pozgarria izan da. Azken urteetan entrenatzaileek



Ugarte baloiarekin Oartzunen kontrako partiduan. A.U.

"URTEBETEZ UTZI NUEN FUTBOLA, BAINA BAKARKAKO KIROLETAN EZ NENGOEN EROSO"

lan handia egin dute. Uste dut hori dela Aloña Mendiren maila, ohorezko erregional maila. **Berdin jokatzen da Aloña Mendin eta Anaitasunan?**

Ez. Oñatiko taldean baloia luze botatzen da eta Azkoitikoan, esaterako, atezainetik hasita, baloia edukitzea gustatzen zaie. **Jokatzen beste disfrutatzen duzu ikusten? Edo sufritu?**

Ez; egia esan, ez dut sufritzen Lehen Mailako taldeen emaitzekin. Ligako partiduak baino gehiago kanporaketak eta finalak gustatzen zaizkit, jokoa ikusgarriagoa izaten da horrelakotan, ikuskizuna politagoa izaten da. Baina, egia esan, ez dut futbol askorik kontsumitzen.

Biasterin diharduzu irakasle. Nola uztartu dituzu Biasteri, Oñati eta Azkoitia?

Ba, egia esan, nahiko kezkatuta ibili nintzen hasieran, lana Bias-

terin izango nuela jakinda. Baina Anaitasuna taldean komentatu nuen eta erraztasunak baino ez dizkirate jarri. Euren bitartez, Realak Logroñon lagun duen talde batekin entrenatu naiz aste barruan, Berceo taldearekin. Astea Biasterin egiten dut eta egubakoitzetan Azkoitian entrenatu, eta asteburuetan partidua Anaitasunarekin.

Datorren urtean ere horrela jarraituko duzu?

Ba, oraindik ez dakit non egongo naizen irakasle, baina toki berean jarraitzen badut antzera samar ibiliko naizela uste dut, nahiz eta taldekideekin entrenamendu gehiago egitea gustatuko litzaidakeen.

Eta futbolean, noiz arte?

Kar, kar, kar ba, ez dakit. Beste denboraldi bat egiteko dudak izan ditut, baina Hirugarren Mailara igotzeak motibatu egin nau eta jarraitzea erabaki dut. Datorrenean, auskalo. Barruko harrak esango du.

20 urte edo gehiago futbolean; ze ikasi duzu esperientzia horretatik? Beti aurpegi ona jarri behar dela. Futbola disfrutatzeke dela, jokoarekin eta lagunekin, errespetuz, umorea aldatu barik.

Irakurri eta ikasi ere egin daiteke orain udal liburutegian

Hirugarren fasean zerbitzu horiek baimendu dira eta Oñatiko udal liburutegian hasi dira eskaintzen

O.E. OÑATI

Konfinamenduaren aritze prozesuaren hirugarren fasean sartu gara aste honetan, eta liburutegietako zerbitzuak gehitzea baimentzen du fase horrek. Horrela, posible da liburutegietan irakurtzen egotea, ikasteko tokia hartzea eta bertako ordenagailuak erabiltzea.

Dekretuak hori jaso arren, udal bakoitzari dagokio gero baimen horien aplikazioak noiz eta nola eskaini. Oñatikoak aurrez zituen lanketa guztiak egin da eta aste honetan bertan hasi

dira hiru zerbitzu horiek eskaintzen. Hori bai, maskara edo musukoa jantzita sartu behar da liburutegira eta eskuak garbitu behar dira sartzera.

Bestalde, aurretik egin zuten egitarauarekin aurrera jarraitzen dute liburutegian, eta, adibidez, eguaztenean, ekainak 18, Amets Arzallus etorriko da *Miñan* liburua aurkeztera, 19:00etan; ondoren, solasaldia egongo da. Zinema aretoan izango da aurkezpena eta, edukiera kontuagatik, aurrez hartu behar da txartela, udal webgunean.

Datorren urterako matrikulazioa zabalik dute musika eskolan

Jose de Azpiazu musika eskolak zabalik du ikasturte berrirako izen ematea. 2-3 urte bitarteko umeetatik hasi eta musika ikasi gura duen edonork eman dezake izena. Astelehena, ekainak 15, da izena emateko azken eguna. Interesa duenak Internet bidez egin behar du, musika eskolako webgunean sartuta: www.jazpiazumusikaeskola.com.

Abenduan egingo dituzte kaligrafia topaketak

Uztailean ziren egitekoak Arantzazun egin ohi dituzten kaligrafia topaketak, baina abenduan egingo dituzte, COVID-19aren eraginez. Seigarren urtez egingo dituzte eta Allan Daastrup eta Oriol Miro kaligrafoak izango dira aurtengo irakasle gonbidatuak. Aurrekoak bezala, aurtengoak ere Gandiaga Topagunean izango dira.

GORA ETA BEHERA



A.A.

Autoak espaloi gainetan aparkatuta

San Lorentzoko bizilagun baten kexa da auto asko egoten direla aparkatuta espaloi gainetan, "sarri, gainera", eta oinezkoendako zein aulki gurgilduneari doazenendako oztopo izaten direla.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Ohiko Corpusik ez domekan

Aurten ez da Corpus Egunik ospatuko herrian; baina domeka eguerdian meza egingo dute, eta dantzariak elizan egingo dute dantza. Jarraian, Musika Bandak kontzertua eskainiko du Lazarragan. Ostalarientzat lan handiko eguna izango da domekakoa

Maialen Santos OÑATI

Koronabirusaren krisiaren ondorioz aurten ez da Corpus Christi Egunik ospatuko Oñatin; ez, behintzat, ohiko moduan. Prozesiorik ez dute egingo, baina elizkizun nagusia mantendu egingo dute. Aurten, baina, 12:00etan izango da meza nagusia, San Migel parrokiaren normalean, 11:00etan izaten da. Dantzariak, ohiko moduan, dantza egingo dute mezetan, Aita Madina taldeko txistulariez lagunduta. Corpusetako figura nagusiak, San Migelek, ez du parte hartuko aurtengo ospakizunean; herrian dauden hamabost santuetatik bi soilik izango baitira elizan: Mikel Aozaraza oñatiarra eta Errosarioko Ama.

Mezaren ostean, Musika Bandak kontzertua eskainiko du Lazarraga lorategian, 13:00etan. Bandako arduradunetako batek, Iñigo Ugartek, GOIENARI azaldu dionez, "ezohiko" kontzertua izango da: "Corpus egunean udaletxe azpian jotzen dugu: aurten, Lazarragan izango gara". Gaineratu du guztira lau pieza joko dituztela: *Euskeria*, *Barberillo de Lavapiés*, *American Graf-*

fiti eta egun horretako propioa den Corpus Eguneako *Zortzikoa*. Azken hau txistulariekin batera joko dute, gainera. Eurria egingo balu, kontzertua "bertan behera" geratuko litzateke, baina, kasu horretan, plazako arkupeetan joko lukete piezaren bat: "Ez, ordea, kontzertu osoa".

Horren aurretik kalejira ere egingo dutela azaldu du Ugartek, 10:30ean plazatik hasita. "Lauko ilaretan beharrea, hiruko ilaretan joango gara; segurtasun neurriak errespetatze aldera", zehaztu du. Entseguei buruz galdetuta, asteon egin dituzte bi saio, biak ere elizan: "Entsegu lokalean ez dugu distantziak mantentzeko adina leku".

Sarrerak, agortuta

Elizkizunerako eta Musika Bandaren kontzerturako ere edukiera mugatu egin du Udalak.

AGORTUTA DAUDE MEZA NAGUSIRAKO ETA BANDAREN KONTZERTURAKO SARRERA GUZTIAK

Elizan 400 pertsona egon ahalko dira, gehienera jota –eta horietako 100 izango dira kofradiakideak, dantzariak, koruko kideak...-. Lazarragan, bestalde, 250 pertsona sartu ahal izango dira, eta denek "eserita" egon beharko dutela azaldu du Iñaki Olalde Kultura zinegotziak.

Mezarako zein kontzerturako edukiera kontrolatzeko sarrerak jarri dituzte eskuragarri asteon, dohainik. Txokolateixan ilarak sortu ziren martitzen goizean horiek lortzeko, eta arratsalderako agortu egin ziren batzuk zein besteak. *Oñati.eus* webgunean jarritako sarrerarik ere ez da geratzen.

Goiena telebistan, zuzenean

Ospakizunaren harira, corpusen gainera *Hemen Debagoiena* saio berezia eskainiko du Goiena telebista gaur, egubakoitza, 18:00etan–20:00etan eta 22:00etan errepikatu egingo da. Santa Ana aretotik zuzenean izango da Txomin Madina aurkezlea, gonbidatu ezberdinekin. Elkarriketak eta erreportajeak ere eskainiko dituzte, baita 1991. urteko Corpus Eguneako irudiak



San Migel eta Apostoluak, iazko prozesioan zehar. GOIENA

ere. *Goiena.eus* webgunearen bitartez ere jarraitu ahal izango da saio berezia.

Horretaz gain, Corpus Eguneako meza nagusia ere zuzenean eskainiko du Goiena telebista, domekan, 12:00etan. Errepikapenak 18:00etan eta 22:00etan eskainiko dituzte. Meza *Goiena.eus* bidez jarraitu ahal izango da.

XV. mendea ezkerro, tradizio

Corpus Christi Egunik ospatuko ez den lehen urtea izango da honako hau. Aipatzekoa da Corpus Eguna atzo, eguna, izan

1470. URTEKO DOKUMENTU BATEK JASOTZEN DU GARAI HARTAN OSPATZEN ZIRELA CORPUSAK

zela berez, baina azken hamar kadetan domekan egiten dira horren bueltako ospakizunak. Egunean bertan ere egin ohi dute meza berezia, baina aurten ez dute horrelakorik egin.

Prozesioa domekan baina ezohiko eran egin zuten bi data ere badira: 1972. eta 1997. urteetan elizatik ezin izan zen irten prozesioa, eta barruan egin behar izan zuten; euria ari zuelako.

Jerardo Elortza historialariak GOIENARI azaldu dionez, Corpus Eguna "aspalditik" ospatzen da Oñatin: "Badago 1470. urteko dokumentu bat, zeinetan Corpus Eguna aipatzen den". Azaldu du ziur aski XIII. mendean ere ospatuko zela egun hori, nolabait. Hala ere, kofradia sortu zenean hartu zuen "indarra", 1550. urtearen inguruan. Hain justu, Erroman zegoen *La Minerva* ko-

CORPUS EGUNEKO MEZA ZUZENEAN

GOIENA TELEBISTA

EKAINAREN 14AN, DOMEKAN, 12:00ETAN
(ERREPIKAPENA 18:00ETAN ETA 22:00ETAN)

goiena
20 URTE ZUEKIN.



fradiatik sortu zen gerora Oñatikoa. Mende batzuk geroago, 1960ko hamarkadan, "galtzeko arriskuan" egon zen prozesioa: alde batetik, santuak eramateko "andari falta" egon zelako; eta bestetik, Eliza barruan "krisia" egon zelako. Elortzak azaldu du trantsizio denborara arte "larri" egon zela prozesioa; izan ere, 70eko hamarkadan, horren kontrako "mugimendu txiki batzuk" sortu ziren. 80ko hamarkadatik aurrera, baina, jende gaztea hasi zen Corpusen gaineko antolaketa lanetan, eta, beraz, indarra hartuz joan zen berriro.

Bestalde, historialari oñatiarrek azaldu du Corpus Eguna penintsulako zein Euskal Herriko toki askotan ospatzen dela, ez bakarrik Oñatin, eta Corpus Egunaren berezko filosofia "Eukaristia publiko egitea" izan zela; hots, kalera eramatea. Prozesioa "garaira egokituz" joan dela uste du: "Esaterako, lehen, gizonetakoak izaten ziren apostoluak; gerora hasi ziren emakumeak ere apostolu janzten". Aitortu duenez, dantzek "betidanik" izan dute garrantzia corpusetan –elizan zein prozesioan– eta antzina dantzariak "beste herri batzuetatik" etortzen zirela azaldu du. Azken hamarkadetan, baina, herriko Oñatz Dantza taldeak hartu du toki hori, eta taldeko arduradun Jesus Irizar *Txutxin*-ek azaldu duenez, 1972az geroztik egiten da elizan dantza. Oñatzekoentzat, gainera, "indar handiko" asteburu izaten da honako hau, asteburu osoan aritzen baitira herriko kaleetan zehar. Egubakoitz arratsaldean ekiten diote dantzari, herriko ikastetxeetan. Zapatuan herrian zehar aritzen dira Oñatiko Corpus dantzak egiten, eta domekan, bestalde,



Musika Banda, asteon parrokiaren egin duten entsegetako batean, Corpus Egunerako piezak entsetzen. IÑIGO UGARTE


goizean elizan eta prozesioan aritzen dira; eta arratsaldean, azkenik, plazan.

Herritarren jai kuttuna

Herriko jai nagusiez aparte, herritarrentzat esangura berezia duten jaiak dira corpusak. Domekan dotore janzteko ohitura dute askok, eta eguerdiko poteoa eta senideekin bazkaria egitea ere ohikoa izaten da herrian. Zenbait komertzio eta negozio-tan ere hitzordu garrantzitsua izaten da honako hau. Bizipoz kafetegian, esaterako, "oso lanpetuta" aritzen dira domekan, Markel Irizar bertako arduradunak azaldu duenez. Txopekua jatetxeko Jesus Arsuaga arduraduna ere iritzi berekoa da, eta dio aurtengo "goraino beteta" izango dutela jatetxea. Izaskun Olabe, bestalde, IO ile-apaindegiko arduraduna da, eta, bere hitzetan, aurtengo ez du ohi baino hitzordu gehiago eman ilea atontzeko, "ziur aski, corpusak ez direlako ohi moduan ospatuko".

Era berean, asko dira herritik kanpo bizi eta corpusetan etxera itzultzen direnak. Imanol Galdosen kasua da hori. 25 urte daramatza Donostian bizitzen, eta corpusetan "urtero" herrira itzultzen dela aitortu du: "Asteburu osoa egiten dugu Oñatin emazteak, seme-alabek eta laurok". Prozesioa ikusi eta senideekin bazkaltzeko ohitura dute galdostarrek, eta dio urterean batean "kale" egin badu ere ez duela horren oroitzapenik. Bestalde, azaldu du emazteak ere "oso gustuko" dituela Oñatiko Corpus jaiak, eta berarentzat ere urteroko "hitzordu berezia" direla. Hala ere, "osasu krisia eta kontu pertsonalak medio", Galdos eta familia aurtengo ez dira corpusetan herrira itzuliko.

Nola bizi dituzue aurtengo corpusak?



IZASKUN OLABEA
IO ILE-APAINDEGIA

"Jendeak ez du hitzordu berezirik hartu"


"Aste honetan ez dugu izan corpusetara begirako hitzordu berezirik ile-apaindegian. Jendeak ez du ilea atontzeko nahi berezirik erakutsi; ziur aski, Corpus Egunik bere horretan ez delako ospatuko. Hala eta guztiz ere, hitzordu asko izan ditut asteon; izan ere, konfinamenduak iraun duen bitartean itxita izan dugu ile-apaindegia, eta, beraz, sortutako itzarote-zerrenda luzea estaltzen aritu gara azken asteetan, baita honetan ere".



MARKEL IRIZAR
BIZIPOZ KAFETEGIA

"Bazkarietarako gozoak enkargatu dizkigute"

"Corpusetako domeka lan handiko eguna izaten dugu Bizipoz kafetegian. Jende asko etortzen da eguerdiko poteoan. Horretaz gain, eskari asko jaso ditugu aste honetan zehar, corpusengatik; batez ere, pastelak eta pastak enkargatu ditu jendeak domekarako. Koronabirusagatik, agian, jende asko etxean geratuko da, eta familiarekin bazkalduko du. Hitzordu berezi horietarako eskatu dizkigute gozoak zenbait oñatiarrek".



JESUS ARSUAGA
TXOPEKUA JATETXEA

"Jatetxea goraino beteta izango dugu domekan"

"Domeka eguerdian goraino beteta izango dugu Txopekua jatetxea. Erreserba asko eginak genituen aspalditik, eta, batzuek atzera egin duten arren, beste askok deitu digute asteotan. Beteta egon arren, egunero jasotzen ditut deiak, leku eske. Jendea familian edota kuadrillan etorriko zaigu. Talde handiren bat izango dugu, 10-15 pertsona ingurukoa, eta, bestalde, gurean bazkaltzen izango diren talde txikiak ere asko izango dira".



*Oñatiko Corpusak:
gozatu ditzagun
gestukoekin!*




OÑATI
dabilen herria



Oñatz dantza taldeko dantzariak San Migel parrokiaren, txistularien laguntzaz corpusetako dantzak entseatzeko. ARGAZKIAK: M.S.

Parrokiak hartuko ditu dantzariak eta txistulariak

Oñatz dantza taldearen 50. urteurrenaren baitako Corpus Eguna "berezia" izango da. Prozesioaren faltan, dantzariak eliza barruan arituko dira, ezinbestean. Aita Madina taldeko txistularientzat ere hitzordu garrantzitsu bezain kuttuna izango da domekakoa




JOSU AGIRRE
ALEMANIAN BIZI DEN
DANTZARI OHIA

"Corpusetako oroitzen oso onak ditut. Entsegu asko eta lan handia dago horien atzean, eta aurren bereziak izango dira".



SAIOA QUINTAS
BARTZELONAN BIZI DEN
DANTZARI OHIA

"Jai bereziak dira corpusak. Ahal izan dudan guztietan joan naiz Oñatira, baina aurren ere zingoz dut dantzez gozatu".



JOXEBA AGIRRE
ESLOVAKIAN BIZI DEN
TXISTULARI OHIA

"Corpusak beti bizi izan ditut barru-barrutik. Gogoan dut asteburu osoa aritzen ginela kalez kale txistua jotzen".

Maialen Santos OÑATI

Corpus Eguneko prozesioaren faltan, Oñatz dantza taldeko dantzariak elizan bakarrik arituko dira aurren. Eukaristiaren bedeinkapenaren ostean banakoa dantzatuko dute, eta gero, Aita Madina taldeko txistulariek *Agur Jaunak* kanta joko dute. Oñatz dantza taldeko arduradun Jesus Irizar *Txutxin*-ek azaldu duenez, amaieran ere egingo dute dantza: "Zortzikoa dantzatzu denak batera joango dira sakristiara".

50. urteurrenaren baitan

Oñatz dantza taldearen 50. urteurrena ospatzen ari dira aurren, eta, horren harira, corpusak ere "bereziak" izatea gura luke taldekoek. Osasun krisiak, baina, aurreikuspenak bertan behera utzi ditu, eta elizan dantza egitearekin "konformatu" beharko dutela adierazi du Irizarrek. Hala eta guztiz ere, aurtengo corpusak "ezohikoak" izan arren, berezitik ere izango dutela uste du Mikel Biain dantzariaren kapitainak –dantzari urdina–. Berak aitortu duenez, elizan ere igartzen dute tentsio puntu bat: "Eskaileretan aldarera begira gaudenean, elizako begirada guztiak izaten ditugu gainean". Alazne Agirre dantzaria hirugarrenez ari da corpusetarako entseatzeko, eta "gogotsu" azaldu da aurtengoetarako. Oñatzeko emakumezkoek duela hiru urte dantzatu zituzten lehenbizikoz Oñatiko Corpus dantzak, eta aurren ere dantzan aritzeko "gogotsu" azaldu da. Aitortu duenez, herrian zein taldean "ondo" hartu dituzte emakumezkoak, eta gaur egun bereizkeriarik egin gabe egiten dute dantza: "Dagoeneko ez gara emakume edo gizonezko dantzariak; Oñatzeko dantzariak baizik".

Dantzariak euren lana egin dezaten, ezinbesteko dituzte Aita Madina taldeko txistulariak. Azken hauen egutegian ere Corpus Eguna ez da edonolokoa, Lander Diaz de Gereñuren iritziz: "Urteko hitzordu garrantzitsuenetakoa dugu honako hau". Bide batez, eskerrak eman gura izan dizkie aurtengoak antolatzen aritu direnei: "Lan handia egin dute, herriak bere jai kuttuna ospatzeko aukera izan dezan".

XV. mendea ezker dantzan

XV. mendean ere egiten ziren Corpus dantzak, "dokumentu batek jasotzen baitu dantzariak eta txistulariak ordaindu egiten zirela". Azken ehun urteetan dantzak ez dira aldatu; bai, ordea, jantziak. Txapela duela 150 urtekoa da, eta gorbatak eta prakak garaira "egokituz" joan dira.

Taldearen "nortasunaren parte" dira Corpus dantzak; horiek mantendu eta "belaunaldiz belaunaldi" transmititzea dute helburu. Dantzok munduari bira eman diote azken 50 urteetan; Poloniara, Belgikara, Kroaziara, Ameriketako Estatu Batuetara... eraman dituzte dantzariak.



Aita Madina txistulari taldea.



Su ere oñatiarrekin!

ZOTZ • ONGI • GAROA

AKER • BIZIPOZ • HELMUGA

URTIAGAIN • TXOPEKUA • BOGA

Kofradiakideak prest dira ezohiko corpusetarako

Inoiz baino prestaketa lan gutxiago ari dira egiten; baina ziurgabetasunez ari dira bizitzen Corpus aurreko egunak. Elizkizunean hartuko dute parte kofradiakideek, eta elizan izango dira hamabost santuetako bi: Mikel Aozaraza eta Errosarioko Ama



Kofradiakideetako lau, kapa beltza soinean dutela. JAGOBA DOMINGO



San Jose santuaren irudia, datorren urterako gordeta dagoela. JAGOBA DOMINGO

Maialen Santos OÑATI

Corpus Eguneko atal garrantzitsua da kofradia. Aurtengoan, ezin izango dira prozesioan irten, baina elizkizunean izango dute tokia kofradiakideek. 50 pertsona inguruko taldea osatzen dute; eta Santa Anako mojak ere kofradiaren parte dira. Azken hauek arduratzen dira corpusetako arropak garbitu eta konpontzeaz.

Corpus Eguna iritsi aurretik batzarra egin ohi dute kofradiakideek, andariek, katekistek... eta egun berezarako "guztia prestatzea" da helburua. Aurten, ordea, prestaketa lan gutxiago beharko direla azaldu du Josu Amondarain kofradiakideak: "Aurtengo antolaketa zailagoa izango da, ezohikoa izango delako". Gaineratu duenez, beste urte batzuetan "lan gehiago" egin behar izaten dute; halere, badakite zeintzuk diren "jarraitu beharreko urratsak", eta, beraz, "erraz" egiten dutela dio. Manu Egaña kofradiakideak azpimarratu gura izan du corpusak fedearekin esperientzia bat direla, "espiritualtasuna bizitzeko beste era bat".

Elizan, soilik bi santu

Prozesioan 15 santuk hartu ohi dute parte. Horietako batzuk San Migel parrokiaren edo auzoe-

tako ermitetan gordetzen dituzte. Hiruzpalau, ostera, jendearen etxeetan egoten direla azaldu du Luis Mari Aranburu kofradiakideak. Santuen irudiak estalita izaten dituzte, "hondatu ez daitezen", eta corpusak iritsi aurretik zenbait ordezkarri edo andari arduratzen dira prestaketa lanak egiteaz: "Irudiak janzten dituzte, andak eta makilak jarri, eta baita loreak ere". Osasun krisiaren eraginez, baina, santuek beste urtebete itxaron beharko dute euren gordeleketan; izan ere, San Migel parrokiaren gordeta dauden bi santuk soilik hartuko dute parte aurtengo corpusetan. Amondarainek azaldu duenez, Mikel Aozaraza santu oñatiarra izango da horietako bat: "Urtea elizan pasatzen du, bere kaperan. Eta, gainera, estaltzen ez den irudi bakarra da, bistan dago beti". Errosarioko Amak ere parrokiaren du gordeleku, eta bertan izango da domekan. Hala eta guztiz ere, Corpus Eguneko figura nagusia, San Migel, ezin izango dute atera, "segurtasun neurriak errespetatu daitezen".

Corpusen ostean, konponketak

Corpusen ostean, kofradiakideak arduratzen dira santuen jarraipena egiteaz: "Bateren batek konponketa behar badu, Gasteizko tailer batera bideratzen dugu". Hain justu, koronabirusak bertan harrapatu du Mikel Aozarazaren anda, konpontzen. 1990az geroztik urtero bidaltzen dute santu bat, berritu dezaten.

Aste Santuko ospakizunen antolaketan ere hartzen dute parte kofradiakideek. Ez hori bakarrik: taldeko kideren bat zein moja bat hiltzen den bakoitzean, hileta elizkizunean hartzen dute parte kofradiakideek.



J.A.

"Lan gutxiago dugu, baina zailagoa"

JOSU AMONDARAIN
KOFRAKIAKIDEA

Corpusetako atal garrantzitsua da kofradia, eta dagoeneko domekara begira jarrita daude.

Noiztik hartzen duzue parte Corpus Egunean?

1650. urterako bazegoen kofradia. Prozesioan parte hartzen, berriz, orain dela 200 edo 300 urte hasiko ziren.

Zein prestaketa lan egiten dituzue?

Irudietako asko atontzen eta janzten ditugu Corpus Eguna begira.

Eta prozesioaren ostean?

Jarraipena egiten diegu irudi eta andei; Gasteizera bidaltzen ditugu, zerbait konpontzeko badute.

Nola bizi dituzue aurtengo corpusak?

Lan gutxiago dugu, baina zailagoa, aurtengo ezohikoa da eta. Dena ondo joan dadin gura dugu.

centro de logopedia
arrasate
logopedia zentroa

Ultzein 11 behea • OÑATI • Tel.: 943 78 12 50

Erdiko kale 37 behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 79 46

www.arrasatelogopedia.com

Talde lana elkarrekin pausoz pauso.
Eskerrik asko 27 urte hauetan gudan
konfiantza izateagatik.
oraingoan ere bidelagun izan nahi zaitugu.

Arreta Goiztiarra Zerbitzua • Logopedia
Psikologia (TDAH) eta ikasketa teknikak • GLIFING metodoa

Xabier Urzelai ARRASATE

Lerro hauek irakurri orduko, futbola interesatzen ez zaion horrek ere izan du Sevillaren eta Betisen arteko derbiak emandakoaren berri. Norgehiagoka horrekin ekin, edo berrekin diote ligari, eta 28. jardunaldian hasi dituzte ostera ere lanak, martxoan COVID-19aren erruz dena bertan behera geratu eta gero.

Ondoko erreportajeon, GOIENAK futbolaren buletan ibarreko profesionalak batu ditu, izan entrenatzaile, jokalarik ala kazetari. Eta denek nabarmendu dute gauza bera, egoera berria dela guztiendako. Eta noski, horrek zalantzak sortzen ditu beti; bereziki, horrenbeste jokoan dagoenean.

"EGOERA BERRIRA ONDO EGOKITZEN DEN TALDEAK AURRERA EGINGO DU"

ASIER GARITANO, BERGARA
ALAVESKO ENTRENATZAILEA

Geratzen diren hamaika jardunaldien gainean zuhurtziaz egin du berba Asier Garitanok (Bergara, 1969), eta formatu ezezagun honen aurrean "arrisku" berba erabili du behin eta berriro: "Hilabete batean hamaika partidu jokatzeko asko da, ez gaude horretara ohituta, eta egoera berrira azkarren egokitzen direnek aurrerapauso handia emango dute".

Talde *babazorroa* ez dago atzeko postuetatik irteteko borroka estuan, oxigenoa ematen dioten zazpi puntuko alde du. "Baina akats handia izango litzateke horretan zentratzea; hau da, ezin da erlaxatzeko motiboa izan. Hasten bagara pentsatzen zazpi puntuko koltxoia daukagula. Denek dugu asko jokoan, behean daudeneko dagoeneko ez dute askorik galtzeko eta dena dute irabazteko, eta guk topera hasi beharko dugu hasiera-hasieratik, sufritu egingo dugu bestela".

Hala, entrenatzaile guztiek zalantza handiak dituzte egunotan: "Taldea ondo entrenatzen dabilela ikusten dugulako, baina lehia beste kontu bat da, beste intentsitate batekin jardun beharko dugu. Eta hor dugu zalantza". Eta gainontzeko entrenatzaileak moduan, lesioen beldur da bergararra. "Bost al-



Asier Garitano. X.U.




Andoni Azkargorta. X.U.



Andoni Gorosabel. REAL SOCIEDAD



Aitor Fernandez. X.G.



Rafa Mungia. R.M.



Haritz Gallastegi. A.G.

Futbola da, baina egoera 'berrian'

Futbolaren itzulerak itzala egingo dio baita azken hilabeteotan albiste izan den Covid-19ari ere. Entrenatzaile eta jokalarik denek dituzte egoera berriaren gainean zalantzak. Birusak baino, berdegunean txarto hasteak eragiten die ikara

daketa egin genitzake, baina talde handiek postu berean maila oso handiko pare bat jokalarik dituzte, eta talde txikietan, ordea, jokalarik garrantzitsuek min hartzen badute edo atseden hartu behar badute, asko igartzen da", gaineratu du. Badaki, gainera, publiko barik jokatzek ez diela mesederik egingo: "Gure garaipenen %70 inguru etxean lortzen dugu, pentsa ze garrantzitsua den guretako etxeko zaleen aurrean jokatzeko; eta orain ez da halakorik egongo. Baina nork daki; akaso, etxetik

kanpora jokatzeko ez da orain arte moduko gogorra izango, eta puntu gehiago batzeko kapaz izan gaitzke".

"TALDEEK MUNDUKO TXAPELKETAN ERE EZ DUTE HORREN JARRAIAN JOKATZEN"

ANDONI AZKARGORTA, ANTZUOLA
EIBARKO ENTRENATZAILE LAGUNTZAILEA

Baikorra da Andoni Azkargorta (1978), eta uste du jaitsiera postuak bi puntura badituzte ere

puntu horiek izatea abantaila moduan hartu behar dutela: "Trakurketa asko egin daitezke hor, baina hamaika jardunaldi hasten ditugu, nahiz eta gure neurria ematen ez badugu ez duten ezertarako balioko". Mendilibarren laguntzaileak ondo daki zer dagoen jokoan, eta kontziente da oraindik inork ez dituela etxeko lanak egin: "Oraindik inori ez zaizkio kontuak ateratzen. Goian daudeneko ez dute ezer lortu, erdian daudeneko badakite 33 puntu asko direla

eta gauzak ondo eginez gero European jokatzeko aukera izan dezaketela, eta atzealdean gaudenok... Zer esan, hil ala biziko borroka izango dugu. Horregatik, lauzpabost jardunaldi barru baliteke talderen batek baino gehiagok ordurako ezer ez izatea jokoan, baina, oraingoz, denak hasiko gara topera".

Hala, hilabete honetan partidu batetik besterako erreperazioan jarri du fokua Azkargortak: "Hor egongo da klabea. Egoera berria da guztiondako, munduko txapelketetan ere ez dute taldeek horren jarraian jokatzeko, eta partidu batetik bestera entrenatu baino gehiago, erreperatu egin beharko dugu ondo".

"REALEAN ERAKUTSI DUGU ZELAIAN EGON GAREN GUZTIEK EGIN DUGULA EKARPENEA"

ANDONI GOROSABEL, ARRASATE
REAL SOCIEDAD TALDEKO JOKALARIA

Talde txuri-urdineko atzelariak kontratua berri berritan ekingo dio ligari ostera ere: "Konfinamendu egoeran hasteko gogoz banangoen, pentsa orain, lanean jarraitzeko desatzen nago". Gorosabelek aste hauetan ondo ikusi ditu taldekideak: "Oporretan ere ez gara egoten horrenbeste denbora geldirik, baina, kontrara, klubetik bidali dizkiguten etxeko lanak ondo bete ditugu, eta psikologikoki ere ez dugu deskonektatu. Horrek guztiak lagundu du lanera bueltatu garenean maila politoan egin dugula. Ez dut abuztuan izaten dugun sentsazioa izan, egoera ezberdinak dira".

Arrasatekoa dagoeneko domekara begira dago. "Derbi berezia izango da Osasunaren kontra jokatuko duguna, Anoetako harmailak hutsik egongo dira, eta hori igarri egingo dugu. Lehen, atletismo pistekin, akaso, gurea zelai hotzagoa zen, baina aurten, zaleen bultzada izugarri igarri dugu". Hala, hilabetean horrenbeste partidu jokatu behar izateak erakusten du entrenatzaileak jokalarik guztien beharra izango duela, eta Gorosabelek aukera izan dezake hor: "Aurten jokatzea garesti egon da, baina talde osoa egon da maila onean, uste dut denek egin dugula ekarpena, eta hori albiste ona da geratzen diren partiduetarako".

"BUNDESLIGAN IKUSTEN GABILTZA EDONORK EMAN DEZAKEELA EZUSTEA"

AITOR FERNANDEZ, ARRASATE
LEVANTEKO ATEZAINA

Aitor Fernandezek (1991) Levante aldean martxora arte egindako lana ez da oharkabea pasaligan geldiketa gehien egin duen atezaina da, eta bistakoa da hainbat klubek fokua jarri dutela arrasatearrarengan. Arrasatekoa, baina, zurrumuruetatik harago, egunerokoan dago zentratuta: "Zalantza handiak ditugu denok, eta hemen ez dago erritmoa hartzeko tarterik, hasieratik joan behar dugu topera. Denbora asko egon gara geldirik, baina ezin dugu beste denboraldi-aurre batzuetan izaten ditugun sentazioekin alderatu; gu, behintzat, hobeto gaude".

Gertatu daiteken horren gaineko erreferentzia bat izateko edo, taldekideekin batera atezain arrasatearra Bundesliga gertutik jarraitzen dabil: "Akaso, talde handiak beste maila batean daude, baina Alemanian ikusten dabilta edonork eman dezakeela ezustekoa". Hala, Levantek 33 puntu ditu, jaitsiera postuak zortzi puntura dituzte, baina oraindik ez dituzte lasai egoteko etxeko lanak egin. "Uste dut geldialdi honek abantaila emango diela jaitsiera postuetan dauden taldeei. Horiek dena dute irabazteko, eta duela hiru hilabeteko dinamika positibo edo negatiboek dagoeneko ez dute ezertarako balio, hutsetik hasiko gara denok. Horregatik, behean dauden taldeetako batek fase berri hau ondo hasten badu, aurrerapauso handia emango du. Kontrara, sailkapenean apur bat gorago dagoen edonork zalantzekin hasten baldin bada, eta hasierako bizpahiru jardunaldietan ez badu punturik bazten, arazoetan sar daiteke".

"KIROL SAIOAK BESTE PATXADA ETA IKUSPUNTU BATEKIN EGITEN IBILI GARA"

HARITZ GALLASTEG, ELGETA
EUSKADI IRRATIKO KAZETARIA

Euskadi Irratiko kazetari Haritz Gallastegiri (1975) ligaren itzulerak ez dio eztarria hotz harapatuko, konfinamendu egoeran




Eibarko jokalaririk Enrich eta De Blasis aste barruan Atxabalpen. XABIER URZELAI

ere berdin jarraitu du-eta mikrofono aurrean lanean: "Beno, berdin-berdin ez, agendari eta emaitzei horren lotuta egon barik kirol kontuei beste modu batean heldu diegulako, beste patxada batekin landu ditugu gaiak, eta esango nuke nahiko saio txukunak egin ditugula, gustura geratu gara. Gainera, kirolari guztiak etxean egon dira, lehenengo saiakeran hartzen zuten telefono deia, eta kirolariak eurak beste prestutasun batekin sumatu ditut, aldarte hobean hartu gaituzte, eurak ere eguneroko zurrumbilotik kanpora egon dira eta. Hala, garbi dago horrela ezin gaitzkeela bizi osoan egon, baina konfinamendu egoeratik gauza positiboak ere ateratu ditut nik".

Hain zuzen, partiduen zuzeneko kontakizunak sortzen

duen zirrara hori sentitzeko gogoz da Gallas: "Eta geratzen diren partiduek zer emango duten ikusteko gogoz ere bai, hau guztia berria delako denondako. Talde guztiek dute asko jokoan, dena, eta ea nor moldatzen den ondoen egoera berrira". Komunikabideek, baina, bestetan baino zailtasun handiagoak izango dituzte lanerako. "Batetik, egia da irratian, akaso, ez dela horrenbeste igarriki futbol zelaiak hutsik dardela. Telebistan zailagoa da hori disimulatzea, baina ikusteko dago futbol zelaietara joan ahal izango garen ala ez. Tebasek erabaki du bost irratirendako lekua baino ez dela izango, eta San Mamesen 25 egoten gara; horrenbestez... Segurtasunaren izenean dena kontrolpean izan gura dute".



Andoni Gorosabel eta Jokin Aperribay, kontratu berria sinatzen. REAL SOCIEDAD

Gorosabel: "Ametza bete dut"

Realeko jokalaririk Andoni Gorosabelek 2024ra arte luzatu berri du klub txuri-urdinarekin zuen kontratua. "Pozik nago nire taldean jarraitu ahal izango dudalako, klub honetan pausoak ematen jarraituko dudalako", adierazi du arrasatearrak.

"BADIRUDI ETXEAN JOKATZEAK EZ DUELA ABANTAILA HANDIRIK EMANGO"

RAFA MUNGIA, ARRASATE
EUSKADI IRRATIKO KAZETARIA

Elkarrizketa egin baino apur bat lehenago jaso du Rafa Mungiak (1975) domekan Anoetan egon ahal izango den baieztapena: "Ez du zentzurik irratien sarbidea mugatzen ibiltzeak. Jokalariak Anoetan 200 metroa izango ditugu; gainera, COVID-19 gaitza ez dugula frogatu behar dugu. Kazetariok geroago eta zailtasun handiagoak izaten ditugu lanerako. Gainera, orain horrenbeste neurri zorrotz, eta lau aste barru ikusleak sartu gura dituzte harmailetara, ez du zentzurik".

Arrasatekoa egoera berri honek ekarriko duena ikusteko gogotsu dago: "Alemanian gauza bitxi batzuk gertatu dira. Etxean jokatzeko ez omen da horren erabakigarria izango, eta, entrenatzaileek bost aldaketa egin baditzaizkete ere, han ez dituzte aldaketak agortzen, ikusiko dugu hemen". Hala, Mungia domekako derbira begira dago dagoeneko: "Berez, Osasuna baino gehiago da Real, talde osoagoa du eta ordezkien aukian dauden jokalarien artean ere Realak badu non aukeratu. Nafarrek, gainera, min hartutako hainbat jokalaririk dituzte".

Emakumezkoen futbola ez da bueltatuko

Bazirudien aurtengo denboraldian emakumezkoen eta gizonzkoen futbolaren artean dagoen aldea txikitzeko aurrerapausoak ematen zebiltzala, baina irudikeria baino ez da. Esaterako, orain, gizonzkoen ligak baino ez dituzte berrekingo.

"Alemanian emakumezkoak ere jokatzeko dabilta, baina hemen ez. Halakoek erakusten dute zorritarrez hemengo errealitatea zein den. Gizonzkoen futbolak diru asko mugitzen du, eta hor bakarrik egin dute ahalegina", adierazi du Rafa Mungia kazetariak.

Aste barruan jakin da Espainiako Federazioak emakumezkoen futbolari "profesionalizatutako" izendapena eman diola, baina emakumezkoen klubuen elkarteak adierazi du horrek ez duela egoera aldatzen. "Amateur mailako futbola izaten jarraituko du, ez da ezer aldatu", adierazi du ACFFk.



Jokalaririk bergararra baloia eraman. ATHLETIC CLUB

Gimbert: "Ilusioari eusten diot"

Athleticeko jokalaririk Vanesa Gimbertek beste urtebete egingo du talde zuri-gorrian, aste barruan kontratua luzatu eta gero: "Iritsiko da agur esateko ordua, baina ez da orain izango, ilusioari eusten diot eta taldeari ekarpena egin diezaiokedala uste dut".

Zuzeneko abiatzea, erritmo ezberdinetan

Kulturgintzako profesionalak lanean hasteko behar den arautegia Eusko Jaurlaritzari "behin eta berriz" eskatu arren, ez dago halakorik oraindik, eta jarraitu beharreko baldintzen zehaztasun ezak ez du laguntzen publikoarekin zuzeneko ekitaldiak lotzen

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Pantailaz haragoko zuzeneko kultura ekitaldien gosea dute zaleek, eta sektoreko profesionalak "lehenbailehen lanean hasteko gogotsu" daudela adierazi dute, kulturgintzak bizi duen egoerarekin "oso kezkatuta"; izan ere, uda izaten da gehienendako urteko sasoirik lanpetuena eta emankorra.

Programatzaileen artean jarrera eta erritmo ezberdinak nabari dira, eta hala da Debagoienean ere. Oñatiko eta Aretxabaletako udalek abiatu dute dagoeneko udako kultura eskaintza; gainontzekoetan, egitaraurik ez dute oraindik mahai gainean; programazioa noiz eta zelan abiatzeko protokoloak lantzen ari dira.

Oñatin, 'Esku.ltu.ra'

Herriko gune ezberdinetan –aretoetan eta kanpoan– hamabost ekitaldi egingo dituzte, guztira; aurreko egubakoitzean lehenengo, eta abuztuaren 30ean azkena. Sarrera dohainik da, baina, edukiera mugatua denez, aurretik txartela hartu behar da. Bi modu daude horretarako: Txokolateixan eta *Oñati.eus* atarian.

Santa Ana aretoan estreinatuta zuten, Barry Manleyren baka-rrizketarekin. "40 lagun egon



Eguaztenean kultura etxeko zinema aretoan egin zuten ikuskizuna. OÑATIKO BIBLIOTEKA

ginen, guztiak maskararekin; areto kanpoan gela zegoen eta eserlekuen artean beharrezko tartea", azaldu du Kultura zinegotzi Iñaki Olalde. Neurri berekin egin zuten eguaztenean kultura etxeko zinema aretoan *Tuppersex eta ipuin erotikoak* lantegia. "Poz-pozik izan ginen denak; Virginia Imaz kontalariak publiko-gosea zuela adierazi zigun", azaldu du Oñatiko bibliotekari Arantzazu Ibarrodok.

Asteburuan bi ekitaldi ziren egitekoak, baina eguraldi txarrak baldintzatuta, gaur, egubakoitza,

Foruen plazako pilotalekuan, 22:30ean, eskaintzekoak ziren aire libreko zinemarik ez da izango. Domekan, Lazarragako lorategian musika bandaren eta txistularien kontzertua izango da; sarrerak agortuta daude.

Aretxabaletan, kale-antzerkia

Ekaina kale-antzerki hilabetea izaten da Aretxabaletan, eta *7x7 Kultura kalean* programa abiatu zuten herenegun; hilaren 25era bitartean, zazpi ikuskizun egingo dituzte herriko gune ezberdinetan (Ikus 19. orria).

"Etengabe aldatzen"

Hala ari direla dio Arrasateko Kultura teknikari Jon Garaik, jasotzen duten informazioaren arabera modu batera edo bestera Udazabalen egitaraua lotu guran. "Kalerako ekitaldiak egin nahi ditugu; edukiera mugatua izango dute, eta toki ezberdinetan egitea da asmoa, baina espazio guztiak ez dira aproposak".


Bergaran ez dute zehaztu izango duten egitaraua, baina, adierazi dutenez, Udala badabil udako eskaintza prestatzen. "Prestatzen ari garen plan integralaren barruan, kultura berriz kalean gozatu ahal izateko baliabideak jarriko dira. Aurreikusita dago uztailan eta abuztuaren hainbat kale ikuskizun, kontzertu eta aire libreko zine emanaldi izatea".

Errekan Gora musika jaialdia egiten dute Eskoriatzan uztailan, Atxorrotx kultur elkarteak antolatzen du Udalaren laguntzarekin. "Formula berriak bilatzen ari direla" azaldu dute.

KUPLA plataforma

Askotariko profesionalak –teknikariak, artistak, enpresak...– batzen dituen KUPLA plataforma sortu berriak erakunde publikoei elkarlanerako dei egin die. "Gure eskarmentua eskaini nahi diegu, denon artean egoera honetatik ateratzeko; kultura salbatzeko eta arloko profesionalak, eta horiek guztiak sortzen duten ekonomia-egitura babesteko. Irekitzeko baimena ematen digute, baina jarduera berreskuratzeko aukerarik ez".

Horiek guztiak aldarrikatzeko, bihar egingo duten *Kulturaren hileta* ekitaldian parte hartzeko proposatu dute; 12:00etan izango da, Eusko Jaurlaritzaren egoitzatik gertu.



UBANE UZIN

"Sektore osoa geratzea ez da bidezkoa"

UBANE UZIN

GAZTELUPEKO HOTSAK

Soraluzeko promotoreak kulturgintzan eskarmentua du; Bergarako Berumuga musika zikloa antolatuta izan dute urte askotan.

Hasi zarete lanean?

Hasi dira gauzak mugitzen, baina ez guk gura beste; programatzaileen artean batzuk ausartagoak dira eta hasi dira kontratuak lotzen; gehienak, baina, geldirik daude, zain. Hori da dudaren pertzepzioa.

Zer esan zain daudenei?

Antolaketa eta kudeaketa arloetan aldaketak eginda kulturgintza aktibatzea beharrezkoa dela; eta mantentzeko kultura arloan duten aurrekontua.

Proposamenik baduzu?

Ordutegia, edukiera eta moldaketak egin beharko dira beste arlo batzuetan egin diren eran, baina hori ezin da sektore osoa geldituko gogoteko arrazoia izan.

HEMEN DEBAGOIENA

GOIENA TELEBISTA, ZUZENEAN OÑATITIK
EKAINAREN 12AN, EGUBAKOITZEAN, 18:00ETAN
(ERREPIKAPENA 20:00ETAN ETA 22:00ETAN)
CORPUSEN GAINEKO SAIO BEREZIA

goiena
20 URTE ZUEKIN.



Euskal antzerki obrak liburuetan jaso dituzte

Kepa Errastik idatzitako 'Mami Lebrun' antzezlanaren gidoiak liburu forma du orain; Susa argitaletxeak argitaratu du, Ganbila bilduman, eta dagoeneko sei lan dituzte jasota; gidoiak gainera, testu osagarriak eta bestelako edukiak ere biltzen dituzte

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

2019ko udazkenean abiatu zuten Susa Argitaletxeak eta EHAZEK (Euskal Herriko antzerkizaleen elkarte) elkarlanean sortu duten euskal antzerkiari eskainitako Ganbila izeneko bilduma.

Lehen labealditik hiru liburu argitaratu zituzten: *Simplicissimus* (Patxo Telleria); *Bazterreko ahotsak* (Miren Tirapu Goikoe-txea, Beheko Larraine eta Gaizka Sarasola) –bi antzezlanez osatutako liburua da, *Atte hil aurretik eta Manifestu bat*–; eta *Francoren bilobari gutuna* (Ar-tedrama, Dejabu Panpin Labo-rategia eta Le Petit Theatre de Pain taldeak). Martitzenean aurkeztu zituzten bildumako hiru liburu berriak: Kepa Errasti aretxabaletarrak idatzitako *Mami Lebrun*; Galder Perezen *Hiru geltoki lurrin –Lurrin min- ez, Lau metrora eta Off the record* lanak biltzen ditu–; eta Eneritz Artetxeren *Isiltasuna* –antzeztu gabeko *Isiltasuna* lana eta Artetxek Dxusturi konpainiarekin taularatu duen *Karra-marroa* lanak jasotzen ditu–.

Amama zenari omenaldia

Mami Lebrun "euskal antzerki-gintza pauso sendoz jorratzen ari den ibilbide oparoaren adibide bat dela" diote Ganbila bildumaren sortzaileek. "Egilearen amonaren heriotzak sortutako zirrara pertsonala du fikzioak sorgune. Antzerkiak antzerkiaren barruan ematen dituen aukerak baliatuz, heriotzaz, doluz, iraganaz, maite ditugunen memoriaren zaintzaz, aurreko belaunaldiak bizitzea tokatu zitzaizen mundualdiari emandako erantzunaz eta, inplizituki besterik ez bada ere, oraingoari eta etorkizunari guk eman beharrekoaz hitz egiten du".

Errastik eta haren lantaldeak pozik hartu zuten Ganbila bilduma egileen proposamena. "Batez ere, gure lehenengo an-



Astean egin dute Ganbila bildumako antzerki-liburuaren aurkezpena. SUSA ARGIALETXEA

tzezlan delako eta oso lan pertsonala delako, eta orain, hor geratuko da liburu formatuan jasota. Amamak zer esango zukeen? Auskalo! Flipatu egingo zuen bere istorioa noraino heldu den ikusita".

Liburu-dendetan eta 'online'

Bildumako gainontzeak moduan, interesa duen edozein-dako eskuragarri eta erabilgarri dago Errastiren gidoiak; liburu-dendetan eta *Susa-literatura.eus* eros daiteke.

Bertsio berriak sortzeko tresna

Xake Produksioak konpainiaren lehen obra da; Getari Etxegaraiak zuzendu du eta Ane Pikaza, Ainara Ortega eta Kepa Errasti aktoreak dira protagonistak.

Zeresana sortu du eta sari garrantzitsuak jaso ditu *Mami Lebrun* lanak; besteak beste, Donostia Antzerki Saria jaso zuen 2018an, eta aurtengo Euskal Aktoreen Sarietarako hautagaietako bat izan da Errasti, antzerkiaren atalean.

Bertsio berrietarako prest

Konpainiak dagoeneko ez du antzokietan eskaintzen. "Gauza guztiek dute bukaera bat, eta honi ere heldu zitzaion berea, utzi zizkiguten tresna guztiak itzuli genituen eta ez dugu gehiagotan eskaintzeko asmorik; hala ere, liburua kalean dago orain, guztiontzako eskuragarri, eta pozgarria litzateke beste batzuek antzeztutako bertsio berriak sortzeko tresna izan dela ikustea", dio Errastik.



Mami Lebrun liburuaren azala. SUSA

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko ekaineko sariak!

Chromecast

Parte hartzeko sariaren izena: Chromecast



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
ONATIKO O B A K

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Dibutako Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indararen dagoen LOPD 15/19/99 legearen arabera, jeki hasieran dago zue dugu pertsonaliki Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitategi automatizatu baten sartuko direla. Datu bilaketaren helburu bako nor da indararen dagoen sustapena gertatzen. Eskubide izango duzu datuetan sartzea, hain zuzentzeko edo zuzentzeko, hobide horietara idatzi: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

MAUXKA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzea: Ekainaren 16ra arte

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



ESKAITZA BEREZIA!!

Ekainetik abendurako bazkidetza: 30€
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denek irabazle!

HILETA

Isidro Zabaleta Narbaiza
(Ugarte Torre baserria)



2020ko martxoaren 16an hil zen, 77 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna zapatuan, ekainak 13, izango da, 18:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokiari.

Beti izango zara gure bihotzetan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Antzuolan, 2020ko ekainaren 12an.

HILETA

Maria Arregui Idigoras



Fortunato Barrenaren alarguna

2020ko apirilaren 11n hil zen, 97 urte zituela.

Bere oroimenez, azken agurreko hileta-elizkizuna ekainaren 13an, zapatua, izango da, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren parrokiari.

Aldez aurretik mila esker etorriko zaretenei.

Oharra: eliza barruan maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da. Oñatin, 2020ko ekainaren 12an.

HILETA

Maria Bergaretxe Abarrategi



2020ko maiatzaren 4an hil zen, 80 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna martitzenean, ekainak 16, izango da, 19:00etan, Aretxabaletako Jasokundeko Amaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2020ko ekainaren 12an.

OROIGARRIA

Juan Mari Ortueta Jauregi



2020ko ekainaren 10ean hil zen.

'Los escandinavos' lagunak:
Paco, Jon, Ignacio, Uribe, Peio, Dani eta Alfonso.

Arrasaten, 2020ko ekainaren 12an.

OROIGARRIA

Andoni Roa Usatorre
- Goian bego -




2020ko ekainaren 5ean hil zen.

*Joan zaigu sukaldaria,
afarietako alaitasuna,
argazkilaria, gure laguna.
Betirako, Andoni.*

Zure kuadrilla.
Arrasaten, 2020ko ekainaren 12an.

OROIGARRIA

Andoni Roa Usatorre



2020ko ekainaren 5ean hil zen, 54 urte zituela.


Beti gogoratuko dugu zuk Roa familiari emandako guztia.

Mila esker, Andoni.

Zure lehengusuak eta tia Kontxita.
Arrasaten, 2020ko ekainaren 12an.

OROIGARRIA

Anjel Urzelai Ganboa
'Elordui'




2016ko ekainaren 1ean hil zen, 56 urte zituela.

*Lau urte igaro diren arren,
aita maitea, ze azkar joan zinan...
Zure maitasun hitzak, aholkuak,
sentimenduak... gurekin bizi dira.
Asko maite zaitugu.*

Zure emazte Kontxi, alaba Naiara, biloba Adei eta Laket, suhi Ander eta etxeko guztiak.
Oñatin, 2020ko ekainaren 12an.

OROIGARRIA

Luis Angel Perez Noval



2020ko ekainaren 7an hil zen, 67 urte zituela.


*Pertsona kementsu eta ausarta, kirolaria,
borrokalaria sutsua eta, batez ere, senitarteko bikaina.
Erreferente hutsa.*

Goian bego.

Ortiz de Zarate familia.
Bergaran, 2020ko ekainaren 12an.

OROIGARRIA

Luis Angel Perez Noval



2020ko ekainaren 7an hil zen, 67 urte zituela.

Zure bizipoza betirako geldituko da gurekin.

Zure kuadrilla.
Bergaran, 2020ko ekainaren 12an.

HILDAKOAK

Maritxu Gorrotxategi Elorza. Oñatin, hilaren 2an. 93 urte.**Blanka Ruiz de Zarate Berrio-otxo.**

Arrasaten, ekainaren 3an. 64 urte.

Jose Garcia Delgado. Oñatin, ekainaren 3an. 76 urte.**Modesta Zurbano Mondragon.**

Bergaran, ekainaren 3an. 96 urte.

Jeronimo Flores Arrocha. Arrasaten, hilaren 4an. 76 urte.**Julian Alzelai Irigoien.** Bergaran, ekainaren 4an. 89 urte.**Juana Sarasketa Gallastegi.** Elgetan, hilaren 4an. 84 urte.**Andoni Roa Usatorre.** Arrasaten, ekainaren 5ean. 54 urte.**Benjamin Borreguero Santano.**

Bergaran, ekainaren 5ean. 75 urte.

Luis Angel Perez Noval. Bergaran, ekainaren 7an. 67 urte.**Aita Jesus Bilbao Azpeitia.** Oñatin, ekainaren 7an. 76 urte.**Marino Aldea Castillejo.** Oñatin, ekainaren 7an. 77 urte.**Aintzane Buruaga Idigoras.** Aramaion, hilaren 8an. 59 urte.**Juan Mari Ortueta Jauregi.** Arrasaten, ekainaren 10ean.**Ines Merino Sanchez.** Arrasaten, ekainaren 10ean. 84 urte.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue
nahiz eta heriotz
asegurua
izan, zuek
nahi duzuen
hileta-zerbitzua
aukeratzeko
eskubide osoa
duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza
dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

ASTE A GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

CORPUS EGUNeko MEZA, ZUZENEAN

'Bereziak' Domeka, 12:00



GOIENA

HEMEN DEBAGOIENA BEREZIA: CORPUSAK

'Hemen Debagoiena' 18:00, 20:00 eta 22:00

EGUBAKOITZA, 12

08:00 Txanburiak
 08:30 Kantari Arrasate 8
 09:00 Kantari Arrasate 7
 09:30 Kantari Oñati 2
 10:00 Hemen Debagoiena
 11:00 Eskulanak etxetik
 11:30 Hala Bazan
 12:00 Hemen Debagoiena
 13:00 Kantari Oñati 2
 13:30 Kantari Arrasate 9
 14:00 Hemen Debagoiena
 15:00 Albisteak
 15:30 Kantari Arrasate 8
 16:00 Albisteak
 16:30 Ane Lore sukaldean: Coulant
 17:00 Albisteak
 17:30 Adinberri 12
 18:00 Hemen Debagoiena (Oñati)
 18:45 Albisteak
 19:00 Jaiak: Corpus jaiak
 19:30 Elkarrizketa: Rakek Gamito
 20:00 Hemen Debagoiena (Oñati)
 20:45 Albisteak
 21:00 Jaiak: Corpus jaiak
 21:30 Etxetik plazara

ZAPATUA, 13

09:00 Kantari Oñati 4
 09:30 Kantari Oñati 1
 10:00 Kantari Oñati 5
 10:30 Etxetik plazara
 11:30 Ane Lore sukaldean: Coulant
 12:00 Hemen Debagoiena (Oñati)
 13:00 Jaiak: Corpus jaiak
 13:30 Elkarrizketa: Rakek Gamito
 14:00 Etxetik plazara
 14:30 Hala Bazan
 15:00 Hemen Debagoiena (Oñati)
 16:00 Jaiak: Corpus jaiak
 16:30 Elkarrizketa: Rakek Gamito
 17:00 Hala Bazan
 17:30 Adinberri 13
 18:00 Etxetik plazara
 18:30 Elkarrizketa: Rakek Gamito
 19:00 Hemen Debagoiena
 19:30 Astearen errepasoa
 20:00 Erreportajea: Sans Nom Sarea
 20:30 Ane Lore sukaldean: Coulant
 21:00 Hemen Debagoiena

DOMEKA, 14

08:00 Astearen errepasoa
 08:30 Hala Bazan
 09:00 Txanburiak
 09:30 Kantari Oñati 1
 10:00 Kantari Oñati 4
 10:30 Kantari Oñati 5
 11:00 Hemen Debagoiena (Oñati)
 12:00 Corpusetako meza
 13:00 Jaiak: Corpus jaiak
 13:30 Elkarrizketa: Rakek Gamito
 14:00 Etxetik plazara
 14:30 Hala Bazan
 15:00 Hemen Debagoiena
 16:00 Kantari Oñati 1
 16:30 Kantari Oñati 5
 17:00 Hemen Debagoiena (Oñati)
 18:00 Corpusetako meza
 18:30 Jaiak: Corpus jaiak
 19:00 Hemen Debagoiena
 20:00 Elkarrizketa: Rakek Gamito
 20:30 Hala Bazan
 21:00 Hemen Debagoiena (Oñati)
 22:00 Corpusetako meza
 23:00 Jaiak: Corpus jaiak

EGUBAKOITZA, 12

HERRITARREN KONTUAK TELEBISTAN

'Etxetik plazara'
 21:30

EGUBAKOITZA, 12

OÑATIKO CORPUS EGUNA

'Bereziak'
 23:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/ **telebista**
 Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

ZAPATUA, 13



GOIENA

HEMEROTEKARI BEGIRADA

'Hala Bazan'
 22:00

EGUNERO

ADINDUENDAKO KIROL ARIKETAK

'Adinberri'
 17:30

TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4

1. Olakua auzoko jaiak

Beste hainbat lekutan moduan, Oñatiko Olakua auzoan jai bereziak ospatu zituzten aurreko asteburuan. Kaleak eta balkoiak apaindu egin zituzten, eta trikitilariak kalerik kale ibili ziren herritarrek animatuz. Buruhandi batekin eta mozorrotutako hainbat lagunekin ibili ziren auzoko txokoak alaitzen eta giroten.

2. Batzar presentzialak

Eskoriatzako Auzoko taldeko kideak hasi dira elkartzen, euskaraz berba egiten jarraitzeko asmoz. Konfinamenduan telematikoki egon dira hartu-emanetan. Baina hasi dira batzarrak egiten. Hori gutxi balitz, aste honetan, bideo bat grabatzen hasi dira, eta hainbat elkarrizketa egin dituzte herriko kaleetan.

3. Hegazti sarraskijaleak ikusten

Arantzazuko Parketxeak konfinamenduaren osteko lehen ekintzak egin zituen aurreko asteburuan. Horietako bat izan zen hegazti sarraskijaleak behatzeko irteera. Aurretik, Mikel Olanoren azalpenak entzun zituzten, eta ostean, prismatikoak erabili, parketxearen parean bizi diren sai arreak ikusteko aukera izan zuten parte-hartzaileek.

4.45 urte ezkontuta

Iñaki Zabala eta Itziar Ibarra bergarrek ezkondu zirela 45 urte bete dituzte. Eta urteurren berezi hori ospatzeko, zorion mezu oso berezia jaso dute. "Zorionak, aitaita eta amama; jada 45 urte batera! Oso ondo ospatu eguna eta besarkada handi bat etxeko denon partetik. Batez ere, Agateren, Inarren eta Kermanen partetik".

ZORION AGURRAK



ONATI
Ander Gavilan Iturbe
Ekainaren 18an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat, familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
Elene Otxandategi Lasagabaster
Ekainaren 15ean, 4 urte. Zorionak, Elene! Ederto ospatu zure eguna eta besarkada potolo bat, etxeko danon partetik!



ANTZUOLA
Manex Rodriguez Martin
Ekainaren 15ean, 4 urte. Zorionak etxeko txikiari! Ondo ospatu zure eguna! Muxu asko eta besarkada handi bat, familia osoaren, eta batez ere, Haritzen partetik.



ARAMAIO
Haizea Berasaluze Eriz
Ekainaren 14an, 3 urte. Zorionak, bihotza! Zeinen azkar pasatzen dan denbora zure aldamean... Zu zara gure zoriona eta bizipoza! Mila muxu erraldoi, etxeko danen partetik. Bereziki aitabxo eta amatxo. Segi beti bezain alai, maitia. Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu!



ONATI
Julen Sagastume Barrena
Ekainaren 14an, 8 urte. Zorionak, Julen! Jada zortzi urte bete dozu! Jarraitu holakoxe maitagarria izaten. Patxo handi bat danon partetik! Mua!



BERGARA
Anartz Calleja Arribillaga
Ekainaren 14an, 13 urte. Zorionak, politta! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta hain alai jarraitu! Muxu, maite zaituen guztien partetik!



ARRASATE
June Barandiaran Garai
Ekainaren 13an, 10 urte. Zorionak, maitea! Badoa denbora aurrera eta 10 urte beteko dituzu jada. Jarraitu alaitasun horrekin bizitzaz gozatzeko! Primeran pasa dezazula zure eguna. Muxu eta besarkada handi bat, maitasun askorekin, familia osoaren partetik.




BERGARA
Aiala Cano Fernandez
Ekainaren 13an, 9 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat, familia osoaren partetik.



ANTZUOLA
Aitor eta Irati Mugica Barandiaran
Ekainaren 12an, 5 urte. Urte askotarako, bikote! Ondo pasatu eguna! Etxeko partetik. Batez ere lehengusina Ainara, Aitziber eta Elene.



ARETXABALETA
Maialen Arrese
Ekainaren 12an, 2 urte. Zorionak, Maialen! Etxeko danon partetik!



BERGARA
Naroa Garcia Urbieto
Ekainaren 12an, 6 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat, etxeko danon eta, bereziki, Maialenen partetik.



ARRASATE
Lukas Eguiara Garcia
Ekainaren 11n, 2 urte. Zorionak, potxolo! Arrasateko irribarre politxena! Aitxajauna eta amamaren, osaba-izeben eta lehengusuen partetik! Egun politxa pasatu! Eta barre itxen jarraitu!



ONATI
Alaia Olabe Casais
Ekainaren 10ean, 5 urte. Zorionak, bihotza! Edarto ospatuko dugu zure bosgarren urtebetetzea. Askok maite zaitugu. Muxu potolo bat, familiako guztien partetik.




ARETXABALETA
Alaia Leiba Arenaza
Ekainaren 10ean, 5 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure egunien eta patxo potolo bat, etxeko guztien partetik!



ARRASATE
Aiora eta Alaia Murgoitio
Ekainaren 8an, 6 urte. Zorionak, Aiora, Alaia eta aitite Patxi! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Laztan handi bat!



ONATI
Izaro Zelaia Altube
Ekainaren 8an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Jada 10 urte! Segi holaxe oin artian mouan, beti irribar horrekin aurpegiaren! Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat, asko gura dun danon partetik!



ARRASATE
Julen Alonso Tena
Ekainaren 7an, 5 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure egunian. Musu handi bat etxekoan, eta bereziki, lbairen partetik. Askok maite zaitugu!



ARETXABALETA
Irati Garcia Aranzadi
Ekainaren 7an, 18 urte. Zorionak, Irati! Bikain pasatu zure urtebetetzean, 18 urte behin bakarrik ospatzen dira-eta... Mila patxo!

Urte askotarako!

Zoriontzeko, hiru bide dituzu:

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.


Ordezkaritzak
Etor zaitzen Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



BERGARA
Ander Txurruka Jauregi
Ekainaren 6an, 7 urte. Zorionak, Ander! Patxo handi bat, etxeko guztien partetik!



ONATI
Natale Orueta Santos
Ekainaren 6an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat, familia osoaren eta, bereziki, Peruren eta Martxelen partetik!



BERGARA
Ekaitz Calvo Urdanpilleta
Ekainaren 3an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Arhaneren, amatxoren, aitaxoren eta Latzen partetik, muxu potolo bat.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Kalea berreskuratu

Joan den asteburuan, Hamaika Gara dinamika lehen urratsa proposatu zuen herritarren aldarriak berriro plazaren erdian kokatzeko. Hilabeteak eman ditugu etxean atxilo, halaberrez, dinamika sozialak ia erabat etenda. Gure autogobernua ere konfinatuta egon da, gobernu espainiarrak alarma egoera baliatu baitu ezohiko eskumenak bereganatzeko. Estatu kolpe baten antzeko egoera bizi izan dugu, eta egoeraren larriaz ia jabetu ere ez gara egin.

Horregatik da beharrezkoa egoera hori iraultzea, eta herritarrok berriro kaleak berreskuratzea, gure indarrak eta aldarriak batzeko. Pandemiak agerian utzi du hurbileko komunitatea indartzea dela babes neurririk eraginkorrena, distantzia soziala bezain beharrezkoa dugula kohesionatuko gaituen dinamika kolektibo eraldatzailea. Herritarrok etxean konfinatuta, espazio libre gehiegi uzten dugu boteretsuek nahi dutena egin dezaten. Gure tokia hartu behar dugu berriro, kale eta plazetan, pandemiaren faktura ez dezaten ahulenez ordaindu, eta pandemiaren osteko garaian justizia, elkartasuna eta berdintasuna areagotu daitezten. Partida garrantzitsua daukagu hurrengo hilabeteotan.

BUKATZEKO

Bizikleta da arintze faseko produktu izarra

Konfinamendutik irten berritan, bizikleta berriak erosi edo ganbaran ahaztutako horiek konpontzeko ohitura hartu dute herritarrek. Arazoa da hornitzaile nagusien biltegi handietan ez dagoela stockik, eta bizikleta-dendek ere ez dutela zer saldu

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE

Konfinamenduak iraun duen bitartean, modu batera edo bestera, kirola egin dute gehienek. Aste horietan arrabolak saldu ziren gehien, etxean egonda ere kilometro batzuk egin ahal izateko. Arintze fasearekin batera bizikletak segitzen du produktu izarra izaten, baina, oraingoa, errepidean, kalean, mendian, bidegorrian... ibiltzeko. "Egoera oso arraroa da. Izan ere, herritar batzuek bizikletak erosi dituzte, baina beste askok etxean gordeta eduki duten bizikleta mitikoa ekarri dute. Zaharragoak diren bizikletei doikuntza egin diegu: pieza batzuk aldatu, erruberrak begiratu, gurpil-azalak aldatu...", esan du Lizarralde dendako Mikel Lizarralde. Derrepente, bizikleta zaharrez bete dira dendak.

Stock barik

Hala, arazoa dator bizikleta berriak erostera joaterakoan. Arintze fasearen hasieran erosi zutenak dagoeneko hasi dira bizikleta erabiltzen. Orain erosi gura dutenek uztail bukaerara arte edo abuztura arte itxaron beharko dute. Bizikletak egiten dituzten fabrikatzaileen biltegiak



Mikel Lizarralde, Arrasateko dendan. M.B.M.

stock barik geratu dira. "Une honetan, hiru bizikleta berri bakarrik dauzkat Arrasateko dendan. Beste guztiak saldu egin ditugu. Zoramen hutsa izan da. Kontua da gu konfinatuta egon garen bitartean, beste hainbat lekutan, bereziki bizikleta asko erabiltzen den horietan, adibidez Herbehereetan eta Belgikan, ez dutela kalera irtetea debekatu. Leku horietan salmentak berdin jarraitu du. Hortaz, gu eskaerak egiten hasi garenerako, ez zegoen bizikletarik", esan du Lizarralde.

Bizikleten salmenta horrenbeste igotzeari buruz galdetuta, Lizarralde uste du "kalera irteteko beharrak eta gogoak" eragindako egoera izan dela. Bizikletak prezio askotarikoak daude. Herritar batzuek euren gustura egindako bizikleta gura izaten dute. Baina denbora itxaron beharko da bizikleta horiek erosi ahal izateko.

Bizikleta estatikoak ere bai

Arrabolarekin hasi zen zoramen badiurdi bizikleta salmentarekin bukatu dela, baina, tartean, egon dira beste produktu batzuk herritarren arreta erakarri dutenak. "Korrika egiteko zintak, bizikleta estatikoak eta fit-bike egiteko bizikletak eskatu zizkiguten lehen egunetan. Dendan genituen estatiko guztiak saldu ziren, eta orduan ere, hornitzaileak produktu barik geratu ziren. Konfinamenduan, arrabol bat zuena zorionekoa zen", kontatu du Lizarralde.

Normalean, martxoan hasten da bizikleta-denden salmentarako garai onena. Aurten, apur bat atzeratu da, stock barik geratu diren arte.

arizmendi
ikastola PRO

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa



943 77 20 25 • www.arizmendipro.eus • arizmendi@arizmendi.eus

Zure Lanerako Bidea

AURRE MATRIKULAZIOA Ekainaren 1etik 19ra

- GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOAREN IRAKASKUNTZA
- OSASUN LARRIALDIK
- ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIAK
- MIKROINFORMATIKA



MATRIKULAZIOA Uztailaren 13tik 17ra